

goiena

DEBAGOIENDARROK DIOGUNA



2013-11-25
ASTELEHENA
431. ZENBAKIA
10. URTEA
1,10 EURO
GOIENA.NET
TOKIKOM

Mendieta Euskal Herriko txapeldun

Arrasatearrak boulder
lehiaketa irabazi du | 22



Eskalatzaileak txapelketan. | X.U.

Jagoba Arrasate eta Markel Irizar
Bergarako Euskararen Egunean | 16



Pentsioen erreformaren aurka
kalera irtengo dira erretiratuak | 6



Pirritx eta Porrotxek 'Bizipoza' azken
lana estreinatu dute Eskoriatzan | 11

Ohi bezala, zarzuelak bete egin zuen Amaia

Sorozabalen 'La taberna del puerto'
taularatu du Arrasateko Izaskun Murgia
Elkarte Lirikoak arrakasta handiz. | 25



Marinelek badakite Juan de Egiak belarrondokoa
eman diola Marolari, baina hark ezer ez egiteko
eskatzen die goiko eszenan.

JOSETXO ARANTZABAL

Genero indarkeria erotik ezabatu behar dela aldarrikatuko da gurean ere

Azaroaren 25a, Emakumeen Aurkako Indarkeriaren Kontrako Nazioarteko Eguna da gaur eta horren harira protesta eta aldarrikapen ekintza ugari egongo dira gaur eta datozen egunetan bailarako herri ia guztietan. | IKUS 'HERRIAK' SAILA

SINADURAK

-  MIREN AMURIZA | 8
-  8 | MIREIA BIKUÑA
-  MAITE BARREÑA | 14
-  17 | MARIJE UGALDE
-  IÑAKI IDIGORAS | 18
-  19 | MARIJO PAGALDAY
-  OIHAN VEGA | 37
-  40 | IÑIGO SOLUPE

**Saratxagaren
estiloan
oinarritutako lan
egiteko
moduekin
saiakera egin du
Oñatiko Udalak** | 2

**Bailaran
boluntariotzan
diharduten sei
elkartek Lotune
sortu dute**
Indarrak batu eta
koordinatuta lan
egiteko sortu dute | 5

**"Aurten,
230
enpresa
sortzen lagundu
izango du
Gaztempresak"**

Jon Emaldi | Laboral Kutxako Kalitate
eta Gestio Ereduko zuzendaria | 7

**Txus
Goikoetxeak
29 egun
daramatza
gose greban**
Agerraldiak deitu
dituzte Arrasaten
eta Donostian | 4



Oñatiko Udalaren osoko bilkura bat. | LK

Harreman Estilo Berriarekin saiakera egin du Oñatiko Udalak

- ▶ Koldo Saratxagak ezagun egindako NER estiloa da
- ▶ Lehenengoz aplikatzen zen NER sektore publikoan

LEIRE KORTABARRIA | OÑATI

Oñatiko Udala laborategi antzekoa izan da zortzi hilabetetan zehar. Hain zuzen, udal baten ezohikoak diren lan egiteko moduak esperimentatu zituzten han, orain dela urte eta erdi bukatu zen prozesu baten. Udal langile guztiek parte

hartu dute, ordezkari politikoei ere bai. Koldo Saratxaga enpresaburu ezagunak sortu duen K2K enpresarekin batera, NER bezala ezagutzen den Harreman Estilo Berria landu dute. Iraultzarik ez da egon, gauza asko proposamen edo ideia gisa geratu dira eta iritzi

desberdinak sortu dira esperientzia horren inguruan, batzuk onak eta beste batzuk ez hainbeste. Hala ere, ikasgaiak denetatik atera daitezkeela dio herri-jakinduriak, eta kasu honetan ere hala izan da.

K2K enpresatik, Oscar Gartziak egon zen Oñatiko udal langileekin

jarduten. Berak azaltzen digunez, bi zati zituen prozesuak: lehenengo Oñatiko udal langile guztiekin zen, eta bigarrena, ordezkari politikoekin. Lehenengo zatian, langile guztiak lan-taldetan banatu ziren, eta bigarrean, ordezkari politikoei lan-talde horietan integratu behar ziren. Bigarren zatia oraindik ez dute egin: "Hori garatzen hasi behar ginenean, udalaren lan-karga oso handia zen, atez ateko sistema ezartzen zebiltzako, eta hor utzi ginen".

Helburua, eraginkortasuna

K2K enpresa ez da aholkularitza bat eta ez dute hitz hori gustuko euren burua definitzeko: "Aholkularitza gehienek proiektu bat aztertu eta bezeroari txosten bat ematen diote, bezeroak garatu dezan dena. Guk, berriz, bezeroekin antolakuntza-aldaketa bat lideratzen dugu".

Oñatiko Udalaren kasua berezia da K2K enpresak, ordura arte, erakunde pribatuekin egin zuela lan; lehenengo aldia zuten, hortaz, sektore publikoko erakunde batekin lanean. Orokorrean ere, oso ezohikoa da administrazio publikoko erakunde bat horrelako aldaketa prozesu baten sartzea.

Oscar Gartziak kontatzen digu nola hasi ziren lanean: "Lehenengo udalbatzarekin hitz egin genuen eta erabateko adostasuna eskatu genien. Denek baietz esan ziguten, gurekin lan egin nahi zutela. Hori eta gero, Udaleko langile guztiekin batzar orokorra egin genuen, proiektuarekin aurrera egin nahi zuten bozkatu zuten eta %80 ingu-

ruk alde bozkatu zuten".

Helburu aldetik, Oñatiko Udalak hauek transmititu zizkion Gartziari, bere esanetan: "Eragin-korragoak izan gura zuten, garrantasun handiagoa gura zuten eta elkarren artean gertutasun handiagoa". Hori lortzea zen helburua, baina laster azaleratu ziren zailtasunak: "Udaletan zaila izaten da gauzak aldatzea, departamentutan banatzen delako lana eta bakoitzak bere sailera tiratzen duelako".

Gartziak dioenez, euren printzipio batzuekin egiten dute lan, eta bezero bakoitzaren, erakunde bakoitzaren ezaugarrietara moldatzen dituzte. "Ez daude bi erakunde berdin, eta gu proiektu bakoitzera egokitzen gara". Kasu honetan, lantaldeak sortu zituzten eta helburu komunetarantz abiatu ziren. Lantalde horietan, sail, ardura edo gai desberdinetako jendea nahasten zen. Lan egiteko modu hori ez zen berria Oñatiko Udalean, aspalditik zitzutzelako mahai multidiziplinarrak.

Udaletxean sarrera bakarra

K2K-ko langileak hitz onak ditu Oñatiko udal langileendako: "Aurreiritzi asko daude administrazio publikoko langileen gainean, baina Oñatiko udal langileak bezeroarekin, hau da, herritararekin zeharo implikatuta zeuden, eta hori ez da hain nabarmena izaten erakunde industrialetan". Jarrera ona zegoen arren, administrazio publikoaren egiturak eta lan-moldeak berezko dituen mugak ere agertu ziren: "Burokraziak eta adminis-

HAUR ZERBITZUA

aidien

Zure beharretara egokitzen gara



Egunez
07:00-22:00
10 € ordua



Gauetz
22:00-07:00
12 € ordua



Zapatuetan eta Jaiegunetan
07:00-22:00
14 € ordua



Irteerak
07:00-22:00
5 € /30min.



24 ordu!

JARRAI GAITZAZU



Garbiñe 649 08 35 42
Jone 606 66 89 94
aidienhaurzerbitzua@gmail.com

trazio-arauek zaildu egiten dute lan egiteko modua aldatzea: adibidez, lanpostu bakoitzak bere balorazio ekonomikoa du eta, berari ez dagokion zerbait egiten badu, teoriaran langile horri beste soldata bat dagokio. Esan nien arauak ezin genituela aldatu, baina guk proposatutako estiloan lan egin gura bazuten, ikusiko genuela elkarrekin nola gainditu muga horiek".

Adibide batzuk ipintzen ditu Gartzia: "Herritarren eskaerei erantzun behar zaienean, administrazioaren burokraziak dio hori administratzaile batengana joan behar dela, gero horrek teknikariari pasatu behar diola eta horrek, batzordeari; beraz, erantzuna eman orduko luze jo du. Proposatutako nien ze beste modura tratatu zitekeen hori, legeak ahalbidetzen zuelako. Hala, erabakiak hartzen ez zituzten pertsonak lantaldea koordinatzeko edo teknikariari lana banatzeko gai izan ziren".

Udaletzeko sarrera ere aldatu zuten. Orain gutxira arte, Oñatiko udaletxeak bi sarrera zituen, bat arkupetan eta beste bat atzean, eta sarrera bakarra utzi zuten, aurrealdekoa: "Jende-ilarak sortzen badira, langile gehiago dago atxanditzea eta edozeinek atxanditu dezake jendea. Egia da ilarak ez direla askotan sortzen Oñatiko udaletxean, baina gerta zitekeen". Egin zuten beste gauza bat "lehenengo gauza", Gartzia esanetan: sarreratik fitxatzeko makina kentzea izan zen: "Azken baten, ez dugulako denboraren arabera lan egiten, helburuen eta zereginen arabera baizik", esaten du Gartzia.

Pertsonak dira ardatza

Baina udaletxe baterako sarbidea aldatzea gauza bat da, eta oso bestelako bat barruko antolakuntza aldatzea. Ahalegin horrek bide aldapatsuagoa egin du. Helburuen edo zereginen arabera eginda zeu-

den lantaldeak, eta lantalde bakoitzeko liderrak beste talde baten elkartu ziren, alkatea ere bertan zegoela. Erabaki orokorrak liderren talde horrek hartzen zituen. "Adibidez, aurrekontuak lantalde bakoitzak egiten zituen, gero gobernu taldeari egiten zion proposamena, eta erabakiak batzarrean onartzen ziren. Gobernu taldeak lerro orokorrak markatzen zituen, baina lantalde bakoitzak garatzen zituen lerro horiek, eta pertsona guztiak konprometitzen ziren, batzar orokorrean".

Izan ere, Saratxagak ezaguturazi duen NER filosofiaren edo estiloaren barruan, ardatza pertsonak eta lantaldeak dira; talde-lana indartzea: "Egunen baten taldeko norbait ondo ez badago, taldeko besteek hartuko dute haren zeregina; taldeak bere burua eta bere lana erregulatzen du".

Oscar Gartzia dioenez, NER da Koldo Saratxagak urte askoan zuzendutako Irizar kooperatibaren duten lan-filosofia: "Urte asko daroate eta garatzen joan da, baina oso filosofia antzekoa da". Horregatik, euren iritziz, filosofia horrek berdin-berdin gidatu dezake enpresa pribatu baten, kooperatiba baten, administrazio publiko baten, irabazi asmorik gabeko elkarte baten eta beste edozeinen lan-modua. "Talde-lana, inplikazioa, eskuzabaltasuna, ardura... horiek lanerako eta bizitzarako printzipioak dira", esaten du Gartzia.

K2K-k esaten du "eztabaida animatua" sortzen dela NER filosofia erakunde publikoetan eta gobernu-organoeetan enpresa pribatu baten bezala aplikatzeko aukerak aztertzen direnean. Enpresaren ustez, ordea, NERren oinarrian, hau da, harremanen oinarrian "pertsonak egotea da garrantzitsuena, erakundeak edo sektoreak hartzen duen forma juridikoaren gainetik; eta, baldintza

hori betetzen denean, ez dugu oztoporik ikusten".

Askotariko iritziak daude

K2K-ko ordezkariak aipatzen dituzten askotariko iritziak sortu dira ere Oñatiko udal langileen artean.

Iritzi batzuen arabera, Oñatiko Udalean planteatu ziren ideiak "onak" ziren, "baina ez zeuden administrazio publiko baterako moldatuta". Muga batzuk igarri zituzten: "Ardurak banatzen ziren, baina, legearen arabera, ardurak eta erabakiak dagokionak onartu behar ditu, eta, batzuetan, onartu behar zuen pertsona ez zegoen ardura edo erabaki hori hartu zen lantalde berean".

Alde onak ere nabarmen dituzte: "Helburua zerbait sortzea baldin bada, edo beste mota bateko erakunde baten lan egin nahi bada, kooperatiba baten, adibidez, ideia horiek ezartzea errazagoa da".

Prozesu hartan sortu ziren lantalde batzuek aurrera jarraitzen dute eta oraindik batzartzen dira. Lantalde horietan, sail askotarikoak diren baina proiektu edo ardura komunak dituzten pertsonak batzen dira.

Irizarreko harreman-ereduaren aita

Koldo Saratxaga Sopuertan (Bizkaia) jaio zen 1947an; Ingeniari Teknikoa da. Kooperatibismoan egin duen etaparengatik da ezagun: 1984az geroztik, Etorki S. Coop.-en, Euskadiko Kutxan, krisian zeuden kooperatibetan eta Urola S. Coop.-en jardun zuen. 1991tik 2005era Irizar S. Coop.-eko arduraduna izan zen, Irizar Proiektuko Koordinatzaile Nagusia eta Irizar Groupeko presidentea.



Koldo Saratxaga. | GOIENA

Kudeaketa-eredu berrien gaineko bere tesiak *Harreman-estilo berri bat* (2007) liburuan laburbildu zituen. Bertan dioenez, "enpresak pertsonetan oinarrituz antolatuta behar dira, haien sormenean, haien parte-hartzean eta inplikazioan funtsatuz". K2K sortu zuen gerora, estilo berri hori enpresekin lantzeko.

Beste udal langile batek esaten du "lan-zama asko handitu" zitzaiela prozesu hartan zehar, eta orduko dinamika askok ez dutela aurrera egin. Bestalde, langileek ezagutzen ez zituzten lanpostuak edo ardurak "gertutik" ezagutu ahal izan dituzte, eta hori "aberasgarria" izan dela gaineratzen du.

Beste alde positibo batzuk izan dira langileek euren ekarpen eta iritziak lantzeko eta agertzeko aukera izan zutela.

Hasierako asmo on guztiak egia bihurtu ez badira ere, eta zailtasunak zailtasun, etorkizunerako ikasgaiak utzi ditu esperientzia horrek, bi aldeendako.

IBAI-ARTEK AURKEZTEN DU...

AZARO MUSIKALA



Noiz: Azaroak 9, 16, 23, 30

Ordua: 18:00 - 20:00

Tokia: Arrasateko kaleetan zehar

"Pertsonak eta lantaldeak dira oinarria"

NER

Koldo Saratxagak teorizatutako Harreman-Estilo Berriaren gaztelaniazko siglak dira (Nuevo Estilo de Relaciones). Saratxagak sortutako K2K enpresak estilo hori ezartzen laguntzen die hala nahi duten enpresei.

K2K ENPRESA

Gaur egun, zazpi lagunek egiten dute lan K2K enpresan. Saratxaga da euren liderra eta hainbat enpresa-proiektu lantzen dituzte. Helburua da antolakuntza eta lan egiteko modua aldatzea, kudeaketa-eredu guztiz berria ezartzeko. Euren esanetan, "pertsonetan oinarritutako harreman-estilo berri bat" da eredu horren funtsa.

NER GROUP

Harreman-Estilo Berriaren filosofiarekin lan egiten duten enpresa eta taldeek osatzen dute Ner Group delakoa. 9 kooperatiba, 11 SL, SA bat eta irabazi asmorik gabeko erakunde bat dira. Tamaina aldetik, 1.520 lagunetik gora batzen dira Ner Groupen.

ARDURA KONPARTITUA


Ner filosofiaren barruan, edozein enpresa-proiekturen ardura konpartitua dela kontsideratzen da. Besteak beste, lantaldetan lan egitea proposatzen dute, eta lantalde bakoitzak bere burua gestionatu behar du; erabakiak elkarrekin hartzen dira, lantaldetan edo enpresako partaide guztien batzar orokorrean.

Hori ezartzeak aldaketa handiak ekartzen dizkio enpresa edo erakundeari, eta debatea, iritzi desberdinak... sortzen dira.

NER ez dute ezartzen oso erakunde handietan, edo multinazionalen, erabakiak bertan hartzen diren enpresetan bakarrik.

PROIEKTU KOMUNA

Saratxagaren hitzak dira: "Erakunde bakoitza osatzen duten pertsonen proiektu komun bat da. Gure lan guztia autogestionatutako taldeen lanaren fruitua da. Komunikazioak, askatasunak eta ardurak kanpoan uzten dute kontrola. Akatsak ikasteko aukerak dira".



Egubakoitzean, presoeri babesa erakusteko, arrasatear askok elkarretaratzea egin zuten plazan. | IMANOL SORIANO

"Presoei zigorra jartzeaz gain, mendeku bila dabilta"

- ▶ Hala dio Txus Goikoetxea presoaren bikotekideak
- ▶ Arrasatearrak 29 egun beteko ditu gaur gose greban

IMANOL GALLEGU | ARRASATE

"Estatu espainola estatu mendekaria da eta euren bizitza kartzela sistemaren menpe dago", esan digu Onintza Lopez de Munain, Txus Goikoetxea Arrasateko presoaren bikoteak. Aste bukaeran Sevilla II espetxean egon da eta Goikoetxea desitxuratu ikusi duen arren "tinko jarraitzeko gogoekin" aurkitu du. Gaur, hain zuzen, 29 egun beteko ditu gose greban.

Lopez de Munainek argi dauka: "Espainiar estatua mendekaria da eta presoekin hori egiten ari da". Tratu hau gainera ez da Sevilla II espetxera mugatzen, Lopez de Munianek zehaztu moduan, araudiaren kontra doazen neurriak hartzen ari dira: "Presoak isolatuta dauzkate, ezin dute aktibitate egin, kartzelan miaketak muturreraino eramaten dituzte...". Hala ere, testuinguru gris horretan Lopez de Munianek argi puntu bat aipatu du, "Txus eta gainerako presoak liluratua daude kalean izaten ari diren babesarekin".

Mozioak aurrera

Arrasateko Udalak, bestalde, ezohiko plenoa egin zuen bari-kuan. Bilduk eta EAJk aurkeztutako presoaren aldeko mozioa aztertu eta bozkatu zuten bertan eta aho batez egin zuen aurrera. PSE-EE ez zen osoko bilkurara

joan. Goizean, prentsa ohar bidez, "Udalak Fagorreko langileen aurretik presoak lehenetsi izana" salatu zuen. Maider Morras Bilduko bozeramaileak PSE-EEren hitza gezurtatu eta, "bi gai ezberdin" direla azpimarratu zuen bari-kuan. Horren ostean, azalpen bat egin gura izan zuen "Udala oso arduratua dago Fagorren auziarekin eta langile nahiz arduradunekin etengabeko kontaktua dauka", esan zuen bilkuran.

Osoko bilkurak puntu bakarra izan zuen, eta bertan, Sevilla II espetxean gose greban dauden presoak izan zituzten bereziki gogoan, horien artean Txus Goikoetxea arrasatearra.

Udalbatzak bere egin zituen Etxerat elkartearen hitzak eta euskal presoek eta euren senideek pairatzen dituzten "eskubideen urraketak" salatu zituen. Bilku-

ran irakurri zen mozioaren arabera: "Espetxe-araugian isolamendua oso egoera zehaztutarako gordetzen den neurri bat den arren, euskal presoeri bizi-erregimen gisa aplikatzen zaie". Mozio berean, "jazarpenak, dispertsioa isolamendua, erasoak..." ere salatu gura izan zituzten. Mozioan irakur zitekeen moduan, Udala "giza eskubideen alde" azaldu zen, eta aho batez EAJk eta Bilduk babestutako mozioak aurrera egin zuen. Aralar taldeko zinegotzi, Joxe Etxeberriak, ezin izan zuen bilkuran parte hartu, egunotan kanpoan delako, arrazoi pertsonalengatik.

Osoko bilkura egiten ari ziren une berean, dozenaka arrasatearrek dispertsioaren kontrako elkarretaratzea egin zuten Herriko Plazan *Bizi baldintza duinen alde* lelopean.

Mobilizazio gehiago

Hurrengo egunetarako ekintza gehiago deitu dituzte. Egubakoitzean, 19:30ean manifestazioa egingo dute Arrasaten preso eta senideei babesa erakusteko. Domekarako, aldiz, manifestazioa deitu dute Donostian, 12:30ean, *Sevilla II SOS: Presoak gose greban dagozkien eskubideen alde* lelopean. Mobilizazioaren sustatzaileek "Gipuzkoako jendarte osoari" egindako gonbita bat dela azaldu dute.

DATUA

29

EGUN GOSE GREBAN

Txus Goikoetxea asko argaldu bada ere, bikotearen esanetan "beti oso osasuna izan du eta psikologikoki gogor jarraitzen du".

Herritarren laguntzarekin hurrengo urteko aurrekontuen gida-lerro nagusiak finkatzen

I.G. | OÑATI

Oñatiko udaletxeko arkupeetan 40 bat pertsona batu ziren zapa-tuan hurrengo urteko aurrekontuak lantzeko tailerlean. Gaiak mahaika antolatu ostean, parte hartzaileak Oñatik dituen beharrak aztertzeraz pasatu ziren. Ordu bata pasatxo bukatu zuten batzarra eta Mikel Biain alkateak adierazi moduan, "gida-lerroez gainera, hainbat proposamen ere" irten ziren bertatik. "Ez dugu sorpresa handirik jaso,

proposamen asko guk programan aurkeztutako ideiak ziren-eta", hala ere, puntu horiek, "aintzat" hartuko dituztela azaldu zigen Biainek.

Lau arlo nagusi

Taldeak antolatzerako orduan lau arlotan banatu zituzten: kultura, pertsona, ama lurra eta askatasuna. Hortik ateratako proposamenak gainera arkupeetan utzi zituzten herritarrei berri emateko.



Gaiak mahaika antolatu zituzten. | JOSETXO ARANTZABAL



IMANOL SORIANO

Aurkezpen arrakastatsua

40 bat pertsona batu ziren Bergarako gaztetxean Jabier Lertxundiren hitzak entzuteko. Bertan, aholkulari bizkaitarrak, *Algunes ideas para superar esta maldita crisis* eta *La tecnocracia en MCC, el Opus Dei y el PNV* liburuak aurkeztu zituen. Azken honek gainera, ikusmira berezia sortu zuen eta errebisio baten ostean berriro argitaratuko dute.



IMANOL BELOKI

Azaroak 25eko lehen agerraldia

Elgetarrek atzo eguerdi partean egin zuten emakumeen aurkako indarkeriaren kontrako elkarretaratzea. Udaletxeko arkupeetan hainbat udal ordezkariak gain, herritar ugari ere batu ziren indarkeri mota hori gaitzesteko. Agerraldi isila izan zen, eta amaieran txaloak ere entzun ziren.



Arizmendiko ikasleak roboten proiektuak lantzen. | ANE ETXEBERRIA

'First Lego League'-eko barne kanporaketa hasi dute Arizmendiko ikasleek

Asteon erabakiko dute zein taldek parte hartuko duten EAE mailako txapelketan

MIREIA BIKUÑA | ARRASATE

Arizmendi Ikastolako DBHko 4. mailako Teknologia ikasgaia duten ikasleek hasi dute *First Lego League* txapelketako bidea. Egubakoitzean, barne txapelketa hasi zuten 82 ikaslek, bederatzitaldetan banatuta. Euren artean lehiatuko dira, EAE mailako txapelketan nortzuk parte hartuko duten zehazteko. Asteon erabakiko dute zein hiru taldek parte hartuko duten Zamudioko txapelketan, abenduaren 14an.

Hiru proiektu

Aurtengo gaia Nature's Fury da, eta naturak eragiten dituen hondamendi naturalei irtenbideak aurkitu beharko dizkiete gazteek. Arizmendiko ikasleek hiru proiektu egin behar izan dituzte. "Natura hondamendi

bat aukeratu -tsunamia, uholdeak, sumendiak...-, aztertu eta horiendako irtenbide berritzaileak topatu beharko dute. Hori lan zientifikoa izango litzake. Proiektu teknikoan Legoko piezekin robot bat egin beharko dute; eta hirugarrenean robota programatu eta hainbat ariketa eginarazi beharko diote", esan zigun Iñaki Agirrebengoa irakasleak. Hiru atal horiek aintzat hartuta, aukeratuko dituzten hiru taldeak.

Balio ezberdinak

Laugarrenez dihardute Arizmendikoek First Lego League txapelketan. Berrikuntza, sormena eta ekintzailetasuna bul-tzatzeaz gain, beste hainbat balio indartzeko balio die ikasleei; besteak beste, elkarlana, taldelana, ikerketa...

Hilaren 28an pentsioen proiektu berriaren kontrako elkarretaratzeak egingo dituzte herri guztietan

Gipuzkoako erretiratuek elkarretaratzea egingo dute hilaren 28an, herri guztietako udaletxe aurrealdean, 19:00etan. Horieta guztietan, *Pentsioak ukitzen dituenak ez dauka nire botoa delako* leloa erabiliko dute, eta gogor salatuko dute Espainiako Gobernuak erretiratuen pentsioekin egin gura duena. Herrietako erretiratuen elkarteetako ordezkariak protesta ekitaldietan parte hartzeko dei egin diete herritar guztiei: erretiratuei, erretiratuta ez daudenei eta gazteei.

Arrasateko Ekozenterra martxan ipintzeko 440.000 euroko laguntza emango du Foru Aldundiak

M.B. | ARRASATE

Egubakoitzean sinatu zuten Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Emaus Gizarte Fundazioak hitzarmena, eta akordio horri esker Aldundiak proiektu horretarako 440.000 euro emango ditu. Iñaki Errazkin, Ingurumeneko eta Lurralde Anto-

laketako diputatuak esan zuenez, "ekozenterrak ekimen eredu-garriak dira: berrerabilpena sustatzeaz gain, jendartea kontzientziazten dute". Arrasateko eko-center berria ASAM pabilioian egongo da eta datorren urte erdialderako abian jartzea espero da.

%75 berrerabili

Emaus Gizarte Fundazioak Irungo eta Arrasateko ekozenterrak kudeatzen ditu. Haren izenean, Javier Pradini zuzendariak adierazi zuen hondakinak kudeatzeko Europak ezarritako hierarkian oinarritutako ekimena dela haie-na, eta bildutako hondakin guztien %75 berrerabili egiten direla gero. "Sistema hau Gipuzkoa osora zabalduko bagenu, 180 lanpostu sortuko genituzke" Azpimarratu zuen Pradinik, akordioa sinatzeko ekitaldian.

Mirari Korta | Urkoa elkarteko langilea

"Indarrak batzeko sortu da Lotune, bailarako sei elkarteren artean"

Caritaseko, Nagusilaneko, Gurutze Gorriko, Urkoako, Aita Menniko eta San Juan de Dioseko boluntario taldeek osatzen dute Lotune elkarte berria

IRATI GOITIA | ARRASATE

Debagoiengan boluntariotzan dabilzan sei elkarte batu eta Lotune sortu dute. Elkartea zertarako sortu duten eta boluntariotzaren egoera bailaran zelakoa den jakiteko, Urkoa elkarteko Mirari Kortarekin izan gara.

Zer dela-eta edo zertarako sortu duzue Lotune?

Orain dela bi urte hasi ginen ideia hori lantzen. Ikusi genuen nor bere aldetik egiten zuela lan, baina ez genuela gure arteko loturarik, koordinaziorik edo indarrak batzeko aukerarik. Hori lortzeko, elkarte komun bat sortzea modu ona iruditu zitzaigun.

Sei elkarte zarete batu zarenak; nolako elkarteak dira?

Debagoiengan lan egiten dugunak gara. Zehazki, bi taldek Arrasaten jarduten dute: Aita Menni ospitalean eta San Juan de Diosen. Beste laurek bailaran dute eragina. Caritas, Nagusilan, Gurutze Gorria eta Urkoa dira. Arlo sozialean lan egiten duten elkarteak dira guztiak, baina nor bere eremuan.

Zein onura ekar ditzake zuentzako Lotune bezalako elkarlan bat sortzeak?

Esan bezala, gure asmoa indarrak batzea da. Horretaz gain, uste dugu boluntarioen lana ezagutzera ematea errazagoa izango dela batuta arituta banaka ibilita baino. Esaterako, jendearentzako errazagoa izan daiteke elkarte baten bitartez ezagutzea bestea zertan dabilen.

Zer-nolako ekintzak aurreikusten dituzue Lotune bezala?

Gure ekintzak gure lana ezagutzera ematera bideratuko dira. Adibidez, orain dela aste batzuk eskuorriak banatzen ibili ginen. Lotune bera ere ezagutzera eman nahi dugu.

Zein da Debagoiengan boluntariotzaren egoera?

Nik uste dut bilakaera bat izan dela. Orain dela urte batzuk boluntariotzaren maila handia zen arlo guztietan. Gero, ordea, behera-



Mirari Korta, Urkoa elkarteko langilea. | I.G.

"Boluntarioen lana ezagutzera ematea ere bada lortu nahi duguna"

"Duela urte batzuk boluntariotzak beherakada nabaria izan zuen"

kada nahiko garrantzitsua izan zuen eta uste dut egun hor mantentzen dela. Badaude, baina, adin tarte batzuk zeinetan gora egin duen. Ez ditut bailarako datuak, baina bai iaz erkidego mailan egin ziren ikerketa bate-nak. Horren arabera, boluntarioaren profila 50 urtetik gorako emakumezkoarena da. Noski, badaude beste profil batzuk, baina hori ikusten da garrantzitsu bezala. Bestalde, arlo sozialean aritzen direnez gain, badira beste arlo batzuetan jarduten dutenak ere: kirolean, kulturari...

Boluntarioaren lanak esfortzua eskatzen du, erraza da?

Egia da une zehatz baten dirua emateak baino konpromiso handiagoa eskatzen duela. Lanerako hor egongo zaren konpromisoa hartzen duzu, egun txarra edo ona izan. Ez diot, baina, dirua emateari garrantzirik kendu nahi; izan ere, hori ere oso garrantzitsua da.

Zer-nolako esperientzia da boluntario izatea?


Oso aberasgarria. Boluntarioek gehien esaten dutena da ematen dutena baino gehiago jasotzen dutela. Badaude boluntario lanak egitera joaten zaren egun txarrak, eta, amaitzean, hobeto sentitzen zara, eginikoaz gustura.

Boluntario lanak egin nahi dituenak zer egin behar du?

Boluntario lanak egiteko arlo ezberdinak daude eta bakoitzak daki zer duen gustukoena. Arlo sozialean aritu nahi duena gurekin jar daiteke harremanetan. Horretarako, bloga dugu: www.lotunedebagoiena.blogspot.com.es. Bertan azaltzen da Lotune osatzen dugun elkarteon gaineko informazioa. Bestalde, elkarte dagoen udalean edo gazte zerbitzuan ere eskura daiteke.

«1937ko martxoan da Durangon. Mirentxu aspaldian isilik dabil. Ez du hitz bakar bat ere egin, amama hil eta egun berean aita frontera joan zitzaionetik[...].»

Gerra neskato baten begitik
ETXEPARE SARIA 2013
-6 urtetik aurrera-



PAMIELA

www.pamiela.com

Pentsioen erreformaren aurka kalera irtengo dira erretiratuak berriro ere

- ▶ Eguenerako, hilak 28, deitu ditu AGIJUPENSEk
- ▶ "Pentsioak KPlaren arabera eguneratu behar dira"

LEIRE KORTABARRIA | ARRASATE
Irailean, lehenengo aldiz, erretiratuak kalera irten ziren protesta egitera, eta datorren eguenerako, hilak 28, 19:00etan, norberaren udaletxe aurrean kale-bilkura egitera deitu ditu Gipuzkoako Erretiratu eta Pentsiodunen Elkarteak (AGIJUPENS). Pentsioen legearen erreformaren aurka irtengo dira, aurreko moduan, *Pentsioak ukitzen dituenak ez du nire botoa izango* leloarekin, eta ohartarazten dute proiektuaren alde bozkatzeko duten

eta abstenitzen diren alderdiei ez dietela bozkatzeko. Gainera, hauteskunde guztietan gogoratuko dutela esaten dute.

"Ez du zentzu etikorik"

Pentsioen erreforma-proiektuaren "guztiz aurka" daude. Proiektu horrek proposatzen dituen Urteko Errebalorizazio Faktorearen eta Belaunaldien Arteko Ekitate Faktorearen kontra daude, eta pentsioak eguneratzeko onartzen duten "indize bakarra" KPIa dela esaten dute.

Belaunaldien Arteko Ekitate Faktoreak "zentzu etikorik ez" duela diote eta Konstituzioaren 50. artikulua aurka doala, zahartzaroan herritarrei gutxieneko bizi-baliabideak bermatzea botere publikoen betebeharra dela esaten duena.

Zergak, pentsioak ordaintzeko

Deialdi-testuan, honako galderak botatzen dituzte AGIJUPENSEko ordezkariak: "Zergatik ez dira egiten publiko desoreka sistemen aldekoa zen garaiko kontuak?"



Herri askotan kale-bilkura egin zuten erretiratuak irailean. | LARRAITZ ZEBERIO

Zergatik izan behar du jasangarria Pentsioen Sistemak? Hala al da, bada, sistema judiziala, hezkuntzarena, osasunarena, defentsarena edo Errege-etxea-

rena? Zergatik ez da konpontzen desoreka hori sarrerak handituta (kotizazioak areagotuta) edo Estatuaren Aurrekontuak erabilita (zergak)?"

Ander Errastiren liburua Taylor&Francis argitaletxe erreferenteak atera du

Errastiren laugarren enpresa-liburua da eta oso kritika onak jaso ditu

L.K. | BERGARA

Bergaran bizi eta Natran, Oñatin lan egiten duen Ander Errasti elgoibartarraren Global Production Networks: Operations design and management liburu espezializatua AEBetako Taylor&Francis argitaletxeak atera du hainbat herrialdetan, eta dagoeneko bigarren edizioa du. Errastiren laugarren gida-liburua da. Enpresa-kudeaketan erreferentea da Taylor&Francis argitaletxea, eta baldintza batzuk bete behar dira liburuarek argitaratzeko; bes-

teak beste, aurrez argitaratuta egon behar da eta 20 enpresa-zuzendarik erreferentzia onak eman behar dituzte liburuaren gainean, eta egileak memoria tekniko bat aurkeztu behar du. Taylor&Francisen argitaratzen duen Hego Euskal Herriko lehen egilea da Errasti, eta Espainian ere ez du beste inork hori egin.

Liburuaren koautore izan dira Miguel Mari Egaña oñatiarra eta Kepa Mendibil eta Jose Alberto Eguren bergararrak, beste batzuen artean.



Ander Errasti. | L.K.

Laboral Kutxak 85,8 milioi garbi kontsolidatu irabazi ditu

Parametro nagusietan emaitza onak izan ditu

L.K. | ARRASATE

Laboral Kutxak 85,8 milioi euroko irabazi garbi kontsolidatua lortu du urteko hirugarren hiruhilekoan. Zergen ondorengo emaitza da hori; zergen aurretik, 97,5 milioi ziren. Laboral Kutxak EFE agentziari esan zionez, aurtengo emaitzak ezin dira konparatu Ipar Kutxak eta Euskadiko Kutxak bat egin aurretiko emaitzekin.

Parametro nagusien datuak ontzat eman dituzte arduradunek. Hala, entitatearen kaudimen-ratioa % 11,13 da, Europak urtarrila ezkerer eskatzen duen

gutxieneko %9 nasai gaintuz.

Likideziari dagokionez, gordailuen ratioa %92,1ekoa da emandako kredituekiko; sektoreko entitateen batez besteko ratioa %71,9koa zen abuztuan.

Morositate edo berankortasunari dagokionez ere, sektorearen batez bestekoaren (%12,23) azpitik dago, Laboral Kutxaren kasuan: %8,67.

300 milioi euroko interes-marjina lortu du. Horri komisio eta eragiketa finantzarioengatik sartu duen dirua gehituta, 395 milioiko emaitza lortu du.

Gipuzkoako udalek 231 lanpostu sortuko dituzte Aldundiaren eskutik

Populazioaren arabera banatuko dira laguntzak

L.K. | ARRASATE

Gipuzkoako udalek 231 lanpostu eskainiko dituzte datorren urtean, Diputatuen Kontseiluak martitzenean onartu dituen dirulaguntza dekretu batzuei esker.

Lehenengo dekretuak 1.732.000 euroko dotazioa dauka, udalek langabeak kontratatze-ko aurten martxan jarritako programak datorren urtean jarrai dezan. Aurten, 216 lagun kontratatuko dituzte, eta datorren urtean beste 231 kontratatzea aurreikusten da, gutxienez bost hilabetez, udalek emandako

lanetarako. Datorren urtean, biztanle-kopuruaren arabera banatuko dituzte 200 lanpostu, eta beste 31ak, herrien langabezia-tasen arabera.

Bigarren dekretuak 1.417.000 euro ditu, eta mankomunitate edo garapen agentzien proiektu estrategikoak finantzatzeko da, bereziki tokiko enplegua hobetzeko: langabeen prestakuntza, eta abar.

Hirugarren dirulaguntza bat udalei zuzendutakoa da, inbertsioak egiteko. Dekretu horren bidez, 6 milioi euro banatuko dira.

Errenta aitortpenerako teknikariak behar ditu Foru Ogasunak

Errenta aitortpen kanpainan aldi baterako langileak kontratatze lan-poltsa osatuko du Foru Aldundiak, eta instantziak aurkezteko epea zabalik dago abenduaren 5era arte. Arrasateko, Eskoriatzako eta Aretxabaletako udal-tan eta Mankomunitatean ere aurkez daitezke eskaerak; posta bulegoetan eta erregistro elektronikokoan ere bai. Hirugarren hizkuntza-profila duten erdi-mailako teknikariak behar ditu Foru Ogasunak.

Deialdiaren xehetasunak, argibideak eta emaitzak www.gfaegoitza.net webgunean agertuko dira.

Eraikuntzako zuzeneko 8.000 lanpostu suntsitu dira krisi hasieratik

Krisia hasi zenetik, zuzeneko 8.000 lanpostu baino gehiago kendu dira eraikuntza sektorean Gipuzkoan, Ascongi-Adegik ohartarazi duenez. 2007 bukaeratik Euskadin %61 jaitsi da ekoizpena; Gipuzkoan, lizitazio ofiziala minimoetan dago eta urtariletik abuztura %67 jaitsi da. Bestalde, iaz, merkatu libreko etxebizitzaren eraikuntza %61 jaitsi zen, eta babestutako etxebizitzarena, %55. Horregatik guztiagatik, Ascongi-Adegik eskatzen du eraikuntza sektorea "kontuan har dezaten" suspertze ekonomiko eta industrial plangintzetan; inbertsio publikoa sustatzea; etxebizitza erosteko finantzaziorri laguntzea; eta Lurzoruaren Euskal Legea berritzea.

Datorren lan-egutegiak bederatzi jaiegun trukaezin izango ditu

Datorren urteko lan-egutegiak Espainiako erkidego guztien-dako bederatzi jaiegun dauzka: urtarrilak 1 (Urte Berri eguna; eguaztena), apirilak 18 (Egubakoitz Santua), maiatzak 1 (Lanaren Eguna; eguna), abuztuak 15 (Ama Birjinaren Jasokunde; egubakoitza), azaroak 1 (Domu Santu; zapatua), abenduak 6 (Espainiako Konstituzioaren eguna; zapatua), abenduak 8 (Sortzez Garbiaren eguna; astelehena) eta abenduak 25 (Eguberri-eguna; eguna). Bederatzigarren jaieguna urtarriaren 6a da (astelehena). Erkidego batek ere ez du agertu jaiegun hori beste batekin aldatzeko asmoa.

Jon Emaldi | Laboral Kutxako Kalitate eta Gestio Ereduko zuzendaria

"Aurten, 230 enpresa sortzen lagundu izango du Gaztempresak"

- ▶ 230 enpresa txiki berri horiekin, 440 lanpostu inguru sortuko dira urte bukaerarako
- ▶ Jon Emaldi arduradunak dio "pozik" daudela datuarekin, lehen baino txikiagoa izan arren

LEIRE KORTABARRIA | ARRASATE

Laboral Kutxako Kalitate eta Gestio Ereduko zuzendari Jon Emaldik dioenez, Gaztempresarekin enpresa txikiak sortzen laguntzen dute; bakoitzak ia bi lanpostu sortzen ditu.

Urte bukaerarako, 440 lanpostu sortu nahi zenuten Gaztempresa Fundazioak eta Eusko Jaurlaritzak. Zertan da hori?

Helburua betetzetik hurbil gaude eta, urte amaierarako, 230 enpresa berri sortu izango ditugula uste dugu. Enpresa txiki horietako bakoitzak, batez beste, 1,8 lanpostu sortuko ditu; beraz, 440 lanpostu horietatik oso gertu ibiliko gara.

Ze motatako enpresak sortu dira orain arte, aurten?

Mikroenpresak dira, oso txikiak, zerbitzuekin eta merkataritzarekin lotuta: tabernak eta halakoak, 37 (%28); ile-apaindegiak dira beste asko, 18 (%14); osasunarekin lotutakoak, 13 (%10), eta formazioarekin, beste 11 (%8). Sortu diren 70 komertzioetatik 33 elikadurakoak dira (%47), eta arropa-dendak, 12 (%17). Pixka bat denetarik dago.

Lehen handiagoak ziren Gaztempresaren eskutik sortzen ziren enpresak?


Gure kasuan, beti horrelakoak izan dira. Gure ekintzaileak nahiko profil berezikoak dira: gehienek ez dituzte unibertitateko ikasketak egin; egin dituztenak ia %27 bakarrik dira. Martxan jarri nahi dituzten negozioak ere beti enpresa txikiak izan dira. Gertatu dena da krisiarekin ikusi dugula galga, geldialdia sartu dela. Guk, orain dela hiru urte, nahikotxo enpresa gehiago sortzen genituen, 300 enpresatik hurbil, eta aurten, berriz, 230 sortuko ditugu; eta nahiko gustura gaude horrekin ere.

Enplegu Saitetik ze kolaborazio duzue?

Gaztempresa Fundazioko partaideak Mondragon Korporazioa eta Laboral Kutxa dira, baina fundazioaren kostu finkoen ia erdiak Eusko Jaurlaritzak finantzatzen ditu; ez maileguak, horiek Laboral Kutxatik datozelako. Eusko Jaurlaritzak, gero, Europako fondoetatik lortzen du horren zati bat.

Ze baldintza bete behar ditu ekintzaile batek Gaztempresaren laguntza jasotzeko?

Hasieran, funtsezkoa zen gazteentzako enpresa bat izatea;



Jon Emaldi, Laboral Kutxaren egoitza nagusian. | LEIRE KORTABARRIA

baina hori gero eta gutxiago gertatzen dabilenez, orain, gazteendako enpresak izan beharrean, enpresa gazteak laguntzen ditugu, merkaturan urte asko ez daroatenak. Ekintzailearen adinari ez diogu kasu handirik egiten, gure ekintzaileek, batez beste, 36 urte dituztelako; nahi dugu ahalik eta gazteena izatea, hori bai. Enpresaren hasierako 3-4 urteetan jasoko dute laguntza.

Ze bide jarraitzen duzue pertsona hori etortzen denetik?

Sei pauso ditugu: ideiarene bideragarritasuna lantzea eta ekintzailearen profila egitea. Bigarren pausoa formazioa da: ekintzaileak ofizioaz asko jakin dezake, baina enpresa baten problematika ez du ezagutuko. Hirugarrenik, ideia bideratzeko bideragarritasun plana behar da, eta horretan ere laguntza ematen diogu. Laugarren pausoa finantza-plana da: ideia egia bihurtzeko modukoa dela eta bideragarritasuna duela ikus-

ten badugu, bankura bueltatzen gara eta finantza-plana planteatzen dugu. Hurrengo pausoa enpresa sortzea da; eta, bigarren momentu baten, enpresa sendotzen laguntzen dugu. Horretarako laguntza -persona bat dugu, taldeka arazo zehatzak lantzeko mintegiak ere bai... Eta consulting-pro zerbitzua dugu martxan. Gero, sare soziala ere sortu dugu, eta helburua da Gaztempresatik irten direnendako gune digital bat izatea, ideiak eztabaidatzeko eta elkarri laguntzeko.

Maileguak lortzeko modu berezirik badute ekintzaileak?

Bai, baldintzak desberdinak dira. Gaztempresaren bitartez ez baletor proposamena, seguru asko edozein banketxetan ezetza emango lioke. Baldintzak ere hobeak dira: prezioak baxuagoak dira eta garantiak ere txikiagoak dira.

Laguntza-modalitate berriak dituzue: enpresak eskualdatzeko, bata, eta esperientzia eta jakintza bere-

zirik ez duen jendearentzako soluzio integralak, bestea. Zertan datza modalitate bakoitza?

Enpresak eskualdatzea erretiro kasuetan planteatzen dugu. Jabea erretiratzenean, ohikoena da negozioa beste norbaiti pasatzea, eta datorren ekintzaile berriak ez ezagutzea enpresa edo sektorea. Saiatzen gara erretiratzenean eta sartzenean artean bateratze bat egitea, heziketa prozesu batekin, enpresak ahalik eta errazen jarrai dezan aurrera.

Soluzio integralak ekintzailearen profila duen baina bere ideia hain ona ez den norbaiten kasuan ematen ditugu. Badauzkagu kontaktu batzuk beste enpresa batzuetan, eta frankizia antzeko zerbait planteatzen dugu; guk beste ideia bat proposatzen diogu ekintzaile horri. Batzuetan, guk jartzen dugu soluzio osoa eta ez bakarrik lagundu ekintzaileari bere ideia aurrera eramaten.

Krisiarekin, jende gehiago etortzen da Gaztempresara?

Inoiz baino jende gehiago jartzen da gurekin harremanetan; baina ideiak pobregokoak dira eta enpresa berri batek merkaturan jarraitzea zailagoa da. Iaz, 892 eskaeratik ideiak landu genituen 427 kasutan, erdiak. Eta horietatik 211 lagunek sortu zuten enpresa. Horrek esan nahi du kontaktu guztietatik %25 ideia inguru jarri genituela martxan. Orain dela urte batzuk, ez dut esango erdiak zirenik, baina laurdenak baino gehiago izaten ziren.

Beharbada enpresa berritzaileak sortzea zailagoa delako orain?

Normalean, proiektu hauek guztiak sektore ezagunetan daude. Guk ez ditugu erronka teknologikoko enpresak sortzen. Hain negozio txikietan, berritasunak ez dira erraz sortzen.

Fagor Etxetresen gainbeherarekin, euren enpresa sortzeko bidea gehiagok hartuko dutela uste duzue?

Izan daiteke. Fagorren kasuan, enpresa barruan berritzeko esperientzia oso politak egon izan dira; ez Gaztempresarekin, proiektu handiagoak izan direlako, baina bai Saiolanen eskutik, eta oso gauza interesgarriak egin izan dituzte.

"Iaz, 892 eskaera jaso genituen, eta laurdenek sortu zuten enpresa"

"Enpresa sortzen eta sendotzen ere laguntzen du Gaztempresak"

"Ekintzaile profila dutenendako soluzio integralak eskaintzen ditugu"

ZABALIK

MIREN AMURIZA
http://goiena.net/iritzia/



Zein da zure erantzuna?

Hogeita bost bete ditu gaurkoan azaroak, hogeita bost egun itzulezin. Gura nuke udazken koloreei buruz, bertsolari txapelketaren arrakastaz edo asteburuko kirol jardunaldien emaitzez idatzi. Baina ezin dut. Ezin dut hori egin munduan hiru emakumetik bat, gutxienez, noizbait eraso izan dela gogoratu berri dudanean: jipoitua, bortxatua, umiliatua... Etengabe irakurtzen ditugu horrelako albisteak: "54 urteko gizonezkoa atxilotu du Ertzaintzak hain herritan, bikotekidea labankadaz hil ondoren. Polizia hain ordutan bortxatu zuten neska erasotzaileen bila ari da. Hain hiritan, bi gizonezko atxilotu zituzten bart bikotekide ohiengandik urrutzeko agindua urratzea egotzita". Eta abar, eta abar, eta abar. Sinestezina bezain onartezina den arren, XXI. mendeko jendarterik aurrerakoenetan ere, genero indarkeria da gaitzik larrienetako bat; gaurko egunez bereziki, urtero azpimarratzen duguna.

Indarkeriari buruz dihardugunean, eraso fisikoekin oroitzen gara gehienbat. Baina badira disimulu handiagoz pasatu arren arriskutsu eta minberak diren jazarpenak; otsoa ardi larruaren azpian ezkututzen denean bezala. Mintza gaiten beraz, emakumeenganako eraso kamuflatu horiez: tabernan nahi gabe baina nahita ipurdia ukitu ziguteneoak, titietara so egin zigun begirada nazagarriaz, deroso sentiarazi gintuen "guapaaaa!" hartaz...

Nik ezin izan diet inoiz horrelako egoerei irain edo zaplazteko batekin erantzun, beldurtia naizelako barik inor erasotzen eroso sentitzen ez naizelako. Tratu txarren aurrean, tratu onen aldeko apologia bultzatu behar dugu; eraikitzaileak izan. Ez da erraza baina bai egingarria. Oraindik zalantzan dagoena, doala Arrasateko Emakume Txokoan ikusgai dagoen *Zein da zure erantzuna?* argazki erakusketara. Ea berandu baino lehen gaurko egunez udazkenari buruz soilik hitz egin dezakegun.

USTEAK USTE

MIREIA BIKUÑA | mbikuna@goiena.com

"No hay tregua..."

1989an ikusi nituen lehen aldiz, Bilbon, Casillan; eta azaroaren 16an azkeneko aldiz, Iruñean, Anaitasunan. 24 urteren ostean, gustura egon nintzen Barricadaren kantu mitikoak entzuten eta abesten. *No hay tregua, Animal caliente* eta *No debes que esto acabe nunca* entzutean oilo-ipurdia ipini zitzaidan. Kantu borobilak. Batzuk ereserki bilakatu direnak. Zenbat oroitzen, eta ze gazte sentitu nintzen! Bikain. Primeran. Edero. Berba guztiak agortzen zaizkit Barricadaren agur kontzertua laburtzeko. Hori bai: kantu mitikoenetako batzuk ez dira gauza bera *El Drogas*-en ahotsa ez den beste batekin abestuta. Enrique Villarrealen hutsunea handiegia izan zen.

KALE INKESTA

Zer egin dezakegu genero-indarkeriarekin bukatzeko?



BEGOÑA
OZAETA
ARRASATE

"Lehen gauza normal bat moduan hartzen zen. Baina orain jendea txikitatik hezi beharko genuke horren inguruan".



IGOR
ESKIBEL
ARETXABALETA

"Etxean, ikastolan eta kalean hezkuntza balore batzuk erakutsi beharko lirake. Hasieratik jendea kontzientziatu behar da".



ANGEL
BENGOA
ARETXABALETA

"Hezkuntza gehiago izan beharko luke jendeak eta hori bakoitzak bere kabuz egin beharko lukeen gauza bat da".



MARIA
LASA
ARETXABALETA

"Emakumeok indarkeria kasuak salatu behar ditugu. Bai norberaren kasuak eta baita ere gure ingurukoak".

HANDIK ETA HEMENDIK

Osorik iritsiko garen

Aritz Galarraga
berria.info/blogak/ekografiak/

Pentsatzen dut azken sailkapen partidak oraintsu izan direlako dela. Luze gabe, Frantzia-Ukraina TF1en, Suedia-Portugal La1n, biak ere asteartearekin. Ezen bestela goiztxo baita 2014ko hankapilota Mundialari soka ematen hasteko. Eta hori hankapilota Mundialen zale handia naizela, BBVA ligarena baino gehiago, edota Zilarrezko futbolarena ez bezala —mezu subliminala ETBko jaun-andereentzat—. Baina hankapilota Mundiala abiatzeko urte erditik goiti falta dela, goiztxo iruditzen zait giroa berotzen hasteko, asteartean eman eta asteazkenean errepikatu zuten *España en el Mundial de Fútbol de Brasil 1950*-ren gisako lanak dagoeneko jasan behar izateko.

Baina, esan bezala, espero dut izatea azken sailkapen partidak oraintsu jokatu direlako. Eta Espainiak hankapilota Mundialean lekua bazuenez jada, lasai antzean geunden Bidasoaren alde honetan —bai, Bidasoaren alde

honetatik idazten dut gaur—. Frantzian, ordea, jokoan zuten zerbait. Bizia, pentsatu nuen uneren batean. Baina ez, hori baino puskaz garrantzitsuago den zerbait: Brasilerako txartela —eta ez, noski, caipirinhaz mukuru jartzeko; edo ez horretarako bakarrik behintzat—. Horrexegatik hasi ziren motorrak berotzen Bidasoaren alde hartan Frantzia-Ukrainaren arteko partida aitzin. Pentsa zenbateraino berotu ziren, *Le Grand Journal* albistegiko eguraldi emazteak zera promestu zuela: Frantziak irabazten bazuen, eguraldiaren berri larrubizirik emango zuela —eta zer zorzea duen Urko Aristik, Euskal Herriko selekzioa ez delako ofiziala—. Tira, Poil izeneko herrixkatik emango zuela esan zuen. Tira, a Poil izango zela esan zuen, ez dakigu Poilen edota larrubizirik. Azkenerako, Poiletik eman zuen Frantziaren garaipenaren ondoko eguraldi informazioa. Eta larrubizirik ere bai, nahiz kamerak urrun-urrunetik fokatzen zuen. Total, *Le Grand Journal* albistegiak inoizko ikusle daturik onenak eskuratu zituela asteazken gauean. Eta beroketa ariketak hor bukatuko balira, gaitz erdi.

Kontua da Frantziako porno ekoizle batek ere egin zuela promesa: Frantzia sailkatzen bazen sarrera librea izango zuela bere webguneak. Noski, lehertu egin zen —eta barka aditzaren gordina, pornokeria ia—. Hori bai, kontuan izanik amodio kontuetan batez besteko iraupena zein den, bada ez dakit martxa honetan 2014ko ekainera osorik iritsiko garen.

Sortzearen onurak

Garbiñe Ubeda
argia.com/blogak/garbine-ubeda/

Pareta zuriko itxarongela batean, aldizkari *femenino* zahar zimurrak orritzatzen ari nintzela, honokoxea irakurri dut: Frantziako Estatuko biztanleen %53k, izan emakumezko edo gizonezko, sortzailatzat du bere burua eta bat dator *Zerorrek egin* filosofiarekin. Gazteek, nolahi dela ere, praktikan jartzeko joera handiagoa dute.

Jokamolde honek positiboki eragiten omen dio moralari krisi garaian. %93ri autonomo eta aktibo izaten laguntzen dio, eta %84k, sentipen ezkorrak uxatzeko tresna dela uste du.

Etxera iritsita, trikotatzeko orratzen bila joan naiz segidan.

goiena
KOMUNIKAZIO TALDEA

Argitaratzailea Goiena Komunikazio Taldea Kooperatiba Elkarte
E05 Basabe Poligonoa,
20550 ARETXABALETA
Lehendakaria Aitor Izagire
Zuzendari nagusia Iban Arantzabal

Zuzendaria Eneko Azkarate
Erredaktore burua Ubane Madera
Sailkatu arduradunak Xabi Urtzelai (Kirola), Inaki Iturbe (Disenaua), Mireia Larrañaga (Publizitatea)

Asteburuko edizio arduraduna Monika Belastegi
Maketazioa Inaki Iturbe, Kepa Martelo
Argazkilaria Imanol Soriano
Publizitatea Mireia Larrañaga, Amaia Mundifano, Zierza Martin, Imanol Elortza
Testuen zuzenketa Sergio Azkarate
Harpidetzea eta banaketa Maria Leturia
Administrazioa Agurtzane Gaintzarain, Ane Berebizar, Iratxe Bengoa

EGOITZA NAGUSIA - GOIENA PAPEREA
ARRASATE 20500:
Udalora Lizenziaduna 31 | 132 posta-kutxa
Tel.: 943 25 05 05 | Faxa: 943 25 05 00

ORDEZKARITZA
ARETXABALETA 20550:
E05 Basabe Poligonoa
Tel.: 943 25 05 05 | Faxa: 943 25 05 09

Publizitatea Aretxabaleta 20550
E05 Basabe Poligonoa | Tel.: 943 25 05 05
Faxa: 943 25 05 09 | publi@goiena.com


Harpidetzea Aretxabaleta 20550
E05 Basabe Poligonoa | Tel.: 943 25 05 05
harpidetzea@goiena.com

Legu Gordailua: SS-0088/04
ISSN: 2173-707X
Tirada: 5.000 ale
Difusioa: 4.383 ale

GOIENA ez du bere gain hartzen IRITZIA eta GUTUNAK orrialdeetan, edo bestelako orrialdeetako kolaboratzaileek, adierazitako iritzien erantzukizunik.



Eusko Jaurilaritzak diruz lagundutako aldizkaria



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza



Arantzazu Ibarondo

Oñatiko Udal liburutegiko arduraduna ofizioz eta mendizalea afizioz

Kultura zabaltzeko ezinbesteko euskarri

Askotan hausnartzen dut neure artean eta komentatzen dut ingurukoen artean ere, a ze zortea daukagun Debagoiengan. Zein errotuta dauden eta ze arrakasta duten bertako euskarazko hedabideek. Ze talde indartsu eta eredugarria den Goiena. Zelako zerbitzua eskaintzen diguten Goiena telebistak, *Goiena.net*-ek, GOIENA paperak... Ze lagungarri zaizkigun hedabide horiek kulturaren arloan murgilduta gaudenondako. Gure berriak, kezkak, zerbitzuak, iradokizunak... lau haizetara zabaltzeko, herritarrengana hurbiltzeko, zelako plataforma eskaintzen diguten. Bertakoek, bertatik bertara.

Eta ez diogu horrenbeste erreparatzen euskarazkoak diren edo ez. Komunikaziorako, euskaraz jarduten dugula hedabide horien bitartez. Barneratuta daukagu hala dela, bidea zein zaila izan den ohartu barik. Normalizatuta balego. Baina asko dago egiteko euskararen alorrean eta, horretarako, Goiena da ezinbestekoa, beharrezkoa.

Imajinatzen duzue Debagoiena, gure herriak, Goiena barik? Nik ez. Ea, bada, lagundu ditzagun Debagoieneko euskarazko hedabideak!

**Imajinatzen duzue
Debagoiena Goiena
barik? Nik ez**

GOIENAK BEHAR ZAITU!

GOIENA KLUBEKO BAZKIDE EGITEKO TELEFONOA: 943 25 05 05

goienakluba[“]
Euskara irabazle, denok irabazle!

HERRIAK



Joan den urtean paintballa egitera joan ziren Zornotzara; ederto ibili ziren. | ANTZUOLAKO GAZTE TXOKOA

ANTZUOLA

Tailerrak, irteerak eta txapelketak, gaztetxoaren eskura

- ▶ Gazte Txokoak ikasturte berriari eman dio hasiera
- ▶ Drogei buruzko tailerra egiten dabilta egunotan



Reala ikustera joan ziren iaz; irudian, Antoine Griezmann jokalariaekin. | ANTZUOLAKO GAZTE TXOKOA



Donostiako izotz pista ere bisitatu zuten neska-mutilek. | ANTZUOLAKO GAZTE TXOKOA

MIRIAN BITERI | ESKORIATZA
Antzuolako Gazte Txokoan bada go zereginik. Joan den azaroaren 8an zabaldu zituen atea eta ikasturte berriari hasiera eman zion, eta ordutik hona askotariko ekintzak egiten dabilta. Joan berri den asteburuan, esaterako, tailer berezia izan du: hain justu ere, droga-menpekotasun prebentzio-rako tailerra.

Itsaso Garmendia koordinatzaileak azaldu digu atzo, domeka, eta abenduaren lehen direla horren gaineko saioak. Antzuolako Gizarte langilearen laguntzarekin antolatu dute, eta Elgetako Kalekka elkarteak eskaintzen dabil. Tailer horren helburuaz ere egin digu berba, eta honakoa esan: "Gaztetxoak drogen inguruan dituzten kezkek, zalantzak eta galderak argitzea da tailerraren helburua, eta drogen inguruko informazioa ematea; prebentzio moduan, noski".

Sukaldean ibiltzen

Tailer horrez gain, bestelako ekintzak egitea ere badute aurreikusita. Garmendiak gogorarazi du joan den urtean, zapatuetan, sukaldean ibiltzen hasi zirela eta domeketan filmaren eguna zela. Sukaldaritza tailerrari buruz honakoa nabarmendu du: "Gazteei gustatzen zaie janariarekin saltsan ibiltzea eta gero jatea. Horren helburua sukaldean pixka bat ikastea da, duten denbora librean aprobetxatu eta gustura ibiltzea. Batez ere, krepeak egitea gustatzen zaie".

Aurten, bi ekimen horiekin jarraitzeko asmoa dute, baina baita ping-pong eta mahai-futbol txapelketak gertatzea eta Gazte Txokoan dituzten mahai jokoekin eta bestelako materialarekin ibiltzea, besterik gabe. Horrez gain, koordinatzaileak iragarri du ikasturtean zehar hiruzpalau irteera egingo dituztela, baina ez du horren gaineko datu gehiagorik eman nahi izan, "sorpresa" delako.

Bost hezitzaile

Ekintza guztiak antolatzeko eta gaztetxoekin egoteko bost lagun daude aurten Gazte Txokoan:

hain justu, Olaia Gastiain, Jon Lizarazu, Eider Mendia, Josune Iturbe eta Nagore Etxezarreta hezitzaileak eta aipatutako Itsaso Garmendia koordinatzailea. Horien harira honakoa aipatu du: "Guztiok antzuolarrak gara, gaztetxoekin lan esperientzia daukagunak. Dagoeneko ondo ezagutzen ditugu gaztetxoak; hori garrantzitsua da guretzat".

Esan bezala, gazteak ezagutzen dituzte, eta hori kontuan izaten dute ekintzak antolatzerakoan. Horren harira, aipatu digu ekintza batzuk begiraleok pentsatutakoak badira ere, gehienak gaztetxoekin adostuta gertatzen direla. Esaterako, zapatuetan egiten den sukaldaritza tailerren gazteak dira zer egin nahi duten erabakitzen dutenak.

Eta berdin irteerak pentsatzerakoan. Azken horren bueltan, honakoa aipatu du Garmendiak: "Irteeretako proposamenak haiek ematen dizkigute, azken finean, eurak pozik joatea nahi dugulako. Aurreko urtean, adibidez, haiek eskatuta, Donostiara joan ginen, Realaren partidua ikustera. Eta Zornotzan ere izan ginen, paintballa egiten".

DBH-1 eta DBH-2

Ikasturte berriari buruz berba egiteaz gain, joan den urteko balorazioa ere egin gura izan du antzuolarrak. "Positiboa" izan dela nabarmendu du, asistentzia maila "oso handiarekin"; DBH-1 eta DBH-2 ikasten dabiltazen neska-mutilek joan ziren bereziki Gazte Txokora.

Dena dela, dena ez zen positiboa izan. Horren harira, salatu du apurketaren bat edo beste egon zela, "materiala ongi ez zaintzeagatik". Eta gaineratu du aurten ere dagoeneko apurketak egon direla, eta honakoa eskatu du: "Hezitzaileok eskatzen duguna da guztiok ondo pasa ahal izateko gunea eta bertako materiala zaintzea".

Bada, ohi bezala, asteburuetan dago zabalik Antzuolako Gazte Txokoa, zapatuetan 17:00etatik 21:00etara eta domeketan 17:00etatik 20:00etara.

ESKORIATZA

Pirritxek, Porrotxek, Marimototsek eta haien lagunak bizipoza eramán zuten Eskoriatzara

Kantu, dantza, irri eta algaraz bete zuten kiroldegia lan berriaren estreinaldian

IMANOL BELOKI | ESKORIATZA

Zapatuan Pirritx, Porrotx eta Marimotots izan ziren Eskoriatzan *Bizipoza* lan berria estreinatzen. Bertara hurbildu ziren guztiek arratsalde ederra igaro zuten pailazoan ikuskizun berriekin.

Bereziki *Lagun* txakurra izan zen ikusle gaztetxoaren gustukoena, baina horrez gain, *Panpoxa* furgoneta, *Gorka*, *Txilipito*, *Igor*, *estralurtarra*... eta beste haibat lagun berri ezagutzeko aukera izan zuten. Debekuak ez direla ezarri behar, begiekin ez bada ikusten bihotzarekin sentitu behar dela eta beste hainbat gauzaga-



Lagun txakurra Marimototsen aginduak betetz, Pirritx eta Porrotxen gainetik jauzi egiten. | JOSETXO ARANTZABAL

rrantzitsu erakutsi zizkieten etxeko txikienei –eta nagusiei–. Umeak ederki ibili ziren dantzan eta kantuan, euren saltsan, eta gurasoak ere asko disfrutatu zuten.

Ikuskizun osoan ibili zuren umeak dantzan eta kantuan, baina bereziki amaierako azken kantuetan kiroldegi osoaren saltoak ikusgarriak izan ziren.

Musu ugari amaieran

Pirritxen, Porrotxen eta Marimototsen ikuskizun guztietan bezala, amaieran musu, besarkada eta argazkiak egin zituzten ume-txoek pailazoekin.




NAIA, EIDER ETA LAGUNAK
ESKORIATZA

"*Lagun* izan da gaurko ikuskizunean gehien gustatu zaiguna. Salto, eseri, Porrotxi musu eman... denetik egin duelako. Horrez gain, kanta guztiak gustatu zaizkigu, baina bereziki *Hezi eta hazi* gustatu zaigu. Abesten eta dantzan egon gara denbora guztian eta nahiz eta horrela izan ez dugu uste bihar ahots gabe egongo garenik. Hurrengoan ere etorriko gara pailazoak ikustera".



ELENE, IZARO ETA PAULE
ARETXABAETA

"Gehien gustatu zaiguna *Lagun* izan da, kasu asko egiten zuelako. Guk ez dugu txakurrik, baina halako ondo erakutsi nahiko genioke izango bagenu. Kantu denak gustatu zaizkigu, baina gehien gustatu zaigun abestia *Maite zaitut* izan da. Horrez gain, Porrotxek busti gaituen momentua ere asko gustatu zaigu".



MAREN ETA ARKAITZ
ESKORIATZA

"Dena gustatu zaigu gaurkoan. Abesti denak ez dakizkigu oso ondo, baina *Eskuetan* abestia politena izan da. Gainera letra guztia dakigu. Horrez gain, *Lagun* oso txintxua da eta denetarik egin du. Hurrengoan ere etorriko gara ikuskizunaz gozatzera".



UNAX
OÑATI

"Kirolaren kanta izan da gehien gustatu zaidan abestia. Atzeko aldetik ikusi ditut pailazoak eta Porrotxek ura botatzean libratu naiz. Ez dakizkit abesti guztiak buruz, baina entzunez, ikasiko ditut".



OÑATI

JOSETXO ARANTZABAL

Gazta dastatzea Arantzazun

Zapatuan, gazta-zale ugari hurbildu ziren Arantzazura. Debagoiendarrez gain, kanpoko jendea ere bertaratu zen gaztaren inguruan gehiago ikasteko asmotan. Lehenik, artzaintzari buruzko bisita gidatu bat egin zuten. Ondoren, hainbat gazta mota ezberdin probatzeko aukera izan zuten Ramon Lizeagaren eskutik. Gazta dastatuz gustura pasatu zuten goiza Arantzazura igo zirenek.



ESKORIATZA

JAGOBA DOMINGO

Ardo dastatzea Eskoriatzan

Aitzorrotz kultura elkarteak urtero antolatzen duen ardo dastatzea arrakastatsua izan zen zapatuan. Zenbait kiantza ardo, pintxo paregabeak eta txistularien musikaz gozatzeko aukera izan zuten Eskoriatzarrek. Nahiz eta eguraldiak lagundu ez, giro ederra izan zen Eskoriatzako plazan. Hala, asko euritakoan azpian eta beste asko itzalkinen azpian egon ziren; eguraldi txarrari eta egiten zuen hotzari frente egiteko kiantza izan zuten erremedio bertaratuek.

BERGARA

Istripu simulazioak DYAren atzo Bergaran

Gipuzkoako DYAk ibilgailuen erakustaldia eta moto zein auto istripuen erreskate simulazioak egin zituen

JAGOBA DOMINGO | BERGARA

40 urte bete ditu Gipuzkoako DYAk eta ospatzeko hainbat herritan erakusketak antolatzen dihardute. Bada, atzo, Bergaran ate irekien jardunaldia egin zuten Seminarioko patioan.

Eguraldiak lagundu ez zuen arren, Arantzazu Lertxundi, Gipuzkoako DYako boluntariozako arduraduna pozik zegoen: "Herritar gutxi hurbildu badira

ere, zer egiten dugun eta zergatik egiten dugun ikasi dute gerturatu direnek", esan zuen.

Ibilgailuen erakusketa

Seminarioko patioan DYAk erreskate zein larrialdietarako erabiltzen dituen ibilgailu gehienak egon ziren ikusgai; eta animatueneke ere, autoa iraultzen zuen simulagailua probatzeko aukera izan zuten, gerrikoaren garrantziaz jabetzeko.

Besteak beste, anbulantziak, motorrak, salbamenduko ontziak zein mendiko erreskate unitateak egon ziren Bergaran.

Istripu simulazioak

Erakusketaz gain, moto zein auto istripu baten simulazioa eta erreskate erakustaldia egin zituzten. Guztia egunero Gipuzkoako DYAk egiten duten lana herritarrei hurbiltzeko.



Bergarako DYaren lantaldea. | JOSETXO ARANTZABAL



Istripu simulazioa Bergarako Seminarioan. | J.A.L



Moto istripua izan duen gazteari laguntzen. | J.A.



Goizean egindako tailerretako bat. | MONIKA BELASTEGI



Bazkaltzera sartu aurretik talde argazkia egin zuten. | JOSETXO ARANTZABAL

ARETXABALETA

Ederto pasatu zuten Gazte Eguna zapatuan

Gazte Ekimenak 10 urte bete ditu aurten eta udaberrirako zerbait berezia prestatu nahi dute

M.B. | ARETXABALETA

Aretxabaleako Gazte Ekimenak antolatuta Gazte Eguna egin zuten zapatuan Aretxabalean. Goizeko bideogintzako, arropa birmoldatzeko eta osagarriak egiteko tailerretara jende askorik animatu ez arren, aurrera egin ahala animatzen joan zen eguna eta eguerdian Lekaixoka bertso eskolako gaztetxoek egindako saioan bete-bete ikus zitekeen udaletxe zaharra. Poteo

luzea egin eta gero, bazkaria izan zuten jolas eta guzti eta iluntzean zenbait kontzertuz gozatzeko aukera ere egon zen herriko hiru tabernatan eta udaletxe zaharrean. Aipatzekoa da, bestalde, Gazte Egunerako bideoa ere sortu dutela: <http://www.youtube.com/watch?v=UQEgZkG2nVo>.

Aurten 10 urte bete ditu Gazte Ekimenak eta udaberriaren zerbait berezia egin nahi dute.

ELGETA

Kontxako bandera Elgetan zapatuan

Olatuaren goian edo behean egon arren, Elgetar zaleak Hondarribiko Ama Guadalupeko arraunlariekin daudela eta egongo direla argi utzi zuten zapatuan. Urtero bezala, ongietorria egin zieten arraunlariei udaletxean; eta aurten, Kontxako bandera ekarri zuten eurekin. Eguna lagun giroan ospatu zuten.



JAGOBA DOMINGO



Musika Eskolako ikasle gazteak danborra jotzen udaletxeko aterpean. | IMANOL SORIANO

ESKORIATZA

Sarriegiren doinuak jo zituzten danborradan

Eskoriatzako Musika Eskolak danborrada egin zuen barikuan Santa Zezilia ospatzeko

EÑAUT ABARRATEGI | ESKORIATZA

Barikuan Santa Zezilia izan zen, egun seinalatua musikariendako eta Eskoriatzako Beheko Errota Berri musika eskolakoek danborrada eginda ospatu zuten. Baina ez hori bakarrik, Sarriegi kon-

positorearen heriotzaren mendurrena ere gogoratu zuten, haren hiru doinu joaz.

Sarriegi omenduz

Diana, Tatiago eta La Marcha de San Sebastian izan ziren musika

ka eskolakoek jo zituzten Sarriegiren hiru obrak. Hain zuzen, Euskal Herriko musika eskolen elkarteak iradoki zuen konpositore donostiarra omentzea eta Eskoriatzakoek bat egin zuten barikuan dei horrekin.

Ikasle gaztetxoek danborra eskuetan zutela eta helduagoek instrumentua, egin zuen danborrada, irakasleen aginduak jarraituz.

Amaitu eta gero, ondo merezitako txokolate-janaz gozatzeko aukera izan zuten parte-hartzaile zein ikusleek.

ANTZUOLA

Herritarren inplikazioa azpimarratu dute Antzuolan Libre Egunaren antolatzaileek

M.B. | ANTZUOLA


Udazkenean Madrilgo Auzitegi Nazionalean hasitako 35/02 eta 26/11 sumarioen aurkako epaiaketen pisu ekonomikoa arintzeko eta herritarren atxikimendua lortzeko Libre Eguna egin zuten zapatuan Antzuolan. Eta baita helburuak bete ere: "Oso ondo joan da eguna, pozik gaude", esan dute antolatzaileek, eta bereziki azpimarratu nahi izan dute herritarren inplikazioa: "Eskerrak eman nahi diz-

kiegu modu batera edo bestera lagundu diguten guztiei. Borondatezko lana egin dute. Olalde elkarteak, gaztetxeak, zenbait dendarik, txistulariek, dultzaineroek, herriko zenbait musika taldek... eman digute laguntza".

Egun osoko egitaraua izan zuten. Goizean poteoa egin zuten dultzaineroekin, eguerdian bertso bazkaria eta gauean kontzertua herriko zenbait taldeekin, besteak beste.



Olalde elkarteak egin zuten bertso bazkaria. | JOSETXO ARANTZABAL



EKONOMIKOA (sinplea eta bero-emailea) • **BEHEKO SUA** (sinplea eta bero-emailea) • **ESTUFAK** • **GALDAREN ORDEZKATZEAK**
Dei egiguzu eta dauden aukerez informatuko zaitugu!

Zure **bainuontzia kendu**
eta dutxa jartzen dizugu
EGUN BATEAN!
Informa zaituz!



Marka guztiekin lan egiten dugu.



Mitarte 5, behea
Tel.: 943 71 52 51 - 605 71 66 92
ARETXABALETAK





Polmetasa zaharra 2012ko irailaren 24an ateratako argazkian; sutea eman zen egun horretan. | GOIENA

Udalak Polmetasa zaharra hondamen-eremu izendatu gura du, gunea husteko

Erortzeko arriskuan dagoen lantegira jendea sartzen delako hartu dute erabakia

JOKIN BEREZIARTUA | ARRASATE

Udalak Polmetasa zaharra hondamen-eremu izendatzeko espediente zabaldu eta gune horren jabe den San Andres Berri enpresari –konkurtsorik gabe dago– bere defentsarako eskubidea baliatzeko 15 eguneko epea eman dio – 15 egun, jakinarazpena jaso ondoren–. Konkurtso-administratzaileari bertara joan eta justifikazioak idatziz helarazteko eskatu diote.

2010eko urritik utzita dago fabrika zaharra eta ordutik hainbat arazo izan dira. Auzotarrak askotan kexatu izan dira; sute bat

2012ko irailean, argi barik ere geratu ziren bi kale... Era berean, instalakuntzak utzita egoteak eta hirugarren pertsonen "desegite etengabeek" eraikinaren segurtasuna arriskuan jarri dute eta beraz, baita bertan egon daitezkeen herri-tarren osasuna ere.

San Andres Berri erantzule

Horregatik Udalak dagozkion neurriak hartu behar ditu gunea hustu eta eraikinaren berehalako erortzea ekiditeko. San Andres Berri izango litzateke bertan eman daitezkeen kalteen erantzule eta enpresak ordaindu beharko litzu-

ke eraikina modu kontrolatu baten eraitsi beharko balitz, horiek guztiak gauzatzeko lanak: eraispenak eragindako hondakinak kudeatzea eta kutsadura posibleak aztertzea –kutsadura industrial, materiala eta lurrazalekoa zein lur azpikoa–. Hirigintza batzordearen arabera, eraikinaren egoera hain da txarra zaharberritze proiektu baterako ere ezin dela aprobetxatu. Hala, Udaleko teknikariek ondorioztatu dute eraikinak ez duela inongo baliorik. Horregatik ulertzen dute Polmetasa zaharra legalki hondamen egoeran dagoela.



ITZIAR JAUREGI

1954an jaiotako arrasatearren ospakizuna, giro ederrean

1954an jaiotako arrasatearren urteroko ospakizuna egin zuten azaroaren 16an. 33 elkartu ziren eta herriko tabernetan zehar txikiteoa egin ostean Aldape jatetxean bazkaldu zuten. Bazkalostean aurreko urteetan zehar egindako ospakizunen argazki bilduma bat zozketatu zuten eta ondoren musika eta dantzarako tartea izan zuten jatetxean bertan. 2014an urteurren borobila izango dute, 60 urte beteko dituzte-eta.

NIRE USTEZ

MAITE BARREÑA



Zein da zure erantzuna?

Gaur lanera sartu naiz eta hunkitu egin naiz, emozionatu, baina batez ere harro sentitu naiz!

Emakume Txokoa Argazkia espresio bide ikastaroa egin duten neskek prestatu duten erakusketarekin, egin duten lanarekin, proposatzen dizkiguten erantzunekin eta ageri duten grinarekin topo egin dut. Ona!

Bi hilabetez aritu dira biolentzia sexistaren inguruko hausnarketak egiten, biolentzia horiek emakumeengan duten eraginez, biolentzia sexisten

erak eta moduak aztertzen eta batez ere eman beharreko erantzunei erreparaten. Biolentzia mota bakarra ez dagoela ondorioztatu eta *inork* egiten ez duen ahozko biolentzia sexistan –baina emakume guztiok pairatzen dugun horretan– zentratu dira.

Argazkigintza baliatu dute kalean egiten diren ahozko eraso sexistei aurre egiteko eta erantzun sorta hau da, besteak beste: *Nire askatasunak beldurtzen zaitu?; Tente? Neure Burua!; Ez naiz zuretzat, niretzat baizik!; Nork eskatu du zure iritzia?; Hain polita eta mutil-lagunik gabe? Bai, eta zu zirkorik gabeko pailazoa?; Eta zure amari esango zenioke?; Houston, Houston... arazo bat daukazu!...*

Argi dute ez diotela indarkeria sexistari indarkeriaz erantzun nahi. Hori bai, indarkeria sexistari erantzun indartsua eman nahi izan diote. Gora zuek!

Abian da Ibai-Arteren 'Arrasate denok batera'

Gaur hasi eta abenduaren 7ra arte, %13ko deskontua eskainiko dute elkartearen dendetan

J.B. | ARRASATE

Ibai-Arte merkatari elkartek ekimen berri bat antolatu du. Gaur hasi eta abenduaren 7ra arte *Arrasate denok batera* promozioa jarri dute martxan Ibai-Artekoek. Arrasatearren erostekak bertan egitera bultzatzea helburu, %13ko deskontua eskainiko dute euren produktu zein zerbitzuetan: "Ekimen honekin gure bezeroak saritu gura ditugu, euren erosteketan laguntzea", diote.

Arrasatek bizi duen garai zailari "denok batera" aurre

egiteko asmoz sortutako ekimena da, aditzera eman dute-nez.

Hainbat sektoretako dendak

Eskaintzaren parte diren dendak kanpainarako egin diren kartelen bidez identifikatuko dira, erakusleho eta ateetan kokatu dituzte-eta. Promozio berezian hainbat sektoretako saltoki eta zerbitzuek hartuko dute parte: arropa eta oinetako dendak, bitxitegiak, estetika zentroak, paper-dendak, odontologia-zerbitzua...

PSE-EEren arabera, Bilduk eta EAJk presoaren auzia lehenetsi dute Fagor Etxetresnen krisiaren aurrean

Aritz Arrietaren arabera, Bilduk eta EAJk interes alderdikoiak lehenetsi dituzte interes komunaren aurrean: "Urgentzia handiagoa eman diote ETArekin presoekin Fagorren krisiaren aurrean neurriak hartzei baino". Bilduren kudeatzeko eredu "lubaki ideologiko" moduan definitu du Arrietak, eta EAJk bere "onespena eta kolaborazioa" ematen diola salatu. Honakoa gaineratu du bozeramaile sozialistak: "Nola uler daiteke ezohiko osoko bilkurarik ez deitu izana Fagorreko langileen etorkizuna bermatzeko?".

Asteon hasiko dira abenduaren 14an egingo den Jostailu Truke Merkaturako materiala biltzen

Txatxilipurdik azken urteetan antolatu duen Jostailu Truke Merkaturako abenduaren 14an izango da. Azoka Plazan egongo dira, 10:00etatik 14:00etara. Aurten Bagararekin batera antolatu dute azoka eta asteon hasiko dira jostailuak biltzen, 17:30etik 19:00etara. Hain zuzen ere, hilaren 27an Arimazuri plazan egongo dira; hilaren 28an, Santa Marinako ludotekan eta hilaren 29an, Herriko plazan. Abenduko lehen bi asteetan ere jasoko dituzte jostailuak herriko beste zenbait puntutan, astelehenetik eguaztenera.

Azaroaren 25a aldarrikatzeko ekintzak gaurtik hasita

'Egiozu aurre eta izan libre!' gida kaleratzeaz gain, murala, poesia eta elkarretaratzea antolatu dute

IMANOL GALLEGU | ARRASATE

1981eko azaroaren 25ean emakumeen kontrako indarkeriaren aurkako nazioarteko eguna aintzatetsi zen, Bogotan ospatu zen, Hego Amerika eta Karibeko lehen topaketa feministean. Ekitaldi horretan, emakumeek jasaten duten indarkeria, era ofizial batean, salatu zen lehen aldiz.

Lehen aldarrikapen egun hori urrun gelditzen den arren, zoritxarrez oraindik aldarrikatu beharreko egun eta gai bat dugu hau. Orain baina, gizarteak aurrera egin duelako, babes eta oihartzun handiago bat dute gaurko egunez mundu guztian zehar egiten diren aldarri eta babes ekitaldi ugariak. Arrasateko hainbat eragilek egun hau aldarrikatzeko egitaraua antolatu dute.

Egun bat baino gehiago

Arrasateko ekintzak ez dira 24 ordu hauetara mugatuko. *Zein da zure erantzuna?* argazki erakusketa urtarrilaren 31a arte ikusgai egongo da Emakume Txokoan. Gaur arratsaldean aldiz, emakumeei babes erakusteko elkarretaratzea deitu dute herriko plazan. Egubakoitzean poesia errezitaldia hartuko du gaztetxea, eta hurrengo egubakoitzean aldiz, Kultureteko areto nagusian *Alardearen seme-alabak* dokumentala eskainiko dute.

Guzti honen harira, Emakume Txokoak *Egiozu aurre eta izan libre!* gida kaleratuko du. Emakumeen kontrako indarkeria identifikatu, eta horren aurrean nola jokatu behar den argibideak emango ditu gidak.

EGITARAUA

Gaurtik urtarrilaren 31ra bitartean:

Zein da zure erantzuna? argazki erakusketa Emakume Txokoan.

Gaur arratsaldean:

17:00 Mural margotzea. Parte hartzeko deitu Emakume Txokora: 943 79 41 39.

19:00 Elkarretaratzea plazan.

Egubakoitzean, 22:00etan:

Emakumeen begiradak plazara poesia errezitaldia gaztetxean.

Abenduaren 4an 18:30ean:

Alardearen seme-alabak dokumentalaren proiektzioa Kultureteko areto nagusian.

Bigarren urtez Arrasate Zientzia Elkarteak iragana astindu du

I.G. | ARRASATE

Arrasate Zientzia Elkarteak martitzenean ekin zion bigarren *Iragana Astintzen* zikloari Kultureteko areto nagusian. AZEko kideek aurkezpenean, "ekimenaren arrakastaren ostean, berriro egitera animatu gara", azpimarratu zuten.

Bigarren saioa bihar izango da. Jose Angel Achonek histo-

ria doktoreak *Arrasateko herria eta Oñatiko konderrria 1448an* gaia landuko du. Bi aste beranduago abenduaren 10ean Alfredo Moraza historian lizentziadunak *Arrasateko Teileriak* hitzaldia eskainiko du eta abenduaren 17an Maria Ines Olaranek, *Ricardo Olanarri Añibarro, Arkitektoa* eta bere ondarea gogora ekarriko du.



IMANOL SORIANO

Zahar berriren gaztainada

Herriko euskaltegiek antolatuta, Zahar Berriren mintza praktika programaren aldeko Gaztainada egin zuten egubakoitzean. Udaletxeko arkupeetan 25 bat kilo gaztaina saldu zituzten.



Mendian bideak eta animalientzat pasoa atonduko dituzte. | ANE ETXEBERRIA

Kurtzetxiki balioan jartzeko auzolana zapatuan

Udalak eta Bagarak sistema honekin lan egiteaz gain, "kontzientzia sortzea" ere nahi dute

I.G. | ARRASATE

Kurtzetxiki berreskuratzeko proiektua aurrera doa eta zapatu honetan zuzeneko babestu, itxituretan animalientzako pasoa zabaltzeko eta bide zaharrak txukunduko dituzte auzolan bitartez.

Bagarak sustatuko ekimenak helburu handiago bat dauka, "lehen sektorea biziberritzea".

Talde lana bultzatuz

Zapatuko ez da lan soil bat izango, Udalak honekin talde lana

sustatzeaz gain, balore eta kontzientzia ere zabaltzea nahi dute. "Pentsatzen dugu auzolana modu ezin hobea dela arrasatearrak zenbait balio barnerratzen joan daitezkeen", uste du Josu Pereda Ingurumen zinegotziak.

Zapatuan, Bedoñako aparkalekuan elkartuko dira, 9:00etan. Parte hartu nahi dutenek oraindik garaiz dabilta, izena emateko azken eguna egubakoitzea izango da-eta. Horretarako *gureztatu@bagara.net* helbide elektronikoa eta 943 79 68 48 zenbakira jo beharrik ez dago.

Mikel del Rio | Margolaria

"Artelan baten kostua definitzea oso zaila da, lan asko dago atzean"

I.G. | ARRASATE

Haurra zela hartu zuen Mikel del Rio (Arrasate, 1988) bere lehen arkatza, eta 25 urte geroago bere lanak abenduaren 13a arte Bilboko Batzar Nagusien erakusketa aretoan ikus daitezke. Urte gutxiren buruan salto handia egin du bere burua margolaritzat jotzen duen Arrasateko artista gazte honek.

Gazte zinela ekin zenion margotzeari.

Bai, afizio moduan hasi nintzen. Arrebak ere oso ongi marrazten du, eta hortik sortu zitzaizkidan margotzeko zaletasuna.

Arte ederretako ikasketak zure lehen aukera izan ziren?

Argi neukan marrazketarekin zerikusia zuen zerbait egin nahi nuela, eta hasieran karrera tek-



Herriko artista gaztea. | J.D.R.

nikoago bat egitea otu zitzaizkidan. Baina matematikatan nahiko txarra naizenez, berehala baztertu nuen ideia hori.

Gurasoek begi onez hartu zuten aldaketa hori?

Egia esan ez, baina azkenean ulertu dute gustuko dudana arlo bat dela.

Lehen erakusketa hau karrera amaitu aurretik egin izanak ere zerbait esan nahiko du.

Zorte ikaragarria izan dut. Nire lanak erakusteko primerako aukera da.

Artista zehatz baten jarraitzailea izan zara?

Ez dakit nire lanetan asko igaritzen den, baina beti miretsi izan dut Rivera.

Adreiluaren porrotaren ostean dirudunek artean inbertitzen omen dute. Balore seguru bat da?

Lan baten kostua definitzea oso zaila da. Nire lanetan adibidez, ordu pila sartzen ditut, eta hori ez da baloratzen. Hala ere, jendea izen jakin baten bila joaten da. **Hortaz jendeak margolanak ez ditu arte bezala ikusten.**

Oso jende gutxi dauka artelan bat behar bezala ulertzeko jakintza. Askotan, dirua irabazteko aitzaki bezala erosten dituzte artista jakin baten lanak.

Tokyo Sex Destruction, nagusi egin diren 'teloneroak'

I.G. | ARRASATE

Bergarako Jam aretoan Jon Spencer Blues Explosion, International Noise Conspiracy, Zen Guerrilla eta antzekoen hasierako gonbidatu gisa beraien burua ondo defendatzen zekien taldeak ibilbide luzea egin du.

Hala, 10 urte, sei disko eta Europatik zein AEBetatik egin-

dako birek are eta gehiago gogortu dute Tokyo Sex Destruction taldearen berezkoa duten soul, punk, garage, latino doinuak.

Europatik barrena egiten dabiltzan biraren barruan, Arrasaten izango dira Kooltur Ostegunak ekimenean, *Sagittarius* diskoa aurkezten.



Tokyo Sex Destruction taldeko kideak. | MUSIKAZUZENEAN

Iaz 44 genero-indarkeria kasu bideratu ziren, gehienak gazteenak

Kasuen %37an biktimen adina 18 eta 30 urte artekoa izan zen eta indarkeria fisikoa jasan zuten %43k

MONIKA BELASTEGI | BERGARA

Gaur, azaroak 25, Emakumeen Kontrako Indarkeriaren Aurka-ko Nazioarteko eguna dela-eta, Udalak gai horren inguruan egiten ari den lanketaren berri eman du.

Genero-indarkeriaren definizio oso argia egin dute Udaletik: "Genero-indarkeria da emakumeak emakume izateagatik jasan dezakeen edozein ekintza bortitz, baldin eta ekintza horrek emakumeari kalte fisiko, sexual edo psikologikoa edo sufrimendua ekartzen badio edo ekar badie-zaioke".

Bergara ez dago salbuetsita

Genero-indarkeria mundu osoan zabalduen fenomeno da, herrialde guztietan gertatzen da, gizarte-maila, hezkuntza-maila, etnia, arraza, kultura eta erlijio guztietan gertatzen da; Bergarak ere ez dio errealitate horri ihes egiten, Udaletik azaldu dutenez, eta, horren erakusle, 2012an gertatutako genero-indarkeria kasuen berri eman dute, betiere, Udaleko Gizarte Zerbitzuen, Udaltzaingoaren eta Ertzaintzaren datuetan oinarrituta.

Hain justu ere, 2012an 44 genero-indarkeria kasu bideratu ziren herrian: hamaika, Udaleko Gizarte Zerbitzuetan; lau, Udal-

KONTAKTUA	
Genero-indarkeria kasuren baten berri izanez gero, edo halako egoera batean egonez gero, leku hauetara jo daiteke:	943 03 80 52 BERGARAKO EPAITEGIA 09:00etatik 14:00etara; guardiakoa, 17:00etatik aurrera.
943 77 91 65 UDALEKO GIZARTE ZERBITZUAK 08:00etatik 14:30era.	943 22 44 11 / 943 22 49 10 URGENTZIAZKO GIZARTE ZERBITZUAK 15:00etatik aurrera.
943 77 91 06 UDALTZAINGOA	900 48 01 11 Doakoa da; 24 orduz eta 365 egunetan. Fakturan ez du arrastorik uzten eta aholkularitza osoa ematen du. Interpretak ere baditu.
943 53 47 20 BERGARAKO ERTZAIN-ETXEA	

tzaingoan; eta 29, Ertzaintzan. Dena den, Udaletik azpimarratu dute kontuan izan behar dela Gizarte Zerbitzuetara, Udaltzaingora eta Ertzaintzara heltzen diren kasuak gutxi direla: "Kasu gehienak isilik eta bakardadean bizi izaten dira", esan dute.

Emakume gazteek bereziki

Iazko genero-indarkeria kasu gehienak bikotekideek edo bikotekide ohiek eragindakoak izan

ziren, eta emakume gazteek jasan zituzten, bereziki; 18 eta 30 urte artekoek, zehazki. Eragindako indarkeriari dagokionez, berriz, fisikoa zein psikologikoa izan zen, batez ere, eta erasotzaileak EAEkoak izan ziren kasu gehienetan, ondoko taulan ikus daitekeen moduan.

Kontzientzia hartzeko bideak

Hauxe diote udal arduradunek: "Gure herria, gainontzeko herriak

bezala, gizarte-arazo honen benetako dimentsioaren kontzientzia hartzen ari da". Hori dela eta, Udalak hainbat ekimen martxan jarri ditu azken urteetan, emakumeen eta gizonen berdintasuna sustatzeko eta horrelako diskriminazioak gainditu eta ezabatatzeko asmoz.

Esaterako, egoera horretan dauden emakumeei hainbat eratako laguntza eskaintzen zaie Udaleko Gizarte Zerbitzuetatik; horrekin batera, emakumeen kontrako indarkeriaren aurkako sinboloa den puntu lilaren erabilera bultzatu da; eta oso garrantzitsua dena, gazteen artean gertatzen den indarkeriari aurre hartzeko eskoletan gaia lantzeko programa bultzatu da.

Beldur barik lehiaketa

Aurreko guztiari beste ekimen bat gehitu dio Udalak berriki. Hain zuzen ere, Beldur Barik programan parte hartuko du lehenengoz, azaroaren 25aren harira.

Beldur Barik Eudelek abiatutako indarkeria sexistaren aurkako programa da. Beste gauza batzuekin batera, ikus-entzunezkoen lehiaketa antolatzen dute, eta Udaleko Gazteria Sailak eta herriko zenbait gaztek ikus-entzunezkoa prestatu dute Bel-

INDARKERIA DATUTAN

Artatu den kasu kopurua

Gizarte Zerbitzuetan	11
Udaltzaingoan	4
Ertzaintzan	29

Indarkeria mota (Gizarte Zerbitzuen arabera)

Ekonomikoa	%5
Psikologikoa	%52
Fisikoa	%43
Eraso sexuala	%0

Indarkeriaren jatorria (Ertzaintzaren arabera)

Bikotekideak edo bikotekide ohiak eragindakoa	%83
Familia barrukoa	%7
Sexu-askatasunaren aurkakoa	%10

Biktimen adina

18 urte baino gutxiago	%5
18-30 urte	%37
31-40 urte	%26
41-50 urte	%21
51-60 urte	%11

Erasotzailearen jatorria

EAEkoa	%51
Estatuko komunitate batekoa	%16
Beste herrialde batekoa	%33

dur Barik lehiaketan parte hartzeko. Interesa duenak ondoko estekan ikus dezake dokumentala: <http://www.youtube.com/watch?v=p30NSiNIFgY&feature=youtu.be>.

Markel Irizar eta Jagoba Arrasate, Bergarako Euskararen Egunean

Abenduaren 3an izango dira; azaroaren 30ean, ostera, 'flashmob'-a egingo dute gazteek

Z.V.D.M. | BERGARA

Debagoieneko euskara elkarteek eta Arrasateko euskalgintzakoek *Euskarak 365 egun* kanpaina ipini dute martxan Euskararen Nazioarteko Egunaren harira. Tokian tokiko ekintzak egingo dituzte; Bergaran, Jardunek, Bergarako Udalak eta Goiena Komunikazio Taldeak elkarlanean antolatuta, hainbat ekimen egingo dituzte.

Besteak beste, azaroaren 30ean, 18:00etan, Udaltzaingoan Kantari *flashmob*-a egingo da. "Aurten Kantarin parte hartzen diharduten 120 neska-mutilei egin zaie dei bertan parte har dezaten, baina, gainera, ikastetxeen bidez 8 eta 12 urte bitarteko gaztetxo guztiak gonbidatu ditugu *flashmob*-a egiten lagun dezaten, nahiz eta Kantarin agertu ez".

Kantari, Euskaraz bizi nahi dut eta Udarako gau luzeak abestien koreografiak ikasi beharko dituzte parte hartzaileek. Guztiak ere <http://blogak.goiena.net/kantari/helbidean> daude.

Horren ostean, Amaia Txintxurretak gidatuta, DJ festa egingo dute. "Euskarazko kantuak ipiniko ditugu eta jendeak ere eskatu ahal izango ditu abestiak".

Abenduaren 3a egun potoloa

Antolatutako beste ekintzetako bat Euskararen Egunean bertan egingo duten Kirola Euskaraz ekitaldia izango da. Besteak beste, Markel Irizar txirrindulariak, Jagoba Arrasate Realeko entrenatzaileak eta Igor Arenatza UDako kirol zuzendariak hartuko dute parte.



Beteranoen urteko azken tontorra

Pol-Poleko beteranoek amaitutzat eman dute urtea, eta, hori horrela, azaroaren 17an egin zuten urteko azken irteera. Argazkian ikusten denez, lagun talde polita elkartu zen eta mendiko jantzi aproposak soinean zituztela abiatu ziren Irun-Erlaitz-Irun ibilbidea egitera. Bada, ibilaldiarekin gozatu ostean, indarberritzeko txanda iritsi zitzairen Bergarako mendizaleei, eta, horretarako, eta baita urteari amaiera borobila emateko ere, bazkaria egin zuten sagardotegian.

Mendekotasuna dutenen zaintzaileentzako ikastaroa

Z.V.D.M. | BERGARA

Mendekotasuna duten pertsonen zaintzaileek euren burua zaintzeko garrantzia azpimarratzeko, *Nola zaindu* izeneko ikastaroa antolatu du Udaleko Gizarte Zer-

bitzuen sailak. Abenduaren 2an, 4an, 9an eta 11n izango dira eskolak, 14:30etik 17:00etara, Aitonetako areto nagusian.

Karme Gurrutxagak gidatuko ditu saioak eta 15-20 pertsona-

rendako lekua dago. Izen-ematea doan da, Udaleko Gizarte Zerbitzuetan, (943 77 91 65) 08:30etik 13:30era zein ongizatea@bergara.net helbidean. Izena emateko azken eguna azaroaren 28a da.



Kristina Buizer, Martin Arana, Kontxita Larrañaga, Elisa Garmendia, Garbiñe Irizar eta Kontxita Zangitu. | OIHANA ELORTZA

Mizpirualdeko egoiliarrei lagun egitera 14 bat herritar joaten dira

Martin Aranak eta Elisa Garmendiak 10 urte egin dituzte zeregin horretan

OIHANA ELORTZA | BERGARA

Mizpirualde zaharren egoitzako egoiliarrei konpainia egitera joaten dira hainbat herritar, boluntario, Nagusilan elkarteak lagun-duta. Elisa Garmendia eta Martin Arana dira horietako bi. Aurten, 10 urte bete dira zeregin horretan hasi zirela; Arana duela 10 urteko azaroaren 7an hasi zen, eta Garmendiak abenduaren 7an egingo ditu beste horrenbeste urte.

Konpainia

Martin Arana eta Elisa Garmendia, esaterako, eguen guztietan joaten dira Mizpirualde egoitza-

ra. "14 bat lagun etortzen gara guztira, gutxi gorabehera. Bakoi-tzak ahal duenean etortzen da, baina egun jakinetan etortzen gara gehienok, gure egutegiaren barruan sartzen da astero hona egiten dugun bisita. Gehienok arratsaldetan etortzen gara baina gauetan ere etortzen da bakarren bat", dio Zubiaurrekoa den Elisa Garmendiak. "Antzuolatik ere asko etortzen dira. Martitzetean etortzen dira haiek eta oso ondo dituzte antolatuta taldeak", jarraitu du.

Egoiliarrekin batera, kartetan jolastu, dantza, telebista ikusi, paseatu edo berriketan egiten

dute Mizpirualdera boluntario doazen herritarrek. "Normalean bisita gutxi izaten dituzten egoiliarrekin egoten gara gu. Beste batzuetan, aldiz, ekintzaren bat edo beste antolatzen dutenean, laguntzeko ere eskatzen digute", zehaztu du Garmendiak. Joan den astean egindako Egoitzaren Astea, esaterako, antolatutako ekintzetan ere hartu zuten parte boluntarioek.

Kristina Buizer da Nagusilane-ko arduraduna Mizpirualde egoitzan. "Taldetxo honek sekulako lana egiten du, egoiliarrek pozik hartzen dituzte euren bisitak", dio.

ESANAK

"Umorea eta pazientzia baino ez dira behar"

ELISA GARMENDIA | BOLUNTARIOA

"Egoiliarrek asko eskertzen dute euren konpainia"

KRISTINA BUIZER | NAGUSILAN

Jarraitzeko asmoa

Aranak eta Garmendiak, biek adierazi dute pozik dihardutela boluntario lanean eta 10 urte pasa arren, jarraitzeko asmoa dutela. "Umorea eta pazientzia behar dira", dio Garmendiak

OHARRAK

1964KO KINTOEN AFARIA

Zapatu honetan, azaroak 30, egingo dute Batzokian 1964an jaiotakoek euren eguneko afaria.

1980KO KINTOEN BAZKARIA

Etxagi jatetxean egingo dute 1980an jaiotakoek bazkaria; 12:00etan elkartuko dira Bulen. Bazkarira joateko izena eman behar da eta 20 euro aurreratu behar dira Laboral kutxako 0122986201 kontu korrante zenbakian.

1966KO KINTOEN AFARIA

Abenduaren 14rako antolatu dute afaria, Etxagin. Izen-ematea zabalik dago; Ariznoa tabernan egin daiteke abenduaren 10era arte. 10 euro jarri beharko dira. Afalurretik, 19:30ean elkartuko dira Ariznoan bertan.

Osasun arloko ikastaroak abenduan Agorrosinen

Bi ikastaro antolatu ditu Bergarako Udal kirol zerbitzuak abendura begira. Bata erditze osteko gimnasia ikastaroa izango da, abenduaren 3an, 5ean, 10ean eta 12an. Zoru pelbikoa eta sabeleko giharreak nola indartu erakutsiko dute. Bestalde, bizkarreko minak saihesteko ikastaroa emango dute, abenduaren 2an, 4an, 9an eta 11n. 17 euro ordaindu beharko dituzte Agorrosineko bazkideek, eta ez bazkideek, 22,6 euro. Izen-ematea azaroaren 28an amaituko da.

Amodiozko gutunak idazteko ordua iritsi da hogeita bigarrenenez

Jardunek antolatutako lehiaketara urtarrilaren 7ra arte aurkeztu daitezke lanak

ZURIÑE V.D.M. | BERGARA

Tradizio handikoa da Bergarako Amodiozko Gutunen lehiaketa; eta horren erakusgarria da aurtentzako antolatzen duten 22. aldia dela. Dagoeneko lanak aurkeztu daitezke; urtarrilaren 7a izango da horretarako azken eguna.

Lehiaketako oinarriak

1999an edo lehenago jaiotako edozein lagunek hartu dezake parte lehiaketan. Eta oinarriei dagokienez, lanak originalak, hau da, argitaratu gabekoak izan behar dira eta euskaraz idatzita egon behar dute.

Epaimahaiak erabakia hartuta, 2014ko otsailaren 14an, San Balentin egunean, banatuko dituzte sariak. Lau sari egongo dira, horien artean dago berga-

rar onenarendako saria. "Kasu horretan, baina, 1. go edo 2. saria herriko norbaitek jasoko balu, kategoria honetako hurrengo onenari emango litzaioke". Eta berdin 26 urte azpiko parte hartzaileen mailan ere.

laz ere, arrakastatsua

Urtero-urtero parte hartzea handia izaten da maitasun gutunen lehiaketan. Esate baterako, iazko kasuan, 70 lagun lanak jaso zituzten euskara elkartean; horietatik %70 emakumezkoek idatzitakoak izan ziren.

Eta bitxikeriarik ere egon zen 21. lehiaketan; hain zuzen ere, Ameriketako Estatu Batuetatik bi lan jaso zituztela.

Esan bezala, urtarrilaren 7a izango da lanak aurkezteko azken eguna. Horretarako, gainera, bide ezberdinak daude; esaterako, amodiozkogutunak@gmail.com helbidera bidali daitezke lanak. Informazio gehiago: 943 763 661 eta 943 760 819 zenbakira deituta edo <http://jardun.org> helbidean.

DATUA

500

EURO

Lehenengo saria 500 eurokoa izango da; bigarrena 250 euro; 150 euro bergarar eta 26 urte azpiko onenentzat.

NIRE USTEZ

MARIJE UGALDE

Hezkuntza, etorkizuna

Poza ematen du bost urteko haur bat aurrean izateak, begiak zabalik, belarriak edozer entzuteko prest, ikasteko prest! Hori da irakasle askok esku artean duguna, umeen heziketa. Ze polita, baina ze erantzukizun!

Aitzitik, ez dakit gure agintariak heziketak duen garrantziaz ohartarazten diren. Bizi garen garai ilun hauetan, badirudi hezkuntza atzealdeko furgioan gelditu dela. Murrizketak? Noski, hezkuntza, kultura... horiek ez dute dirurik ematen, gastua besterik ez!

Hainbat disparate artean lehengoan telebistan *aditu* bati entzun nion bezala, "azken urteetan hezkuntzan diru gehiago inbertitu arren ez ditugu emaitza eskolarrak hobetu; beraz, murriz-

ketak egin arren gauzak ez dira gehiegi aldatuko". Halako gauzak entzutean noren eskuetan gauden pentsarazten didate.

Bestalde, askotan Europara begiratu arren, badirudi hezkuntzan *por libre* gabiltzala. Iparreko herrialdeetan irakaslea izateko exigentzia maila oso handia da. Ikastetxe guztiak publikoak dira. Ministro baten semea etorkin batekin batera hezten da. Laburbilduz, hezkuntzak lehenetasuna du, herrialdearen etorkizuna baita.

Aldiz, LOMCEk guztiz kontrako eragingo du. Kalitatezko hezkuntza batzuen pribilegioa izango da. Nire amak esango zuen moduan, karramarruen pare, atzeraka!

Kultura eta jakituria gutxien eskura hobe... Hori izango al da gure agintarien benetako helburua?

"Kultura eta jakituria gutxien eskura hobe..."



Kale Barrian dagoen Kimu loradendak irabazi zuen iazko lehiaketako lehen saria. | GOIENA

Gabonetako Erakusleiho Lehiaketa, seigarrenez

Aurten zazpi sari banatuko dituzte guztira eta sari banaketa abenduaren 21ean egingo dute

OIHANA ELORTZA | OÑATI

Martxan da Udalak eta Txandak antolatutako Gabonetako VI. Erakusleiho Lehiaketa. Herriko denda eta zerbitzu guztiek parte hartu ahal izango dute lehiaketa horretan eta abenduaren 3a aurretik eman beharko dute izena.

Zazpi sari

Parte hartzeko gonbidapenarekin batera, izena emateko orria ere banatuko zaie merkatariari. Orrian eskatzen diren datuak beteta, udaletxean, turismo bulegoan edo Bidebarrieta kalean dagoen sozioekonomia departamenduan entregatu beharko dituzte, beti ere abenduaren 3a aurretik.

Gabonetako Erakusleiho Lehiaketa horretan parte hartzeko baldintzak ez dira apartekoak: batetik, denda edo zerbitzuaren ohiko produktuak ikusgai egon beharko dute erakusleihoan eta

horrekin batera, baita Gabonekin lotura edo erlazioa duten irudiak edo ikurrak ere.

Erakusleihoak abenduaren 8rako apainduta egon beharko dute eta abenduaren 31ra arte, gutxienez, mantendu beharko dira horrela.

DATUA

4.500

EURO

Lehiaketako sariak dirutan emango dira. Guztira 4.500 euro banatuko dituzte emango dituzten zazpi sarietan.

Guztira zazpi sari banatuko dituzte. Horietako sei, epaimahaiak emango ditu, horien artean urtean zehar aldiroko erakusleiho aldaketa eta apainketa tematikoak egin dituenaren saria. Zazpigarren saria, berriz, herritarrek emandako botoek erabakiko dute.

Epaimahaian egongo diren kideak izango dira Gipuzkoako Merkatal ganbara eta dekorazio arloko profesionalak. Kontuan hartuko dute bereziki diseinua, irudimena, orijinaltasuna, argiztapena, gaia eta berrikuntza.

Abenduak 21

Epaimahaia abenduaren 20ean elkartuko da, erakusleihoen balorazioa egiteko eta bakoitzaren iritzia besteekin eztabaidatzeko. Sari banaketa berriz, hurrengo egunean egingo dute, abenduaren 21ean, Santo Tomas egunean.

Txandaren azaroko sarituak

Bezeroaren Hamabostaldia egin du Txandak azaroaren hasieran eta elkarteko negozio ezberdinetan era askotako ekitaldiak egiteaz gain, 50€ eta 100€.tako baleak lortu eman dituzte Txanda.ko sei zigilu lortzeagatik.

30 bezero irabazle baino gehiago izan dituzte eta horietako batzuek talde argazkia atera dute Maibi Dekorazioa eta Ehungintza dendan. Pozik eta irribaretsu ageri dira denak.

Zorionak!



Txandako irabazleak. | TXANDA

NIRE USTEZ

IÑAKI IDIGORAS



Gure hizkeran

Egun gutxin tartian Oñatiko hizkerian inguruan *input* dextente. Aittakin galduko ote dan, Oskarrek intranetian Badihardugu elkartian aditz-taulak eseki, eta Kontzejupetik-en ikastaruan barri.

Tartian, Oihanak lehio hau erabiltzeko proposamena. Bihoztak tau-tau eta eztaurritik baietz. Berihala oñatiarrez egitteko erabakixa. Baten batek zuzendu biharko dost... eta ikastaruan barri jakin ahala, hauxe dokneria!

Komunikabidietan eritzixak dittut gustukuen. Sarri horraitxek bakarrik irakurten dittut. Biharbada batzutan neuk ez dotelako pentsaitteko tarterik

hartzen. Ez behintzat inguruan dakun gai danen inguruan. Sentsibilitate faltia eta ezjakintasuna be bai tartian.

Eta hemen nau, eskribitten, oñatiera (komunika)bide moduan hartuta. Arduria, baina, bide horretatik zer ekarriko dotzuten. Eta erronkia, horretatik zerrek geratuko zaran.

Konformaitten naiz barruan dabittena botatiakin. Poztuko naiz zerbait sentittera illau bazara. Askok, zer pentsaua emun badotzut. Eta sentittu eta pentsaittetik egittera pasaitten bagara, izugarri!

Komunitatian badaku-eta biharra egitteko, sorketako. Ez datoz zain egoteko garaixak. Bai ideak konpartittu eta indarrak batzekua, oin urte asko ez dala, bedar motzak euzenian, egin ebein moduan.

"Komunikabidietan eritzixak dittut gustukoen"

'Kantari' saioko entseguak egingo dituzte hurrengo zapatuan gaztelekuan

O.E. | OÑATI

Goiena Telebistako *Kantari* programako entseguak datorren zapatuan, azaroak 30, egingo dituzte gaztelekuan.

Talde bakoitzak badaki zein den kantatu behar duen abestia eta dantzatu behar duen koreografia, eta etxean landutakoa erreparatuko dute zapatuko

entseguan. Talde bakoitzak aurrez jasoko du zein den entsegu ordua.

Guztira, 8 eta 12 urte bitarteko 100 gaztetxok hartuko dute parte aurtengo *Kantari* saioan, 23 taldetan banatuta. Lau saio grabatuko dituzte Oñatin eta grabazioak abenduaren 14an egingo dituzte gaztelekuan.



ELKAR HEZI

Jolas kooperatiboak Elkar Hezin

Jolas kooperatiboekin jolasean jardun zuten Elkar Heziko 3 eta 12 urte bitarteko hainbat ikaslek eta euren gurasoek joan den martitzenean. Helduekin eta euren seme-alabekin batera lan egitea eta elkarlan estrategiak erakustea izan zen helburua. Bide batez, solidaritatea, partehartzea, ahozko eta ez ahozko komunikazioa eta helburu komunak bilatu eta lortzea ere landu zituzten.

ARETXABALETA / ESKORIATZA

Eraso sexisten aurkako oihua ozen entzungo da gaurko egunez

Gaurko agerraldiak deitu dituzte bai, Aretxabaletan eta baita Eskoriatzan ere

Z.V.D.M. | ARETXABALETA/ESKORIATZA
Emakumeen Aurkako Indarkeriaren Kontrako Nazioarteko Eguna da gaur, astelehena. Eta azken urteetan bezalaxe, aurten ere elkarretaratzea deitu dute, bai Eskoriatzan eta baita Aretxabaletan ere. Aurreneko kasuan 18:00etan izango da, Fernando Eskoriatza plazan; Aretxabaletan, ostera, 19:00etan elkartuko dira, Herriko Plazan.

Eskoriatzako mozioa

Eskoriatzan urrian onartutako mozioan, herritar guztiei gonbita egin zieten, "bereziki herriko neska-mutil gazteei", azaroaren 25a dela eta antolatutako ekitaldietan era aktiboan parte hartzea. Mozioan, gainera, zenbait puntu jasotzen ziren, tartean, azken urteetan emakumezkoen eta gizonezkoen arteko harremanetan aldaketak eman diren arren,



'Hitzak' antzezlana ikusteko aukera egongo da gaur Aretxabaletan. | HIKA

oraindik gizartean sustraitutako desberdintasunetan oinarritzen direla ekartzen zuen gogora. "Ematen diren erasoak horren daude normalizatuta, neska gazteek nekez antzeman ditzaketela".

Indarkeria motak agerian uztea funtsezkoa ikusten dute, baita hezkuntza afektibo-sexuala izatea, gazteek errespetuan eta berdintasunean oinarritutako sexualitate garatu dezaten.

Batzar berezia Aretxabaletan

Bestalde, Aretxabaletako udalbatzak batzar berezia egingo du gaur, astelehena. Bertan, EH Bilduk mozio bat aurkeztuko du egunaren harira. Besten artean, Aretxabaletako Udalak hartutako hainbat konpromiso aipatzen dira; esaterako: berdintasun politikak garatzeko baliabideak urteko urtera indartzea; jai-giroko erritu sinbolikoetan eta eremu soziokulturaletan emakumeen parte hartzea sustatzeko; emakumeen ahalduntzea sustatzeko eremu komunak sortzea edo indartzea.

'Hitzak' eta berbaldia

Gaur Aretxabaletan arituko da Hika teatro taldea eta *Hitzak* antzezlana eskainiko du 19:30ean hasita Zaraqian Hiru emakume eta gizonezko bat. Hitzez hitz, zorionetik zorigailtzera igaroz, eta hortik zoramenera. "Hitz zaurigarriez, hitz iraingarriez, gutxietan duten hitzez hitz egiteko".

Bestalde, eta azaroaren 25aren harira, *Nola prebenitu gazteen artean indarkeria sexista?* berbaldia antolatu dute. Bihar izango da, eta 19:00etan hasiko da, Arkupen.

NIRE USTEZ

MARIJO PAGALDAI



Denboraren balioa

Bizi garen leku honetan, zein balio du denborak?

Mundu psikologikoan denbora tarte batean gauza handiak imajinatu, pentsatu eta sentitu ditzakegu, eta mundu horretan errealak eta benetakoak dira. Baina eguneroko bizitzan, ideia, sentimendu horiek errealizatu ikustea espero dugunean, konturatzen gara ez direla beti bat etortzen pentsatzen, hitz egiten edo sinesten dugunarekin. Denbora behar dute egunerokotasunean finkatzeko eta egia bihurtzeko eta horregatik behar ditu erreplikapena, saiartzea behin eta berriro, pazientziarekin eta itxarotea.

Gaur egunean, komunikabideek informazioa eta ideia berriak azkar jasotzeko aukera ematen diguten garaian, gure imajinazioa eta sortzeko askatasuna oso agerian daude eta uste dugu hori nahikoa dela errealitate bihurtzeko. Eta horrela ez diogu geure bizitzan espaziorik eta denborarik uzten behar bezala garatzeko eta benetakoak egiteko.

Neure esperientziak baieztatu dit garrantzitsua dela lekua eta denbora ematea ere isiltasun tartei, espazio "hutsei", itxaronaldiei, itxuraz "ezer ez egiteari", "ez jakiteari"; izan ere, momentu horiek geure asmo edo helburuei agertzeko, kokatzeko, prestatu eta zuztarrak hartzeko lekua ematen diete.

Horrela denborarekin garatu eta egiazkoak bihurtu litezke.

"Garrantzitsua da lekua eta denbora ematea isiltasun tartei"

ESKORIATZA

Bosgarren frontenis txapelketa egingo dute abenduan zehar

Z.V.D.M. | ESKORIATZA

Frontenisean jokatzeko gustuko dutenek Eskoriatzan izango dute norgehiagokan aritzeko aukera. Izan ere, abenduaren 7an, 8an, 14an eta 15ean txapelketa egingo dute frontoian.

Ez da antolatzen duten aurreneko aldia izango; bosgarren urtez

egingo baita aurten buruz buruko txapelketa. Izen-ematea hilaren 30ean amaituko da, eta 10 euro ordaindu beharko dira.

Bide ezberdinak daude horretarako: Inkernu tabernan, Kiroldegian egin daiteke, baita *frontenis.eskoriatza.13@gmail.com* helbidera idatzita.

ESKORIATZA

Euskararen Eguren aitzakiaz antolatutako bertso-bazkarirako txartelak salgai ipini dituzte

Euskararen Eguna abenduaren 3an da eta Hankamotx bertso-eskolak egunaren aitzakiarekin zapatu honetarako, hilak 30, Arkaitz Estiballes eta Oihane Bartra bertsolariekin girotutako herri bazkaria antolatu du. Txartelak Gozo txiki, Aldatz eta Inkernun daude salgai, 10 eurotan. Bazkari aurretik bertso-kalejira egingo dute (13:00) eta arratsaldean, Mihiluze erraldoia.

Eguaztenean ehizari buruzko berbaldia eskainiko du Asier Arresek batzokian, 19:00etan hasita

Eguaztenean, azaroak 27, berbaldia eskainiko du Asier Arresek, batzokian. Eskoriatzako EAJ alderdiak gonbidatuta bertaratu ko da Arrese, eta berba izango duen gaia, *Ehiza Gipuzkoan eta Debagoienean* izango da. Berbaldia 19:00etan hasiko dela eman dute aditzera. Gipuzkoako Aldundiko Mendi eta Ingurumen zuzendari ohia da Arrese.

ARETXABALETA

Josu Zubiaren pop eta folk doinuaren txanda izango da eguen honetan Ostegun Akustikoak lehiaketan

Azkaiter Peloxen ostean, Josu Zubiaren txanda izango da Ostegun Akustikoak lehiaketan. Expres tabernan joko du eguen honetan, 21:30ean hasita. Oñatiarrak bere lehenengo lana kale-ratu berri du eta bertan pop eta folk doinuak nagusitzen dira. Hilaren 28ko emanaldian publikoaren arreta bereganatzen saiaturko da; izan ere publikoaren ardura da lehiaketa honetan epaimahai moduan aritzea.

ARETXABALETA

102 kandela Joxepa Errastirentzat

Joxepa Errastik egubakoitzean 102 urte bete zituen eta familia eta lagun giroan ospatu zuen, argazkian ikusten denez. Ia mende erdiz Burgales jatetxea gobernatu zuen eta oso ezaguna da herrian. Zorionak!



Z.V.D.M.

ARETXABALETA

Santa Zezilia ospatu ostean, musika eskolako irakasleek aldarrikapen kalejira egingo dute bihar

Z.V.D.M. | ARETXABALETA

Santa Zezilia bezperan, abenduaren 21ean, kalera irten ziren Leizarra musika eskolako ikasleak. Herriko Plaza hartuta, euren eguna zela argi utzi zuten. Bandakoak, solfeoko umeak eta musika tailerrekoak irten ziren kalera, eta bi astetan zehar ikasitakoak praktikan ipini zituzten.

Aldarrikapen kalejira

Bihar, 17:00etan hasita, aldarrikapen kalejira egingo dute Durana kalean zehar. Modu horretan, musika eskolako irakasleek protesta egin gura dute: "Gure lan baldintzak erregulatzeko enpresa paktua egin genuen, gorabeherak bideratuko zirelakoan, baina ez da horrela izan".



Eguenean eskainitako emanaldia. | JOKIN MUJIKA

ARAMAIO

Konpromiso "irraoa" du Udalak indarkeria matxista "errotik" ezabatzeko

Elkarretaratzea antolatu dute gaurko, Emakumeen Aurkako Indarkeriaren Kontrako Eguna dela-eta; Bizente Goikoetxea plazan izango da, 19:00etan

JOKIN BEREZIARTUA | ARAMAIO
Emakumeen Kontrako Indarkeriaren Aurkako Eguna da gaur eta Udal Gobernuak legealdi hasieratik erakutsi duen moduan, konpromiso "irraoa" du "gizarteko gaitz" den indarkeria matxista "errotik" ezabatzeko, ahalik eta instituzio eta norbanako gehienekin. Oharkabean pasatzen diren jarrera matxistak nabarmentzen dituzte azaroaren 25a dela-eta argitaratutako adierazpenean: "Indarkeria matxistak askotariko

aurpegi eta adierazpenak dauzka, eta emakume guztiei eragiten die bizitza osoan zehar. Ikuspegi horretatik begiratuta, eraso matxistak ez dira gizon gutxi batzuen jokabide soilak, emakumeen eta gizonen elkarrekiko bizitza antolatzeke eraikitako eredu baten parte baizik".

Indarkeria matxista justifikatzen duten bitartekoei ere erreparatu diete: "Erljioak, hizkerak, komunikabideek, familiak eta hezkuntzak zeresan handia

dute indarkeria matxistaren legitimazioan".

Konpromisoan sakontzea

Alor honetan "beharrezko" ikusten du Udal Gobernuak politikarien eta herritarren adostasunean eta konpromisoan sakontzea: "Batera bizitzeko guneak sortzea, non emakumeek indarkeria matxistatik aske bizitzeko aukera izango duten". Gaur elkarretaratzea deitu du Bizente Goikoetxea plazan, 19:00etan.



Tailer feministan parte hartu zuen taldea Alaitz Mañesekin. | LZ

ELGETA

Gustura autodefentsa feministari buruzko tailerraren ostean

Emagin elkarteko Alaitz Mañesek egindako saioa motza egin zitzaizen parte-hartzaileei

LARRAITZ ZEBERIO | ELGETA

Lau ordu pasatxoko tailerra gidatu zuen zapatu goizean Emagin elkarteko Alaitz Mañesek Elgetan. Adin ezberdinetako hogeit bat emakume izan zituen parte hartzen, eta taldean eraso sexistak zer diren, nola identifikatu daitezkeen, eta zer nolako erantzuna eman daitezkeen izan zuten hausnarketa-rako gaia.

Lau orduko tailerrean Alaitz Mañesen helburuetako bat parte-hartzaileek segurutzat joko zuten espazio bat sortzea zen: "emozioez eta bizipenez lasai hitz egiteko", adierazi zuen. Gustura aurkitu genuen dinamizatzaile tailerraren amaieran. "Pozik nago ekimenak

Elgetan izan duen harrerarekin, baita gaurko saioak emandakoarekin ere", esan zuen.

Parte-hartzaileak ere pozik

Parte-hartzaileei galdetuta saioa interesgarria izan zela adierazi zuten. "Gehiagotan etorri beharko luke, oso interesgarria izan da", adierazi zuen emakumeetako batek amaieran.

Aurreratu moduan, autoestimua asko landu zuten, eta gaiarekin lotuta etorkizunean ere baliagarriak izango zaizkien nozioak eman zizkien Mañesek parte-hartzaileei. "Autodefentsa feministak, zoritxarrez, autodefentsa pertsonalak baino publikitate txikiagoa du", esan zuen dinamizatzaileak.

ANTZUOLA

Karta txapelketa egingo dute erretiratuaren elkartean

Gaur zabalduko dute izena emateko epea eta egubakoitza baino lehen eman beharko da

IURE EIZAGIRRE | ANTZUOLA

Azaroko programaren barruan, karta txapelketa antolatu du Landatxoep erretiratuaren elkarteak. Baina txapelketa bera ez da azaroan izango, abenduan baizik, hilaren 2tik 5era.

Izen-ematea, ordea, hilabete honetan izango da. Gaur irekiko da horretarako epea eta txapelketan parte hartu nahi dutenek egubakoitzera arte eman ahal izango dute izena erretiratuek Torresorua eraikinean duten egoitzan.

Euren abilezia erakusteko, ohiko karta jokoetan ariko dira Antzuolako erretiratuak: musean, punttuan, tutean eta briskan.

Bestalde, hilabete honetako ekintzen barruan, manifestazioa egingo dute aste honetan. Egue-nean izango da eta euren pent-

sioak defendatzeko batuko dira Herriko Plazan. Beste herri batzuetan ere egingo dituzte manifestazioak, eta, haiekin bat egiteko, hasieran aurreikusitako ordua aldatu egin dute. Landatxoepo kideak 19:00etan elkartzeko dira.

Bazkide kanpaina

Diru laguntza murrizketek denei eragiten diete, eta, pentsioen gainbehera dela eta, Landatxoep erretiratuaren elkarteak bazkide berrien kanpaina jarri zuen abian duela aste batzuk. Jende gehiagorekin administrazioei presio handiagoa egin ahal izango dietela uste dute elkarteko ordezkariak. Egun, 310 kide dira eta elkartean sartu nahi dutenek nahikoa dute zuzendaritza-batzordeko edonori jakinaraztea.



YOLANDA SILLERO

Aramaioko eta Bergarako trikitilarien kontzertua

San Martin Eguna ospatzeko, Aramaioko eta Bergarako trikitilariak kontzertua eskaini zuten hilaren 15ean Kultur etxean: "Emanaldia ikusleen gustukoa izan zen eta gero giro ona jarri genuen plazako pintxo-potean", diote. Zerbaki saridunak hauexek izan ziren zozketan: asteburua nekazal etxean (1807), urdaiazpikoa (1810) eta gazta (0797). Saria jasotzeko deitu 615 793 157 telefono zenbakira, abenduaren 31a baino lehen.

LEINTZ-GATZAGA

Baserriak erabiliko dituzte atzera ere 2014ko egutegia ilustratzeko

Gabon bezperan banatuko dizkiete egutegia herritarrei, baserriz baserri eta udalerrian

UBANE MADERA | LEINTZ GATZAGA

Azaroa bukatzeaz dagoen honetan, Leintz Gatzagako Udalak badihar-du datorren urteko egutegia prestatzen; herritarren artean banatzen duen egutegia, alegia. "Orain artekoari jarraipena emanez, Gatzagako baserriekin ilustratzen segituko dugu 2014ko egutegia. Banaka batzuk falta dira guztien

errepassoari bukaera emateko", adierazi du Iñaki Agirreurretak, Kultura zinegotziak. "Goierrri zein Olaun auzoetako, bietako baserriak falta dira, baina aurten Olaun aldera joko dut", gaineratu du.


Hain zuzen, falta diren baserri horien argazkiak ateratzeko dituela jakinarazi du Iñaki Agirreurretak, hori egin ahal izate-

ko "eguraldia apur bat argitzeko" zain dago-eta zinegotzia.

Gabon bezperan

Kontuak kontu, Gabonetarako gertu izan behar du egutegia, Gabon bezperan, abenduaren 24an, baserriz baserri Leintz Gatzagako ume eta nagusien kantu-bisita aprobetxatuko dute-eta baserri guztietan eta herrian egutegia banatzeko. 200-300 ale aterako dituzte horretarako. Eta banaketa egin ostean, ale batzuk Udalaren esku geratzen direla kontuan hartuta, norbaitek ale bat baino gehiago nahiko balu, bada, udaltxean eskatzeko aukera dagoela esan du Agirreurretak.

Ez zaitez galdu.



EROSKETAK DEBAGOIENEAN EGIN!

... eta hartu parte
20 euroko
100
erosketa-bonuren
zozketan



DEBAGOIENeko MANKOMUNITATEA

goiena
KOMUNIKAZIO TALDEA



KIROLA

BOULDER

Mendieta arrasatearra eta Anda, txapeldun

- ▶ Aretxabaletan jokatu da Euskal Herriko boulder txapelketa
- ▶ Adinaren arabera lau mailatan lehiatu dira eskalatzaileak

MIREIA BIKUÑA | ARETXABALETAN

Markel Mendieta arrasatearra eta Irati Anda gasteiztarra dira elite mailako Euskal Herriko boulder txapeldunak. Biek ala biek, erakustaldia egin zuten Aretxabaletan jokatuako txapelketan. Finaleko blokeetan serio eta fin ibili ziren eta horrek erraztu zien txapela janzteko bidea. Biek egin zituzten hiru *top*: blokearen goreneraino heldu ziren.

Hasieratik buruan

10 eskalatzaile sailkatu ziren elite mailako finalerako: Irati Anda, Leire Tapia, Zuriñe Arrue eta Ane Mujika nesketan; eta Gorka Karapeto, Antton Zabala, Iñaki Arantzamendi, Iban Larrion, eta Markel Mendieta eta Markel Velasco arrasatearrak mutiletan.

Banaka irten ziren blokeak zeuden gunera. Bost bloke zituzten igotzeko, eta bost minutuko denbora bakoitzerako. Eskalatzailerik bat blokean lanean zegoen bitartean, gainerakoak beroketak egiteko gunean zeuden. Guztiak kantxara irten zirenean, ezin zuten blokea ikusi lanean hasi aurretik.

Hala, bizkarra emanda itxaron behar zuten euren txanda.

Mendietak, Karapetok, Larrionek eta Arantzamendik egin zuten *top* lehen blokean; Irati Andak, Zuriñe Arruek eta Ane Mujikak ere bai. Azken horiek baita bigarren blokean ere. Hirugarren blokean Anda eta Arrue heldu ziren goraino, eta azken bietan euren arteko lehia hil ala bizikoa izan zen. Bonus gehiago lortu izanagatik irabazi zuen Andak.

Lau 'top'-a jarraian

Mutilen txapelketako bigarren blokean abantaila hartu zuen Mendietak. Aretoa lepo bete zuten zaleek animoekin, goraino heldu zen bakarra izan zen arrasatearra. Hirugarrenean ere ez zuen hutsik egin. Harekin batera egin zuten *top* Karapetok, Larrionek eta Velasco arrasatearrak.

Laugarren blokea bukatuta, garbi geratu zen nork jantziko zuen txapela: Markel Mendieta bidearen gorengo puntura heldu zen lehen saiakeran. Arrasatearrarekin lehian zeuden Karapetok eta Larrionek ez zuten *top*-a egin. Bosgarren blokean heldu orduko finala erabakita zegoen.

Etorkizuneko eskalatzaileak

Elite mailako parte-hartzaileen aurretik, etorkizuneko eskalatzaileen finalak ikusi genituen. Elite mailako txapela gurean geratu zen moduan, 16 urtez azpikoa ere Debagoienean geratu zen; Bergaran hain justu: Mikel Linazisorok jantzi zuen. Era berean, 20 urtez azpiko nesketan Mirian Mulas arrasatearra bigarren sailkatu zen.



Markel Mendieta arrasatearra finaleko hirugarren blokean. | MIREIA BIKUÑA



18 urtez azpiko neska bat finaleko blokeetako bat hasten. | JOSETXO ARANTZABAL



Irati Anda finaleko azken blokean, 'top'-a egin g.

SAILKAPENA

ELITEAK

MUTILAK

1. Markel Mendieta
2. Gorka Karapeto
3. Iban Larrion

NESKAK

1. Irati Anda
2. Zuriñe Arrue
3. Ane Mujika

20 URTEZ AZPIKOAK

MUTILAK

1. Ibai isusi
2. Mikel Madinabeitia

NESKAK

1. Beñat Murua
1. Itziar Zabala
2. Mirian Mulas
3. Ilargi Perez

18 URTEZ AZPIKOAK

MUTILAK

1. Mikel Inoriza
2. Mikel Gartzia
3. Oier Coria

NESKAK

1. Jone Ugartemendia
2. Irati Musitu

16 URTEZ AZPIKOAK

MUTILAK

1. Mikel Linazisoro
2. Martin Urrutia
3. Bittor Esparta

NESKAK

1. Andre De Goñi
2. Marta Camara
3. Muriel Ruiz de Laramendi

DATUA

81

PARTE-HARTZAILE


Horiek izan ziren zapatuan txapelketan parte hartu zutenak. Adinaren arabera lau mailatan banatu zituzten.

Gazteer

24 | ARRASATE FUTBOLA | Mondrak Tolosa menderatu zuen Mojategin: 4-0



uran. | MIREIA BIKUÑA



n finalerako eskalataile bat. | MIREIA BIKUÑA

MARKEL MENDIETA | ELITE MAILAKO TXAPELDUNA

"Ezusteko garaipena izan da; gutxi entrenatuta nentorren, baina..."

Pozik zegoen arrasatearra: irribarritsu eta zaleen eta beste eskalataile batzuen zorion agurrak jasotzen.

Zorionak. Euskal Herriko txapelduna zara.

Ezusteko txapelduna. Azkenaldian gutxi entrenatu dut, eta ez nekien zer nolako maila emango nuen. Baina, presio gutxirekin, hobeto moldatzen naizela ikusi dut. Ezusteko txapela da, baina oso pozik nago. Gogor entrenatu naizen urteetan lortu ez dudana guztia konpentsatzen du txapelak.

Zer nolako finala izan da?

Lasai eskalatu dut. Barruan nuen dena atera, eta ahal dudana ondo egin dut. Lehenengo blokean goraino heldu naizela ikusita, lasaitu egin naiz.

Lau blokeetan egin duzu top-a, gainera.

Lehenarekin lasaitu egin naiz, eta besteekin animatu. Ni kontzentratua egon naiz, eta ez nekien



M.B.

ziur beste finalistak zertan zebiltzan. Dakidana da, gaur, punta-puntako eskalataileak egon direla hemen. Euskal Herriko onentzuenak. Erakustaldi itzela egin dute guztiek

Txapela jantzita, gogor entrenatzen hasteko gogoa piztuko zaizu berriro?

Laster langabezia geratuko naiz, eta gogor entrenatzen hasiko naiz berriro [barre].

IRATI ANDA | ELITE MAILAKO TXAPELDUNA

"Lehen blokean goraino heldu naizela ikusita, lasaitu eta motibatu egin naiz"

Gasteiztarrak erakustaldia egin zuen finaleko lehen hiru blokeetan. Baina sufritu behar izan zuen txapela jantzi arte.

Final ikusgarria egin duzu. Zorionak!

Arratsaldeko saioa askoz hobea izan da. Goizean ez naiz gustura ibili, eta akaso horregatik irabazteko aukera gutxirekin ikusi dut nire burua. Finalean gustura ibili naiz. Bero handiagoga egiten zuen aretoan, eta gorputza ere ondo berotu dut. Oro har, lan ona egin dudala esango nuke. Aurkari indartsuak izan ditut, eta horrek meritu handiagoga ematen dio buruan dudana txapelari.

Lehenengo hiru blokeetan top-a eginda, lasaitu egin zara?

Bai. Finala hasi eta lehen blokean goraino heltzen zarela ikusita, motibazioa handitu egiten da. Banekian lan ona egin behar nuela. Finaleko beste lehiakideak oso indartsuak dira.



M.B.

Nolako finala izan da?

Zuriñe eta Ane oso ondo ezagutzen ditut. Zuriñek maila itzela erakutsi du gaur eta bien arteko lehia oso estua izan da bukaerara arte. Anek ere lan ona egin du lehen bi blokeetan. Leire ez nuen horrenbeste ezagutzen, eta akaso, gaur, maila bat beherago egon da. Baina, esango nuke, maila handiko finala izan dela. Ikusgarria aretoa bete duten zaleendako.



AUKERAZKO IBILGAILUAK SALGAI



> Dacia Sandero

- 2012
- Gasolina
- 3.560 Km
- Grisa



7.950 €

San andres auzoa 8 • ARRASATE • 943 71 24 72

• Renault Kangoo	10.800 €
2011 Diesela 19.340 Km Txuria	
• Renault Kangoo Furgoa	7.500 €
2011 Diesela 107.000 Km Txuria	
• Renault Megane Sport Tourer	13.500 €
2011 Diesela 11.037 Km Beige	
• Renault Clio	8.950 €
2010 Diesela 23.856 Km Urdina	
• Renault Clio Grand Tour	10.750 €
2012 Diesela 17.155 Km Grisa	
• Renault Twingo	8.450 €
2011 Diesela 9.654 Km Beltza	

> Citroën C4 Aircross 1.8 HDi Exclusive 2WD 150

- 2012
- Diesela
- 10.450 Km
- Marroi iluna

CHAPIME



29.000 €

San Andres auzoa 5 • ARRASATE • 943 79 45 22

• Citroën Berlingo Combi 1.6HDI XTR 90	10.750 €
2008 Diesela 112.000 Km Horia	
• Citroën C2 1.4i Collection	5.200 €
2007 Gasolina berungabea 78.500 Km Gris argia	
• Citroën C3 1.4HDI Business	8.000 €
2011 Diesela 31.000 Km Gris argia	
• Citroën C4 1.6 VTI Collection	11.600 €
2012 Gasolina berungabea 8.900 Km Gris iluna	
• Citroën C4 Grand Picasso 1.6e-HDI Millenium CMP	16.000 €
2012 Diesela 35.574 Km Urdin argia	
• Citroën C4 Grand Picasso 1.6e-HDI Millenium CMP	16.000 €
2012 Diesela 31.443 Km Gris iluna	
• Citroën Elysée 1.2 VTI Exclusive 70	11.000 €
2013 Gasolina berungabea 10 Km Gris iluna	
• Citroën C4 eHdi EXCLUSIVE 115	19.000 €
2013 Diesela 450 Km Zuria	
• Ford FT Tourneo 200 S Connect 75	4.300 €
2005 Diesela 129.456 Km Zuria	

ERREGIONAL PREFERENTEA

Mondraren gol festa Mojategin

Gontzon Urtzelaren taldeak aise menderatu zuen Tolosa atzo arratsaldean; Gorka Dueñas, Txonan, Xabier Arrizabalaga eta Aitor Iregi izan ziren golegileak, partidu gogor eta indartsu baten

EMAITZA

MONDRA

4-0

TOLOSA

FITXA TEKNIKOA

Mondra: Aritz Ezpeleta, Markel Bazanbide, Jon Zabaleta, Jokin Mujika, Aitor Iregi, Andoni Uribealago, Mikel Aizpurua, Gorka Dueñas, Txonan, Xabi Arrizabalaga eta Aitor Azkarate.

Tolosa: Garmendia, Igartua, Ezkerro, Azpiroz, Etxeberria, Alvarez, Alkorta, Capa, Arrieta, Diez eta Gil.

Epailea: Xabier Perez Matxinek zuzendu zuen Erregional Preferenteko Mojategiko partidua.



Mondrako eta Tolosako jokalariek bana, baloia buruz kontrolatu guran. | JOSETXO ARANTZABAL

MIREIA BIKUÑA | ARRASATE

Mondrak talde gaztea dauka. Gaztea eta fidagarria aldi berean. Lehen zatian egindako lehen bi gol aukerak baliatu zituen markagailuan aurretik ipintzeko. Bi aukera, bi gol. Matematika kontuak. Abantaila horrekin, askoz lasaiago jokatu zuen Tolosaren kontra. "Lehen bi golak une erabakigarrietan sartu ditugu. Beste itxura bat hartu du partiduak", esan zigun Gotzon Urtzelaiak.

Eta une erabakigarri horiek 25. eta 41. minutuetan etorri ziren. Lehenengo gola Gorka Dueñasek sartu zuen. Arrizabalagak kornerra erdiratu eta Dueñasek areaz kanpoko jaurtiketa indartsua egin zuen. Bigarrena aldiz, Txonanek sartu zuen, Dueñasekin bat-bikoa egin ostean.

Tolosa ez zen Mondraren areara hurbildu lehen zatian, baina zelai erdi indartsua duela erakutsi zuen Mojategin.

Laugarrena buruz

Bi goleko abantaila izan arren, borrokatzen jarraitu zuen. Bigarren zatia zoroagoa izan zen. Euri zaparrada handiak bota zituen, eta baloia azkar mugitzen zen zelaian.


Bigarren zatiko lehen 20 minutuetan baloia aurrera eta atzera ibili zen. Kontrol barik.

68. minutuan erabakita utzi zuen partidua Mondrak hirugarren golarekin. Xabi Arrizabala-

ga izan zen golegile. Tolosaren defentsak huts egin zuen baloia aldaratzerakoan eta arrasatearrak aprobetxatu zuen.

Atzo arratsaldeko gol festako golik politena azkena izan zen. Xabi Arrizabalagak kornerra erdiratu, eta Aitor Iregik buruz sartu zuen gola. Ederra izan zen.

Lehia erabakita zegoela, Tolosak baloia jaurti zuen zutoinera azken minutuetan.



MIREIA BIKUÑA

GOTZON URTZELAI
ENTRENATZAILEA

"Lehen zatian Tolosa gu baino hobeto egon da; baina golak guk sartu ditugu"

Pozik eta gustura zegoen Gotzon Urtzelai garaipenarekin. Hiru puntu gehiago.

Emaitza zabalegia agian? Zabalegia ez dakit. Baina, garbi esan gura dut bi taldeen artean ez dela horrenbeste-rako alderik egon. Lehen zatian Tolosak guk baino hobeto jokatu du, baina ate aurrean fin ibili gara. Bigarren zatia zoroagoa izan da. Baloi luzee-kin jokatzera behartu gaituzte eta ezin izan dugu gure jokoa egin. Baina azken metroetan zorte handia izan dugu.

Taldea sailkapeneko goiko lekuetan sartu da. Lasaiago lan egiteko bidea emango du horrek.

Zalantza barik, bai. Goian gaude eta oso pozik. Baina, liga txapelketa oso luzea da. Emaitza txar pare bat izanda, zuloan sartzen zara eta alde-rantziz. Partiduz partidu joan behar dugu.

OHOREKO ERREGIONALA



JOSETXO ARANTZABAL

Antzuolak Zarautz menderatu zuen: 2-1

Antzuolak sendo jarraitzen du Ohorezko Erregional Mailan, eta zapatuan Zarautz menderatu zuen Estalan: 2-1. Partidu hasiera nahiko parekatua izan zen. Bada, Antzuolak, lekua topatu bezain pronto lehenengo gola sartu zuen. Korner erdiraketa baten buruz errematatu zuen Iñaki Agirrek. Antzuolaren bigarrena Oinatz Agirrek sartu zuen 75. minutuan. Zarautzaren gola 90. ean heldu zen.

OHOREKO ERREGIONALA

Bergarak garaipena eskura izan zuen, baina puntu bakarra lortu zuen Ostadar taldearen zelaian: 1-1

Bergarak bana berdindu zuen Ostadarren kontrako partiduan. Lehenengo zatian bi gol aukera garbi izan, baina atsedenera golik sartu barik heldu ziren. 60. minutuan sartu zuen bergararren gola Markelek eta 75. ean berdindu zuen Ostadarrek. 93. minutuan penalti garbia egon zen Ostadarren arean mahoneroen alde, baina epaileak ez zuen ezer adierazi.

OHOREKO ERREGIONALA

Sailkapeneko zulotik irteten hasteko puntu garrantzitsua lortu zuen Aretxabaletak Ondarroan

Aretxabaletak urrezko puntu bat lortu zuen Aurreraren zelaian (1-1). Ondarroako taldea aurreratu zuen markagailuan lehen zatian. UDA gainera, jokalariek bat gutxiagorekin geratu zuen 50. minutuan. Orduan atera zuen Aretxabaletak barruan zuen gaitasuna, eta lehia berdindu zuten, Julen Arriak sartutako golari esker. "Sailkapeneko zulotik irteten hasteko puntua izan daiteke. Oso garrantzitsuak dira guretako", esan zigun Igor Arenatzak.

OHOREKO ERREGIONALA

Hirugarren mailako filialaren kontrako lehia irabazi zuen Aloña Mendik Azpeitian, joko ona eginez: 1-3

Aloña Mendik puntu garrantzitsuak irabazi zituen Lagun Onakek kontra. Joko ona egin eta gol aukera asko sortuz, aise menderatu zuen Andoni Azkargortaren taldeak Hirugarren Mailan diharduen taldearen filiala. Iker Olalde eta Asier Ugartek sartu zituzten lehen bi golak lehen zatian, eta Haritz Garmendiak hirugarrena, penaltiz, bigarrenetan. Aloñak partidu ona jokatu zuen, sailkapeneko azken taldearen kontra.



Ford Mugarriko Kepa Gruzeta jaurtiketa egiteko gertu. | JOSETXO ARANTZABAL

ESKUBALOIA

Lehia gogorra irabazita, mugarik ez duela erakutsi zuen, beste behin, Ford Mugarrik

Epaileen erabakiei esker hiru txartel gorri ikusi arren, arrasatearrak Trapagaranen kontrako partidua irabazteko gai izan ziren zapatuan

EMAITZA

FORD MUGARRI

25-22

TRAPAGARAN

MIREIA BIKUÑA | ARRASATE

Ford Mugarrik ez dauka mugarik. Talde berria da Lehen Nazional mailan eta mota guztietako partidua irabazten dakiela erakutsi du. Zapatuan lehia gogorra jokatu zuen Trapagaranen kontra, baina partiduari aurpegia galdu barik, irabazteko gai izan zen. "Taldea bizkaitar guztiak dira oso gogorak. Trapagaranek fitxaketa asko egin ditu, eta esperientziadun jokalariek ditu. Baina, guk itxura oso ona eman dugu eta oso pozik nago taldeak egindako lanarekin", esan zigun Pablo Gartzia entrenatzaileak.

4-5 goleko errenta

Partidua hasieratik bukaerara menderatu zuten etxeok. Atsedenean 10-6 zeuden aurretik. Lehia osoan zehar 4-5 goleko errenta izan zuten beti. Defentsa sendoa-

rekin -azpimarratzekoa Asier Valle atezainak egindako lana- eta eraso bortitzarekin, mailako talde indartsuenetarikoa dela erakutsi zuen.

Trapagarani aurre egin behar izan zioten, eta baita epaileen lanari ere. "Hiru txartel gorri ikusi ditugu. Epaileek ez dituzte jokaldiak hasieratik moztu eta asko gogortu da lehia. Dena den, erabat harrituta nago nire taldeak erakutsi duen jarrearekin. Kontzentratuta jokatu dugu hasieratik bukaera, eta hori ez da erraza Bizkaiko taldeen kontra; eta are gutxiago, epaileen erabakiak oso zuzenak ez direnean", esan zigun Gartzia.

Dagoeneko 15 puntu dituzte arrasatearrek. Eta hori baino hobea dena: gainerako talde guztiendako lehen lekuan bukatzeko hautagai nagusi bilakatu dira.

SASKIBALOIA

Azken zortzi minutuetan eman zion buelta markagailuari Mondragon Unibertsitateak

EMAITZA

MU

68-63

TABIRAKO BAQUE

gailuan. "Baina, guregan konfiantza izan dugu beti eta horrek lagundu digu markagailuari buelta ematen", esan zigun Larreategik. "Gure aurpegi onena erakutsi dugu", gaineratu zigun.

M.B. | ARRASATE

Denboraldi serioa egiten dihardu Mondragon Unibertsitateak. Mailako arerio indartsuenen kontra irabazteko gai dela erakutsi du. Sufritzen badakiela ere bai; eta kontra duen emaitzari buelta ematen ere: 32 minututan Tabirako Baque taldeak agindu zuten marka-

"Jokalariek zoriondu ditut"

Durangoko taldeak motel hasi du denboraldia, baina talde indartsua da. "Taldea konplikatu da, jokalariek oso onak direlako. Elkar ondo ezagutzen dugu, eta horrek asko zailtzen ditu halako partidua. Jokalariek zoriondu ditut egindako lanarengatik", zihoen Larreategik.



Muko jokalariek entrenatzailearen aginduak entzuten. | JOSETXO ARANTZABAL

FITXA TEKNIKOA

Ford Mugarri: Valle, Xabi (3), Andoni (2), Nestor (4), kepa, Josu (4), Isasmendi (5), Pello (2), Unai (4), Jon, Iker eta Mikel (1).

Trapagaran: Alonso, Diez (2), Fernandez (7), Gutierrez, Herrero, Lafuente (6), Pardo, Rincon, Rodriguez, Santos, Somavilla (2), Villada (4), Yerro, eta Garachana.

PILOTA

Gipuzkoako txapelketako finalak Bergaran

Nagusien Ohorezko mailako finalak Bergaran jokatu zituzten egubakoitzean. Banakako finalean Bilbaok 22-7 menderatu zuen Erostarbe; eta binakakoan berriz, Santxo-Urrusola bikoteak irabazi zuen Larrañaga-Murgiondoren kontra (22-8). Bestalde atzo, Beñat Rezustak profesionaleko partidua jokatu zuen etxean Xalarekin bikote eginez. 22-19 galdu zuten Titin-Zubietaren kontra.



JOSETXO ARANTZABAL



JOSETXO ARANTZABAL



Hanka Labanakako eta Dragons-eko neska-mutikoak. | JOSETXO ARANTZABAL

Hockey-ak badu lekua Debagoiengan

Dragons-ek 4-9 irabazi zuen Hanka Labankako neska-mutikoen aurkako norgehiagoka

JAGOBA DOMINGO | ARAMAIO

Partidu bitxi zein ikusgarria jokatu zen atzo goizean Aramaio-ko kiroldegian.

Patinak, kaskoak, eskumuturrekoak eta belaunetakoak jantzi eta stick-a hartu ondoren, hockey-an jokatzen hasi ziren Hanka Labankako eta Dragons taldeko gaztetxoak. Ribabellosatik etorri zen Dragons taldea, bigarren Hanka Labankakoen aurkako lagunarteko partidua jokatzeko, eta garaipena Araba aldera eraman zuten; izan ere, 4-9 galdu zuten etxekoek.

Hala ere, garaipena lortzea gutxienez zen atzo. Duela urtebete inguru hasi ziren domeketan hockey-an entrenatzen Aramaio-ko kiroldegian Hanka Labankako gaztetxoak. Aramaio eta Bergarako neska-mutikoak patinen gainean ondo defendatzen direla argi zuten atzo, eta partidua galdu arren, itxura ona eman zuten Aramaio-ko kiroldegian.

Lehenengo gola etxekoentzat

Hanka Labankako taldeak inaurratu zuen markagailua, izan ere, aurkariaren atera heldu eta

lehenengo aukeran egin zuten gola. Horren ondoren baina, Dragons-ekoek euren esperientzia ezarri zuten eta markagailuan

eta jokoan aurre hartu zuten. Arabarrek urte dezente daramatzate patinen gainean eta hori kantxan ikusi zen arren, nor-

gehiagokaren hainbat momentutan, ondo baino hobeto jokatu zuten etxekoek.

Publikoa gustura

Gozatu ederra hartu zuten geruratatu ziren ikusleek, batez ere partiduko azken minutuetan.

Hanka Labankako jokalariek kantxan eroso sentitzen hasi ziren, eta bat baino gehiago partiduari buelta emango ziotela sinesten hasi zen. Atezainak sekulako lana egin zuten, eta aurrean aukerak gol bihurtzeari ekin zioten; hala ere, ez zen nahikoa izan eta emaitza 4-9koa izan zen.

Kirol ikusgarria

Gurean nahiko ezezaguna izan arren, argi geratu zen atzo hockey-a kirol ikusgarria dela. Partidu azkarra, dinamikoa eta dibertigarria ikusteko aukera egon zen. Beraz, aurrerantzean hockey-an inguruan gehiago jakin nahi izanez gero, Aramaioa hurbildu.

Lagunartean ikasten

AGUSTIN OIANGUREN

HANKA LABANKAKO ENTRENATZAILEA

"Urte bete daramagu igandero entrenatzen. Domekero hemen elkartzen gara, eta pixkanaka, porteria edota babesgarriak lortu ditugu. Kirol ezezaguna da oraindik gurean, baina gutxi batzuk animatu dira. Horrelako partiduak politak izaten dira".

JULEN MORENO

DRAGONS-EKO ENTRENATZAILEA

"Neska-mutikoekin gozatzera



Oianguren. | J.D.



Moreno. | J.D.



Nahia. | J.D.



Oianguren. | J.D.

etorri gara gaurkoan Aramaioa. Dragons taldeak sei bat urte daramatza martxan, eta polita da talde hasi berriei laguntzea".

NAHIA

DRAGONS-EKO JOKALARIA

"Oso ondo pasatu dut, bi edo hiru gol sartu ditut".

AINHOA OIANGUREN

HANKA LABANKAKO ATEZAINA


"Hasieran nahiko ondo hasi gara, baina partidu erdi aldera nahiko eskas ibili gara. Hala ere, partidu amaieran hobeto jokatu dugula uste dut. Partidu politak izaten dira horrelakoak".



Hanka Labankakoak defentsa lanetan. | JOSETXO ARANTZABAL



Dragons taldekoak beroketa ariketak egiten. | JOSETXO ARANTZABAL



Aholkuak entzuten. | J.A.

TRIATLOIA

Jose Antonio Vitoria | Triatloilaria eta hizlaria

"Kirola praktikatzea eta begano izatea posible da, dieta orekatua egiten badugu, behintzat"

- Orain dela aste batzuk, kirolaren eta elikadura beganoaren gainean mintzatu zen Elgetan
- Begano sutsua da eta, hain zuzen ere, bere erabaki moralaz berba egiten du hitzaldietan

ANE ETXEBERRIA | DEBAGOIENA

Jose Antonio Vitoria (Bilbo, 1977) ofizioz kirol monitore eta entrenatzaile pertsonala da, baina baita Historiako irakaslea ere. Bere zaletasunen artean musika eta kirola dira nagusi; gainera, azkenengo bost urteetan hainbat triatloitan parte hartu du. Beraz, kirola oso ondo ezagutzen du, baita kirola egiteko jarraitu beharreko dietak ere. Orain dela aste batzuk Elgetan izan zen, *Elikadura beganoa eta kirola* hitzaldia egiten.

Zer da beganoa izatea?

Beganoa izatea bizitza filosofia bat da. Animaliak errespetatzen ditugu eta ez ditugu ikusten kontsumo produktutzat. Gainera, elikagaitzat ez hartzeaz gain, ez ditugu arropetan, aisialdi unean eta beste modu batera erabiltzen. Animaliak animaliak dira, ez kontsumorako izakiak. Gure ustez, animaliek sufritu egiten dute eta guk ez dugu nahi min horren parte izan.

Kirola egiteko elikadura orekatua izan behar dugu; beganoa izanda lortzen dugu?

Zalantzarik gabe. Dieta beganoaren eta orojalearen arteko desberdintasuna da nondik, zein iturritatik ateratzen edo lortzen ditugun gorputzak behar dituen mantengai edo elikagai guztiak. Izan ere, gorputzak funtzio batzuk garatu behar ditu eta horretarako mantengai batzuen beharra izango du, horien jatorria oso garrantzitsua da.

Askok diote beganoa izanda proteina edota bitamina falta izaten dela; egia da hori?

Ez; alde batetik, dieta beganoa eginda, errazagoa da behar den bitamina kopurua gureganatzea; izan ere, bitamina gehienak frutan eta barazkietan izaten dira, eta, beraz, dieta mota hori eginda bitamina asko kontsumitzen dira. Halaber, gizakiok behar dugun proteinen kopurua ez da aldatzen ateratzen den iturriaren arabera; hau da, ez da aldatzen proteinen kopurua jatorri begetala dutelako edota animalia bada proteina horien sortzailea. Dieta beganoa eginda, beharrezkoak ditugun proteina, bitamina... gureganatzen ditugu, ez da egia gabeziak izaten ditugula.

Zein abantaila eskaintzen ditu dieta mota honek kirola egiteko orduan?

Ez da kirola praktikatzeko sortutako dieta bat, baizik eta erabaki etiko batean oinarritutako elikadura batean oinarritzen da. Hortaz, dieta begano orekatua



Jose Antonio Vitoria Elgetan izan zen. | LARRAITZ ZEBERIO

egin edo dieta orojale orekatua egin, berdin-berdinak dira kirola egiteko orduan izan ditzakeen abantailak. Zera esan nahi dut, dieta bat edo beste bat egin, orekatua baldin bada, abantaila asko izango ditu kirola egiteko orduan, oso garrantzitsua baita elikadura osasuntsu eta orekatua

"Elikadura orekatua egitea oso garrantzitsua da kirolarientzat"

"Dieta beganoa zein orojalea egin, bitamina berdinak lortzen ditugu"

egitea. Bestalde, irtenbide negatiboak ere ekar ditzakete bi elikadura dietak ez badira egoki zaintzen. Esan bezala, beharrezko mantengai guztiak hartuz gero eta beharrezko kopuruan, edozein kirol egiteko dieta egokia izango da beganoa, baina baita orojalea ere.

Jarraitu beharreko dieta kirolari etekina ateratzeko...

Praktikatzen den kirolaren arabera, kontsumitu beharreko bitamina, mineral, grasa, karbohidrato eta proteina kopuruak desberdinak izango dira eta horren arabera jan beharreko elikagaiak desberdinak izango dira. Baina argi utzi nahi dut dieta beganoa zein orojalea, biak direla egokiak. Elikagai egokiak jaten ikasi behar dugu kirola egoki eta indarrez egiteko. Kirola egitea oso garrantzitsua da gure gorputzarendako, baina are gehiago elikadura egoki eta orekatua egitea. Behin eta berriz errepikatzen nabil elika-

dura orekatua izan behar dela, baina oso garrantzitsua den puntu bat da...

Gorputzaren arabera dieta desberdina jarraitu beharko dugu?

Noski. Pertsona bakoitza ezberdina da eta denok gara desberdinak. Emakumea edo gizakumea izan, eta baita adinak ere, eragin

"Gure gorputzak ez du gabeziarik begano izate hutsagatik"

"Animalien sufrimendua gaitzesten dut, erabaki morala da"

handia dauka mantengaien asimilazioan. Osasun egoerak eta egunero kirola egiten dugun edo ez, horrek ere eragin handia du, noski. Azken batean, gorputzak beharrezko mantengai guztiak asimilatu eta ondo funtzionatzeko osasuntsu egon behar du eta norbera zein egoeratan dagoen eta nolakoa den ere eragin handia dauka.

Orokorrean, gorputz femeninoak eta maskulinoak modu desberdinetan erreazionatzen dute koipearen akumulazioari dagokionez, muskulaturaren sorrerari dagokionez, ariketa fisikotik eratorritako estimuluei dagokienez... oso desberdinak gara, eta, horrenbestez, egin beharreko dieta ere oso desberdina izango da.

Hitzaldiak egiten dituzu gai honen inguruan; laburpen bat egiterik?

Beste izaki batzuen sufrimendutik kanpo dagoen elikadura egin beharretan etika zein den esplikatuz hasten ditut hitzaldiak. Izan ere, nire ustez, animaliek ez dute sufrimendurik sentitu nahi, eta eurak elikatzeko, janzteko edota beste zerbaitetarako erabili eta sufrimendua sorraraztea ez da zilegi.

Puntu hau argitu eta gero, gizakiak dituen beharren inguruan mintzaten naiz; hau da, elikagai aldetik gure gorputzak behar dituen beharren inguruan hitz egiten dut. Jatorri begetala duten elikagaien onurak azpimarratu eta kirola kontuan hartuz, kirolari batek behar dituen elikagai edota dietaren inguruko informazioa ematen saiatzen naiz. Azken batean, helburu fisiko eta deportibo lortzeko pertsona batek bere dieta ondo zaindu behar du, eta horren inguruan informazio desberdina ematen saiatzen naiz.

Beganoa, moda ala kultura?

Irabazi ekonomikoak lortzea helburutzat duen gizarte honetan, eskaeraren arabera hornitzen da merkatua. Eskaera horiek artifizialki modak sorrarazteko eta herritarrek moda horrenpean egoteko nahiarekin eramaten dira aurrera, baina hori batzuetan ez da horren negatiboa; izan ere, zenbat eta eskaera gehiago egon halako produktuak (jatorri begetala duten produktuak), orduan eta txikiagoak izan daitezke animalien sufrimendua sorrarazten duten eskaerak. Eta oso tristea izango litzateke betebehar moraleko kategorian kokatzen den erabaki bat; erabaki morala da, moda hutsean geratzea.

Tacrolimusarekin egindako kremak erabil daitezke dermatitisarendako

Jabier Agirre pediatrik dio bost umetik batek garatzen duen gaitza dela

LARRAITZ ZEBERIO | ARRASATE

Dermatitis atopikoa gero eta zabalduago dagoen gaitza dela dio *Guraso.com* atariko kolaboratzaile Jabier Agirre pediatrik. Zehazten du ez dela gaitz kutsakorra, eta ez dutela jatorria ezagutzen. "Herentziak pisu handia du", dio. Azaltzen du, baita ere, azalak neurritz gaineko moduan erreakzionatzen duenean ematen dela. Erreakzio hori substantzia narritatzaileekin harremana izan ondoren, edo gaixoa baldintza emozional txarretan —estres egoerak— dagoenean areagotzen da.

Dermatitis atopikoa bizitzako lehen urtean —2-9 hilabete— has ten da kasuen %60an.

Harrera neurriak

Pediatrik azaltzen du badirela umeen osasun-egoera okerragotu dezaketen faktoreak. "Beraz, faktore horiek saihestuz nabarmen hobetuko dugu haurraren bizikalitatea".

Azalarekin kontaktuan dauden arropak —oheko arropa barne— zuntz naturalekoak behar dutela dio. Gomendatzen du, baita ere, garbigailuan leungarririk ez erabiltzeko. Beroak, bestalde, okerragotu egiten ditu ekzema-ageraldiak. Hala, tenperaturak ez luke behar 20°C gorakoa.

Azalak denbora gutxiago ematen du urarekin kontaktuan eta bainua baino dutxa hobesten du.

Ohiko xaboiak eta gelak baino produktu dermatologikoak erabiltzeko gomendatzen du: olozko xaboiak, parafina... Umeak ondo lehortu behar dira, eta komenigarria da azal atopikoendako egokiak diren krema edo olio hidratatzaile bat gehitzea.

Agerraldi gogorrak

Dermatologoak kortikona duten pomadak errezetatzen dituzte horrelakoetan. Berehala konpontzen dute arazoa, baina maiz erabiliz gero eraginkortasuna galtzen dutela dio Agirre. Gaur egun tacrolimusarekin egindako pomadak erabiltzen direla dio. Farmako immuno-modulatzailea da.



Zauriak azalean. | CARE_SMC

Gloria Urkola: "Bidea egiten ari gara, baina oraindik ere ez dago sozialki ondo ikusia umea gainean eramatea"

Meitai Maitia proiektuko bultzatzaileak elkarrizketatu dituzte Ekogune saioan; oinarrian, bizitzeko eta hezteko filosofia bat dutela aldarrikatzen dute

L.Z. | ARRASATE

Ekogune saioko lankideak Ataunen izan dira berriki, eta Ander Gorostitzaren eta Gloria Urkolaren Meitai Maitie izeneko proiektuaren berri jaso dute. Denda bat baino gehiago da Meitai Maitie, izan ere, tailerrak, hitzaldiak eta aholkularitza ere eskaintzen dituzte. "Oinarrian, bizitzeko modu bat dago honen guztiaren atzean, filosofia bat", dio Gloria Urkolak.

Zesareaz jaio zen Anderren eta Gloriaren lehenengo semea, Peru. "Araoak izan nituen lehen atxikimenduetarekin. Zesarearengatik titia ere ez nion eman", adierazi du Gloriak Ekogune saioan. Informazio bila hasi eta Laura Gutman psikopedagogo ospetsuaren lanarekin egin zuten topo, eta hark gomendatuta ume-eramaileak erabiltzen hasi ziren Ander eta Gloria. "Umea gainean eramatea ez da orain arte sozialki ondo ikusia egon", azaltzen du Gloriak. "Bide berria egiten ari da gure gizartea".

Exterogestazio-aldiaz hitz egiten dute Gloriak eta Anderrek. "Errespetatu beharra dago eta ume-eramaileekin lortzen da". Bestelako onurak ere ikusten dizkiote haurra gainean eramateari. "Haurra postura bertikalean dagoenez laguntzen du kolikoekin, eta loaldi motzak egiten dituzten umeendako proposa da. Seguritasuna eta goxotasuna sentitzen dute, eta loaldi luzeagoak egiten dituzte".



Meitai Maitiako Gorostitza-Urkola familia Paula Gutmanekin. | MEITAI MAITIA

Kristalezko biberoiak

Meitai Maitiaren eskaintzan aurkituko ditugu, baita ere, kristalezko biberoiak zein botilak. "Plastikoa baino osasungarriagoa da kristala, eta ingurumenarekiko jasangarriagoa", ohartarazten gaitu Gloriak. Kristalak ez du bisphenol-A izeneko gai toxikorik, eta behin eta berriz berotzearen ez du plastikoa moduan gai toxikorik isurtzen. Seguruak eta eroak izateko botilak zein biberoiak silikonazko funda batez hornitatu dazot.

Fardel berrerabilgarriak

Gutxi dira fardel berrerabilgarriak aukeratzen dituzten familiak, baina apurka apurka handitzen doaz erabilera datuak. Meitai

Maitian badituzte. Australiatik ekartzen dituzte, eta hiru arrazoi nagusi ikusten dituzte erabiltzeko: ekonomia, jasangarritasuna eta kalitatea.

Kalkulatuta dago fardeletan soilik 1.800-2.000 euro behar direla umeko. Fardel berrerabilgarriekin 250 euroko gastua egin behar da, eta bigarren umea izanez gero inbertsioa eginda dago. Xurgatzaileak berrerabilgarriak edo biodegradatzaileak izanik zabor gutxiago sortzen da, eta umearen azalerako zein osasunerako egokiagoak dira fardel berrerabilgarriak.

Meitai Maitiaren inguruko informazio gehiago nahi izanez gero www.meitaimaitie.com atarira jo dezakezue.

Indarkeriazko bizipenek eragina dute umeen zein nerabeen garapenean

Emakumeen kontrako indarkeria, askotan, etxean bertan, familian, ematen da

L.Z. | ARRASATE

Indarkeria mota asko dago, eta asteon emakumeenganako indarkeria izango dugu bereziki hizpide. Egoera latza da emakumearendako, are gehiago seme-alabak baditu. Izan ere, askotan etxe barruan ematen da indarkeria hori, eta haurrak ere biktima bihurtzen dira.

Bizipen traumatikoak

Indarkeria egoerak ikustea eta bizitzea traumatikoa da. Kolpe fisikoak jaso ala ez seme-alabak ere biktima bihurtzen dira. Askotan, gainera, erasotzaileak erabili egiten ditu haurrak emakumezkoari min handiagoko egiteko. Umeek etxean bertan sentitzen dute mehatxua; babes-

leku beharko lukeen espazioa guztiz kontrakoa bihurtzen da. Ikara, inpotentzia, beldurra, eta kasu gehienetan, erruduntasun sentimendua eragiten ditu horrek. Haurrak emozioak identifikatzen eta maneiatzen ikasten ari direnean gertatzen dira esperientzia traumatiko horiek, eta ondorioak oso gogorrak dira. Ikerketek erakusten dute haur horiek autoestimu arazo larriak dituztela, eta helduarora arte barreiatzen dituztela. Sentitzen dute ez dutela egoerari irtenbidea emateko nahikoa ahalegin egin, eta sentipen hori grabatuta gelditzen zaie. Biolentzia domestikoak, zoritxarrez, biktima asko ditu.



Nerabea beldurtuta. | REINA CAÑI

KULTURA

Arrasaten zarzuela, arrakastaren sinonimo

Amaia antzokia goraino bete zen zapatuko estreinaldia ikusteko

IMANOL GALLEGO | ARRASATE

Amaia antzokiko atea zabalteko denbora dezente geratzen zela jendea antzokira hurbiltzen hasi zen zapatu iluntzean. Zarzuela klasiko bihurtu da herrian eta ia sarrera guztiak agortzen ditu urtero; aurten antzera gertatu da.

La tabernera del puerto hasi aurretik Izaskun Murgia elkarre lirrikoko zuzendari den Tere Gonzalezek, Fagor ekarri zuen gogora, "zarzuelarekin hasi ginean gure alboan egon zen Fagor eta orain guri tokatzen zaigu". Txalo ugari entzun ziren antzokian eta isiltasunak Amaia hartu bezain pronto Arrasate Musikaleko orkestrak Cantabredara eroan gintuen guztiak.

Arrantzale herri txiki horren lasaitasuna apurtuko duen pirata, abentura, droga eta amodio istorio bat kontatu ziguten Arrasateko aktore eta abeslariak. Hori guztia baina, une

umoretsu ugari dituen obraren barruan.

Harreman elkateraren zozketa
Zarzuela tradizio bilakatu bada, Harreman erakundearen urteroko zozketarekin gauza bera gertatu da. Aurtengo estreinaldian 400 euro baino gehiago batu zituzten, eta Gurutze Mujikaren margolariaren lana Kontxi Bediari tokatu zitzaion.

Dudarik gabe baina, zarzuelako protagonista nagusia Cristina Cubillo tabernaria izan zen. Leandro ez ezik, guztiak txoratu baitzituen bere ahotsarekin eta hemendik ere, "Eres alta y delgada como tu madre, Morena, salada..." kantatzea besterik ez zait geratzen.

Argazki gehiago:
eskaneatu QR kode hau poltsikokoarekin.



Cantabreda herriko tabernaren inguruan gertatzen da istorioa. | JOSETXO ARANTZABAL



Maitaleak kantuan. | JOSETXO ARANTZABAL



Juan de Egia, Marola galdu ostean, etsita. | JOSETXO ARANTZABAL

TERE GONZALEZ | IZASKUN MURGIA ELKARTE LIRIKOKO ZUZENDARIA

"Hobeto pentsatu ostean, hurrengo urtean ere zarzuela egitea erabaki dut"

Estreinaldiaren ostean, zorionak.

Eskerrik asko. Oso pozik nago, oso obra zaila da.

Zergatik taularatu duzue zarzuela hau berriro?

Duela 50 urte baino gehiago beste konpainia batek taularatu zuen eta gure lehen zarzuela ere izan zen. Duela hamar urte bi saio baino ez genituen egin eta obra oso polita denez errepikatzea erabaki genuen.



JOSETXO ARANTZABAL

Zarzuela hasi aurretik Fagorreko langileei elkartasuna adierazi diezue, zergatik?

Fagorrek asko lagundu zigun hasierako urteetan eta nolabait esateko kooperatibari esker lortu dugu ibilbide luze

hau egitea.

Eta hemendik aurrera?

Ez dut gezurrik esango, hasiera batean, *La tabernera* gure azken zarzuela izatea otu zitzaidan baina hobeto pentsatu ostean, iritzi aldatu eta hurrengo urtean ere zarzuela egongo dela esan dezaket. Ez dakit nola moldatuko garen, baina zarzuela berri bat egingo dugula ziur egon. Honek kostu handia dauka eta une ekonomiko latzak pasatzen ari gara.



TOMAS LARRAÑAGA
ANTZUOLA

"Nire lehen aldian izan da, lagun batzuk oparitu dizkirate sarrerak eta egia esan asko gustatu zait ikuskizuna. Ez zait ikuskizun luzea iruditu eta oso gustura ikusi dut. Sorpresa polita izan da eta asko gozatu dut".



SOCORRO PEÑA, PURI PEÑA ETA ARANTZA OÑATE
OÑATI

"Gutxienez sei edo zazpi urte pasa dira lehen zarzuela ikustera etorri ginenetik, eta ordutik ez dugu huts egiten. Estreinaldirako sarrerak lortzea oso zaila izaten da, guk aurreko urtean bezala goiko partetik ikusi behar izan dugu ikuskizuna, halere, beti bezala, asko gustatu zaigu".



MERTXE TROJAOLA, ASUN MADINA ETA EUSEBIO IÑARRA
ARRASATE ETA TUTERA

"Urteroko hitzordua da hau. Tere Gonzalezek aipatu moduan, duela 57 urte estreinatu zen zarzuela hau Arrasaten eta urte hartan, mutikoa nintzela, kantari bezala parte hartu nuen. Orain ikusle bezala etortzen gara eta hirugarren aldian arren asko gozatu dugu, bi ordu eta erdiak ia konturatu gabe pasa dira".



KONTXI BEDIA
ARRASATE

"Aurten zarzuela ikusteaz gain, Harreman elkarrekin zozkatutako koadroa irabazi dut. Askok gustatu zait zarzuela. Urtero etortzen naiz ikuskizun honetaz gozatzera, eta urtero ere erosten ditut zozketako txartelak!".



Autodidaktas Fox Oñatiko Gaztelekuan. | JOSETXO ARANTZABAL

KRONIKA

Biolentzia berbala Oñatin

JAGOBA DOMINGO | OÑATI

Rap musikaren gotorleku bihurtu zen zapatu gauean Oñatiko Gaztelekua. Jende gutxi, baina taldeek ikusleak ederki asko poltsikoratu zituzten, kontzertuko parte aktibo bihurtuz; eta hori ez da lan makala izaten.

Gaua hotz xamar hasi bazen ere, pixkanaka berotuz joan zen Duo Kie madrildarrekin lehertu aurretik. Gaztelekua saltoka jarri zuen bikoteak, eta publikoak gehiago nahi zuen arren, amaiera ezin hobea eman zioten Oñatiko rap jaialdiari.

Rap estilo ezberdinak entzuteko aukera egon zen zapatuan;

Autodidaktas Fox gasteiztarren rap klasikoagotik, Irungo RushBlacka hirukotearen rap-hardcorea eta 90ko hamarkadan hasi ziren Duo Kie-ren eromenera arte. Azken horiek izan ziren gaueko errege zalantza izpirik gabe; taula gainean egoten jakitea, harropuzkeria eta kantuen artean, bakarrikzketetan maisu.

Rap Gasteiztarra

22:30 pasata zirenean igo zen gaueko lehenengo hirukotea taulara; Autodidaktas Fox. Argitaratu berri duten *Autoestima* diskoan bikote bezala aurkezten badira ere, zapatuan Dj Clandes-

tino izan zuten diskoak jartzen. Sam eta Fox bikotea gaueko lanik gogorrenaz arduratu zen, publikoaren hasierako beldur edo dis-

FITXA

MUSIKA

AUTODIDAKTAS FOX, RUSHBLACKA ETA DUO KIE

Estiloa: Rap, Rap-Hardcorea.

Non: Oñatiko Gaztelekuan.

Eguna: Zapatua, azaroaren 23.

Iraupena: Hiru ordu eta erdi.

tantzia murrizten saiatzea. Eta egia esan, pixkanaka edozein kontzertuk behar duen gertutasun hori lortu zuten. Raperoen eta Hip Hop kulturaren duintasuna aldarrikatu zuten, eta taldeen artean rap lasaiena egin arren, jaialdia hasteko aukera ona izan zen.

Biolentziari goraipamena

Rottweiler-ak bailira igo ziren eszenara Kallid, Dokk Skandal eta Dj Rask irundarrak. Hasieratik argi utzi zuten, euren rap -hardcorea dela, hitz gordinak, zuzenak eta jarrera oldarkorra.

Lengua bifida diskoa aurkezteari ekin zioten, eta taula biolentziaz eta agresibitatez bete zuten; sentimendu hori ikusleengana transmitituz. Emanaldi bizia eskaini zuen RushBlacka hirukoteak, eta Euskal Herrian kalitatezko rap muska egiten dela argi utzi zuten, hori bai, kantu

batzuetan Kallid abeslariari jarraitzea zaila izan zen.

Ongietorri 'Inferno'-ra

Gaueko momentua heltzeare zegoen, eta publiko gaztekoaren artean urduritasuna nabaria zen; Duo Kie-ren kantuak ikasita zituzten, eta esperotako momentua heldu zen.

Espainiar estatuko rap mugimenduan errege dira Locus eta Nerviozzo MC-ak. Rap-hardcorea da bikotearen ikurra, eta Oñatin *Inferno* disko berriaren errepaso egin zuten; hori bai amaitzeko, *Charlie Sheen* klasikoarekin eromera eraman zuten Gaztelekura.

Emanaldia bi zatitan banatu zuten, baina momentu oro kontzertuaren tempoa bikain kontrolatu zuten, publikoarekin konexio paregabea lortuz. Azpimarratzeko ere, Dj Yulianek emandako ikuskizuna.

Arantzazuko erromesaldia goraipatzeko sortutako rapsodia herrikoia

Rapsodia baino lehen 'Alborada', 'Coppelia' eta 'Cantatibus' lanak ere eskaini zituzten

IMANOL GALLEGO | OÑATI

Ia herri guztiak hartu zuen parte atzo Inaxio Ibarrondok sortutako *Oñatiko Rapsodian*, batzuk Santa Ana antzokiaren eskentoki gainean, eta beste askok entzule moduan. Bigarren hauek ugariagoak izan ziren, ze antzokia goraino bete zen eta askok emanaldia zutik jarraitu behar izan zuten.

Kontzertuaren aurretik Ibarrondo zuzendariak hartu zuen hitza eta kontzertuaren zantzu batzuk azaldu zituen, "hasieran *Segurako Alborada* eta *Coppelia*

joko ditugu eta ondoren, gure kontzertuak amaitzeko erabili izan dugun *Cantatibus* ere eskainiko dugu". Pieza hauetan ere txalo ugari entzun ziren arren, nabari zen atzo goizeko protagonista rapsodia zela.

Emanaldiaren azken zatia hartu zuen *Oñatiko Rapsodiak* eta musikari laguntzen, zenbait herritarrek batutako argazkiak ere proiektatu zituzten. Rapsodiako pieza guztiak Ibarrondok moldatuta zeuden. Emanaldia borobiltzeko gainera, *Oñatira itzulera* kantak entzule ugari



Rapsodiak herriko argazki zaharren emanaldi baten laguntza izan zuen. | JOSETXO ARANTZABAL

eserlektutik altxa eta txalo bidez lagundu zieten musikariei.

Txistularirik gabe

Azken uneko konpromiso bate-

gatik txistulariek ez zuten kontzertuan parte hartu. "Obra bere osotasunean eskaini dugun arren, eurentzako espresuki egindako zenbait moldaketa zeuden, "aipa-

tu zigun zuzendariak. Hala ere, bukaeran, kontzertuko parte hartzaile jasotako txalo zaparradan argi geratu zen moduan, jendeak ez zuen aldaketa igarri.

Santa Ana antzokia jendez bete zuten Ganbara Abesbatzako txikienek

Ikasturteko lehen erakustaldian *Mack Mikel* edo *Pocahontas*-en kantuak abestu zituzten

JAGOBA DOMINGO | OÑATI

Ikasturte berriko lehenengo emanaldia egin zuten zapatuan Oñatiko Santa Ana antzokian Ganbara Abesbatzako gaztetxoek. Goraino bete zen aretoa, eta ikusleen artean zeuden guraso zein famili artekoak irribarretsu egon ziren emanaldiak iraun zuen ordu eta erdian.

Belaunaldi berrien txanda

Gaztetxoek, hau da, Tailerra 1 eta 2 taldeek hasi zuten kontzertua eta bi kantu eskaini

zituzten. Ondoren, Tailerra 3 eta Ganbara Txikitxo taldekoen txanda heldu zen. Azken horiek *Mack Mikel* abesti ezaguna kantatu zuten.

Ganbara Txikikoek, ordea, *Pocahontas* filmaren eta *Alami* musikalaren zati bat abestu zituzten. Amaitzeko, Ganbara Gaztekoek abestu zuten, eta talde guztiek batera abestu zuten.

Neska-mutikoak urduri egon ziren arren, emanaldi polita eta hunkigarria izan zen.



Ganbara Gaztekoak Santa Anan. | JOSETXO ARANTZABAL



Ganbara Abesbatzako Gaztetxoak abesten. | JOSETXO ARANTZABAL



Alfredo Gonzalez Chirlaque zuzendaria entzuleak agurtzen. | JOSETXO ARANTZABAL

Gonzalez Bastida izan zuen gogoan bandak

- ▶ Santa Zeziliako kontzertuan haren obrak jo zituzten
- ▶ Udal pilotalekua bete egin zen kontzerturako

MONIKA BELASTEGI | BERGARA

Santa Zeziliaren ospakizuna Miguel Gonzalez Bastida zuzendari eta konposatzailea zena gogoan izateko baliatu zuen Bergarako Udal Musika Bandak atzo, domeka.

Musika Bandako zuzendariak, Alfredo Gonzalez Chirlaquek, -berriki hil den Gonzalez Bastidaren semeak- ederto aukeratu zuen, ohi bezala, emanaldiko erreperitorioa aita omenduz: sei obra jo zituzten eta horietako hiru aita zuenak konposatutakoak izan ziren.

Hain zuzen, Miguel Gonzalez Bastidak sortutako *Campo de Rosas* pasodoble dotore eta alaiarekin ireki zuen kontzertua musika bandak. F. Héroid-en *Zampa* eta *Star Wars Saga*-ren doinuaren ondoren, Gonzalez Bastidak konposatutako bigarrenena jo zuten, *El metronomo de Maelzel* fantasia, zehazki. Horri, Alfredo Gonzalez Chirlaqueren *Kalez kale musikaz* doinu alaiak jarraitu zion eta bukatzeko -esku-programan jasota egon ez arren-, Gonzalez Bastidak Pertxa elkarte gastronomikoarendako konposatutako mar-

txa jo zuten. Oso martxa ezaguna da herrian, eta udal pilotalekua bete zuten herritarrek esku-zartaka jarraitu zuten.

Emanaldiaren ondoren musika bandako kideek Pertxa elkartean bazkaldu zuten Santa Zezilia ospatzeko.

Gabonetako kontzertua

Gabonetako kontzertuan ere izango dute gogoan Miguel Gonzalez Bastida: amaierako *tutti*-an hark konposatutako *Estampas Navideñas* obra interpretatutako dute aurten.

Arrasate Musikaleko Big Band taldeak erdigunea alaitu zuten zapatu iluntzean

Ibai Arte dendarien elkarteak antolatutako Azaro musikalak ekimenaren baitan kalez kale ibili ziren

J.D. | ARRASATE

Ibai Arte merkatarien elkarteak antolatuta, Arrasate Musikaleko Big Band taldeak Arrasateko erdiguneko kaleak *swing* zein *bossa-nova* doinuekin bete zituen zapatu iluntzean.

Herriko kaleak alaituz, herritarrak bertan geratu eta herriko dendetan erostera animatu gura

dituzte. Hain justu ere, herriko komertzioa indartzeko Azaro musikalak ekimenaren barruan, zenbait ekintza egingo dituzte datozen hileetan, eta zapatuan bi orduz girotu zituzten kaleak.

Datorren zapatuan Txorbela otxoteko zenbait kidek alaituko dituzte erdiguneko kalean euren abestiek.



Arrasate Musikaleko Big Band taldeko kideak zapatuan. | IMANOL GALLEGO

Amaia
Txintxurreta
Kantariko
aurkezlea



4. edizioa Kantari

Oñatiko

saioa!



Oñatiko partaideok, eman azken errepasoa abestiari eta koreografiari!



ENTSEGUAK

OÑATIN
Azaroaren 30ean
Gaztelekuan.



IKUSKIZUNA

OÑATIN
Abenduaren 14an
Gaztelekuan.

BABESLEA:


LABORAL
kutxa

SUPER BAT
KONTUA

**Etorri zuen lagunak animatzera.
DJa ibiliko da giroa animatzen. Etorri disko-festara
dantzara eta Kantariko gaztetxoak animatzera!**

Informazio gehiago: 943 25 05 05
<http://blogak.goiena.net/kantari/>

goiena

LUKAS
PREST

GURE MUSIKA TALDEAK



Lukas Prest, Arrasateko Elkartasun Eguneko kontzertuan, Kajoi tabernan. | ITZIAR EZKURRA

"Eskoria-tza taldeak entseatzen zuen lokalean gaude; agian, zerbait jaso dugu"

- ▶ Hiru kantu berri argitaratu ditu laukoteak Interneten
- ▶ Duela urte eta erdi indartsu bueltatu ziren eszenara

JAGOBA DOMINGO | ESKORIATZA

Hamar urteko ibilbidea bete du aurten Lukas Prest talde eskoriatzarrak. Hori gutxi balitz, hiru kantu berri grabatu dituzte eta Interneten jarri dituzte entzungai; hardcorea ikur bezala izaten jarraitzen dute, baina, oraingoan, metalerantz ere jo dutela aitortu digute. Urte batzuk lozorroan egon ondoren, 2012ko udaberrian esnatu zen laukotea eta ordutik hona ez da geldi egon. Aurtengo irailean ere, bateria-jole berria estreinatu zuten, Drop! taldeko Alex Regaño, eta, datorren egunean Inkernun eskainiko duten kontzertuan, taldearen lehenengo kontzertua gogora ekarriz, Piñak testigua pasatuko dio Regañori.

Nola joan da aro berri hau?

Egia esan, ez gara geldi egon, kontzertu dezente eman ditugu; gainera, abesti berriak egin ditugu; beraz, oso ondo. Abesti berri

hauek, gainera, ezberdinak dira, orain ere abesti gehiago konposatzekotan gaude, *musikarien* txanda da.

Izan ere, hiru kantu berri grabatu dituzue eta Interneten jarri dituzue entzungai.

Egia esan, ez genion buelta askorik eman buruari; *Eten* izeneko bilduman, biolentzia sexistaren aurkako bilduman, parte hartze-ko gonbita heldu zitzaigun eta estudioa sartzera erabaki genuen. Bildumarako kantu bakarra eskatu ziguten, baina, behin estudioan egonda, beste bi kantu grabatzea erabaki genuen. Orain entzuten ditugunean motz egiten zaizkigu, gehiago grabatzeko gogoz geratu ginen.

Eta kantuak Interneten jartzea erabaki zenuten?

Bai; hasiera baten, ez geneukan oso argi zer egin kantuekin; beraz, Interneten entzun eta deskargatzeko jarri genuen; azken finean,

kantu berriak zabaldu nahi genituen. Azkenengo kontzertuetan, baina, Gasteizko gaztetxean, adibidez, etxean kopia batzuk egin eta bertan banatu genituen. Hurrengoetan ere hala egingo dugula uste dugu.

Nekrosounds estudioan grabatu zenituzten kantuak.

Bai, irailean sartu ginen estudioan eta bi-hiru astean amaitu genuen. Egun batean bateria, hurrengoak Zeke-k eta Lili-k gitarra eta baxua eta ahotsak ondoren. Egia esan, nahiko inprobisatua izan zen grabazioa; Anger-ekoak, adibidez, koroak grabatzera etorri ziren eta bertan erabaki genuen non eta nola sartu. Estudioan oso eroso sentitu ginen, inolako presiorik gabe grabatu genuen-eta. Esan bezala, dezente inprobisatu genuen eta emaitzarekin pozik gaude.

Kantu berriek aurrekoekin aldea dute, ezta?

ZERTZELADA



APUR DEZAGUN ARAUA

Estiloa: Hardcorea.

Egilea: Lukas Prest (Eskoriatza, 2013).

Argitaletxea: Autoekoizpena.

Iraupena: 08:11 minutu.

'Hardcore-punkak bueltan behar luke'

Par bat urte izango dira Eskoriatzako Lukas Prest taldea agertokietan bueltan denetik, baina ezin izan ditut ikusi ezta entzun eta sorpresa hartu dut hiru kantu berriak entzuterakoan. Hardcore-punk dotorea egiten dute, eskola zaharretik dezente duena. Hiru kantu hauen mezu zein giroek Eskoria-Tza taldearen arrasto bat utzi didate, nahiz eta Etsaiak-en lehen diskoetatik hurbilago dauden. Bada baita ere abesteko eran Anger gogoratzen duen unerik eta RKL handien eritimo aldaketarik ere. Horrez gain, dagoeneko inor ez da crossoveraren beldur eta eritimo biziko kantu hauetan metal ukituak ere erraz antzematen dira, baita metal-rapetua ere.

IKER BARANDIARAN

Dezente, hardcoregoak direla esan daiteke; oraingoan, gainera, metaletik ere badute zerbait.

Kantuen hitzak...

Apur ditzagun arauak gay komunitatean erabili izan den mezu bat izan da, arau heterosexista edo eredu heteropatriarkalarekin apurtzeko. *Sua*, ordea, *Eten* bil-

dumarako grabatu genuen kantua da, patriarkatuaren eta matxismoaren inguruan hitz egiten duen kantua da.

Zelan sortu zen bilduman parte hartzeko aukera?

On taldeko Itsasok, mail masibo bat bidali zuen eta animatzea erabaki genuen. Hura ere erlojupeko lasterketa bat izan zen, ostiralerako kantua entregatu behar genuen, eta ostegun gauean edo ostiral goizean amaitu genuen.

Berriz hasi eta gustura zaudetela ikusita, kantu berriak egiteko beharrik sentitu duzue?

Bai, gogoia badugu. Abesti zahar hor hor daude, eta, egia esan, orain beste *rollo* bat hartu dute. Urte dezente pasatu dira, eta orain, kantuak berriz jotzean, indar edo gorputz handiagoa dutela uste dugu. Baina abesti berriak jotzeko, egiteko eta entzuteko gogotsu gaude.

Duela 10 urte hasi zineten eta datorren egunean kontzertu berezia duzue Inkernun.

Bai, hasi ginen lekura bueltatuko gara; izan ere, lehenengo edo bigarren kontzertua bertan eman genuen; gainera, Gabon inguruan izan zen. Berezia izango da, taldean ibilitako bi bateria-joleek joko dutelako; *Piña*-k eta Alexek. Polita izango da.

Talde veteranoa izanik, zelan ikusten duzue gaur egungo panorama musikala Eskoriatzan?

Mugimendu apur bat badago, duela urte batzuk baino txikiagoa, baina egon badago. Besteak beste, Hankaz Gora eta Freedom Boys gazteak hor daude.

Eta hardcorea?

Leintz bailaran gutxi; gu eta Drop! Bergaran, adibidez, ohitura egon da eta oraindik ere badago. Fly Shit-ek eta Hardflip-ek, adibidez, Tapoi Fest jaialdia egiten dute eta hardcore-zale dezente biltzen gara bertan. Euskal Herri mailan ere... zerbait badago, baina ez da eszena sendoa.



Proiektuan esku hartu duten haur, guraso eta irakasleak, ikasgela baten. | J.B.

'App' sorta euskaratu dute Elkar Hezin, matematikarako

Guraso baten ekimenez, '10 hatz' eta 'Dragon Box' aplikazioak itzuli dira

JON BEREZIBAR | ARRASATE

Oñatiko Elkar Hezin neska-mutikoak matematiketan ibiltzeko aplikazio ezagun sorta bat euskaratu dute, ikastetxeko guraso baten ekimenez. Atzamarrekin kontatzen eta ekuazioak ikasteko hiru aplikazio berri daude euskaraz ekimen horri esker eta dagoeneko eskura daitezke denda digitaletan. Elkar Heziko guraso eta irakasle ere baden Manu Perronet-en ekimenez egin da itzulpena. Iparralden da irakaslea Perronet eta han ezagutu zituen *10 Hatz* eta *Dragon Box* aplikazioak, Frantzia dienez, oso erabili eta ezagunak dira aplikazio horiek. Aplikazioen jatorrizko garatzaileekin harremanetan jarri zen Perronet eta, arazo barik, euskaratzeko bai-

mena jaso zuen. Iparraldeko senideak dituzte, antza, garatzaileek eta horregatik, bazuten sentibilizazio apur bat, Perronet-ek kontatzen duenez. Matematiketan ibiltzeko, adin tarte ezberdinetarako hiru aplikazio dira. *10 Hatz*, 3 eta 6 urte bitarteko umeek, izenburuak dioen bezala, atzamarrekin zenbatzen ikasteko aplikazio berezi bat da. Pedagogia berezia ere badu, gainera, aplikazio honek. Akats bat egiterakoan ez du jakinarazten; haurrak asmatzen duenean egin dezake aurrera soilik. *Dragon Box*, ostera, aplikazio teknikoagoa da, nagusiagoentzat. Ekuazioak ikasteko balio du.

Perronet-ek ekimena izan da baina Oñatiko Elkar Hezi Ikastetxearen laguntza estua izan du.

Bereziki alboan izan du Koldo Zumalde, euskara aholkulari bezala. Harekin batera kolaborazio berezia ere izan du, gainera: Mireia Garro, 8 urteko nekatoarena. Bere ahotsa ipini du aplikazioan Elkar Heziko ikasle honek.

Eskuragarri, jadanik

Bai *Hamar Hatz* zein *Dragon Box* aplikazioak eskuragarri daude dagoeneko Android-en Play denda eta Apple-en gailuetarako, App Store-ean. *10 Hatz* jaisteko App Storean *10 Dedos* aplikazioa bilatu behar da eta behin jaitzita, euskarazko hizkuntza aukera ezarri. Android-erako bertsioa frantsesez bilatu behar da, *10 doigts*, Play Store frantsesean bilatuta.

Line-ek aplikazioak, barne-erosketa eta pegatzen bitartez bidez, lortu du errentagarritasun finkoa

J.B. | ARRASATE

Doako eta ordainpeko zerbitzuen nahasketaren bitartez, errentagarritasun handia lortu du Line mezularitza aplikazioak. Hala, adibide baterako, azken hiru hileroan 100 milioi dolarreko diru-sarrerak izan zituzten.

Japoniako NHN Japan enpresa da jabea eta negozio eredu mistoaren alde egin dute. Mezularitza aplikazioa doako da bere osotasunean baina eduki estregatik ordaindu beharra dago. Gaur egun Line-ek 280 milioi erabiltzaile ditu mundu osoan zehar eta erritmo biziz dihardu

hazten India, Turkia, Italia eta Latino Ameriketara.

Mezularitza, leku kwestioa

Mezularitza aplikazioek oso banatuta daukate munduko ze gunetan daukate arrakasta. Hala, European WhatsApp da errege, Estatu Batuetan SnapChat eta Asian Line, WeChat eta KakaoTalk dira, guztiz ezezagunak gurean, arrakasta handiena daukaten aplikazioak. Mundu guztian zehar zabalkunde handia badute ere oraindik ere, Interneteko ekimen asko bezala, zerbitzua errentagarri egin eta diru sarrera finkoak



Line-en promozio irudia. | LINE

izateko moduetan ezin asmatu dabilta mezularitza aplikazioak ere. Line-en eredu momentuz, doako alternatiba ere eskainita, arrakasta handiena izaten dabilena da.

Winamp media aplikazio klasikoa eten egingo dute datorren abenduaren 20an

Musika erreproduzitaileak 15 urte egin ditu Windows Media Player-en alternatiba legez

J.B. | ARRASATE

Sasoi baten ordenagailuetan ezinbesteko izateak, erabateko ahanzturara igaro da Winamp media erreproduzitailea. Windows Media Player aplikazioaren alternatiba izan zen gararik lortuenera, 90 hamarkada amaieran, eta itxura zein funtzionalitate aldetik, sasoi hartakoari eutsi dio aplikazioak urte guzti hauetan zehar.

AOL-ek erosi zuen Winamp eta doako bertsioaz gain, ordainpeko Pro bertsio bat ere kale-

ratu zuten. Merkatua, ostera, asko aldatu da azken urteetan eta baleko erantzunik ez diote aurkitu aplikazioari.

Lehiari ezin aurre egin

Google Play Music, iTunes Match ala Amazon Cloud Player-aren garaia da oraingoa eta horien aurrean erantzunik eman ezin izanagatik etengo dute Winamp. Honekin batera, sarean ekimen herrikoiki bat hasi dute aplikazio horren kodea askatu eta erabilgarri jar dezaten.



Winamp aplikazioaren itxura. | GOOGLE

Instagram erabilgarri dago jada Windows Phone-en, oraindik beta bertsioan bada ere

Luzaroan itxaron behar izan dute Windows Phone-eko erabiltzaileek baina ia gertu dago Instagram aplikazioa sistema eragile horretarako. Beta bertsioa askatu eta deskargan ipini dute, nahi duten erabiltzaile guztientzako. Windows Phone merkatuko hirugarren sistema eragile mugikorra bada ere, orain arte Instagramek ez du aplikazio berezirik atera.

Amazon Cloud Player-ek Windows eta Mac-entzako ere banaketak eskuragarri ipini ditu

Windows eta OS X-erako (Apple-en ordenagailuak) banaketak kaleratu berri ditu Amazonen Cloud Player-ek. MP3-ak lainoan biltegitatu eta erreproduzitu ahal izateko aplikazioa da eta lotua dauka denda birtuala ere. Liburutegi musikala automatikoki eguneratzeko zerbitzua ere eskuragarri dago banaketotan.

Aurre-ordaindutako zordunketa txartela aterako du Google-ek erosketak egin eta esku-diruz ordaintzeko

Ordainketetarako txartela kaleratuko du Google-ek eta denda errealean ere erosketak egiteko balioko du. Wallet izena ipini diote eta telefono mugikor bidezko ordainketa inteligenteei lotuta egongo da aurrez-ordaindu beharreko zordunketa txartel berria. Aparteko kontu-korrente batera lotuko da txartela.

Pasatu dio jada Nokiak Microsoft-eri mugikorren negozioa, salmenta osoa gauzatu delarik

Akziodunen batzarrak oniritzia eman dio Microsoften erosketari eta, Europa eta AEBetako autoritateek kontrakorik ez badiote, Nokiaz jabetuko da Microsoft, guztiz. Horrela, mugikorren negozio osoa Microsoften eskuetan geratuko da, baita Symbian sistema eragilearena ere.

TELE-BEGI

OIHAN
VEGAIker
'Caspillas'

Futboltzaleek arratsaldeak igarotzen dituzte Iker Casillas munduko atezainik onena den ala ez eztabaidatzen. Hori futbol adituei utziko diet. Argi dudana da munduko aktorerik txarrena dela. Ite zoldaren kontrako xanpu iragarki batean ikusi genuen udan. Ustez min hartuta, zelaira erortzen zen Casillas, medikua etorri eta bat-batean burua garbitzen hasten da bere ile-apaintzailea bailitzan (?).

Oraingoan, komunera sartu eta emakumeek zenbat apaingarri erabiltzen duten erakusten du esaldi inozo batekin: "Harrigarria da emakumeek zaintzeko erabiltzen duten produktu kopurua!" Eta beste esaldi batekin amaitu: "Gizonok errazago dugu". Horri nik sexismoa deitzen diot. Baina hori gutxi balitz, xanpua erakusteko, urduritasun erasoaldi baten ondorioz edo, eskuarekin lurrera botatzen ditu bere bikotekidearen kosmetiko eta apaingarri guztiak. Hor, argi eta garbi antzematen da ez dela benetako komuna, telebistako estudio faltsua baizik, mundu honetan ez baitago bere bikotekidearen kosmetikoak lurrera bota ostean bizirik irten den gizonik. Eta azken hau ez da sexismoa, egia borobila baizik!

ASTEA GOIENAN

GOIENA TELEBISTA

ASTELEHENA, 25



'Harmailatik'

Asteburuan izan diren kirol kontuak ikusgai izango dituzue, besteak beste, Xabi Urze-laik aurkeztuta. | 21:25

12:00 Magazinea
13:00 Anitzasunean bizi
13:15 AsteON
13:45 Ekogune
14:15 Onein
14:42 Zorion Agurrak
14:46 Berriak
15:16 Eguraldia
15:19 Zorion Agurrak
15:24 Ur eta lur
16:07 Onein
16:34 Berriak
17:04 Eguraldia
17:07 Zorion Agurrak
17:12 Bideo klipak
17:48 Klaketa
18:28 Ekogune
18:58 Zorion Agurrak
19:03 Berriak
19:28 Eguraldia
19:31 Organo zikloa
20:06 Zorion Agurrak
20:10 Magazinea
20:55 Berriak
21:20 Eguraldia
21:25 Harmailatik
22:10 Berriak
22:35 Eguraldia
22:38 Magazinea
23:23 Gurean gaur

MARTITZENA, 26



'Berriak'

Eguneko albisteen berri emango digu Monika Belastegik Goiena telebistako albistegiaren. | 14:45

12:00 Magazinea
12:45 Harmailatik
13:25 Atik Zra
14:20 Ikusmira
14:40 Zorion Agurrak
14:45 Berriak
15:10 Eguraldia
15:13 Harmailatik
15:53 Onein
16:24 Zorion Agurrak
16:30 Berriak
16:50 Eguraldia
16:53 Zorion Agurrak
16:58 Klaketa
17:38 Harmailatik
18:23 Klaketa
19:03 Berriak
19:28 Eguraldia
19:31 Zorion Agurrak
19:36 Kantari
20:06 Zorion Agurrak
20:11 Magazinea
20:56 Berriak
21:21 Eguraldia
21:24 Bertso Txapelketa Nagusia
22:09 Berriak
22:34 Eguraldia
22:37 Magazinea
23:22 Gurean gaur

EGUAZTENA, 27



'Asmatu baietz'

Lehiaketan parte hartzeko deitu 943 25 05 03 telefono zenbakira eta irabazi sariak. | 19:40

12:00 Magazinea
12:45 Onein
13:08 Kantari
13:38 AsteON
14:03 Altxorraren bila
14:33 Erreportajea
14:45 Berriak
15:10 Eguraldia
15:13 Atik Zra
16:08 Ikusmira
16:28 Berriak
16:53 Eguraldia
16:56 Harmailatik
17:36 Organo zikloa
18:11 Anitzasunean bizi
18:26 Ekogune
18:56 Zorion Agurrak
19:00 Berriak
19:20 Eguraldia
19:23 Bideo klipak
19:40 Asmatu baietz!
20:10 Magazinea
20:55 Berriak
21:20 Eguraldia
21:22 Ekogune
21:52 Magazinea
22:37 Berriak
23:22 Eguraldia
23:52 Gurean gaur

EGUENA, 28



'Planik bai?'

Astebururako kultura ekitaldien berri jaso ahal izango duzue saioan Mireia Bikuñaren eskutik. | 16:58

12:00 Magazinea
12:50 Onein
13:13 Aizank!
14:03 Ekogune
14:37 Zorion Agurrak
14:45 Berriak
15:10 Eguraldia
15:13 Ikusmira
15:34 Zorion Agurrak
15:39 Ikusmira
16:00 Ikusmira
16:21 Zorion Agurrak
16:30 Berriak
16:55 Eguraldia
16:58 Planik bai?
17:18 Ekogune
17:48 Organo zikloa
18:23 Altxorraren bila
18:53 Zorion Agurrak
19:00 Berriak
19:20 Eguraldia
19:23 Planik bai?
19:43 Kantari
20:11 Magazinea
20:56 Berriak
21:21 Eguraldia
21:24 Planik bai?
21:44 Berriak
22:14 Eguraldia
22:17 Magazinea
23:02 Gurean gaur
23:32 Planik bai?
00:07 Planik bai?

EGUBAKOITZA, 29



'AsteOn'

Astean zehar egon diren bailarako albiste esanguratsuenen errepasoa egingo dugu saioan. | 21:34

12:00 Planik bai?
12:20 Magazinea
13:05 Kantari
13:30 Bideo klipak
14:00 Aizank!
14:25 Planik bai?
14:45 Berriak
15:10 Eguraldia
15:13 Ikusmira
15:34 Zorion Agurrak
15:39 Ikusmira
16:00 Ikusmira
16:21 Zorion Agurrak
16:30 Berriak
16:55 Eguraldia
16:58 Planik bai?
17:18 Ekogune
17:48 Organo zikloa
18:23 Altxorraren bila
18:53 Zorion Agurrak
19:00 Berriak
19:20 Eguraldia
19:23 Planik bai?
19:43 Kantari
20:11 Magazinea
20:56 Berriak
21:21 Eguraldia
21:24 Planik bai?
21:44 Berriak
22:14 Eguraldia
22:17 Magazinea
23:02 Gurean gaur
23:32 Planik bai?
23:37 AsteON

ARRASATE IRRATIA

'Tokyo Sex
Destruction'-en
kontzerturako sarrerak

Kooltur Ostegunak egitasmoaren barruan, eguen honetan Arrasateko gaztetxean izango da *Tokyo Sex Destruction* taldea. Kontzertura joateko sarrerak zozketatuko ditugu irratian, beraz, sarrerak lortzeko deitu 943 25 05 05 telefonora edo idatzi *irratia@goiena.com* helbidera.

Asteburuko zarzuelaren
kontaketa egingo
dizuegu irratsaioan

Gaur, astelehena, asteburuan Arrasaten estreinatuko den zarzuelaren kontaketa egingo digute protagonistek 107.7an. Gainera, egubakoitz honetako zarzuelara joateko sarrerak ere zozketan ditugu, beraz, sarrerak lortzeko deitu 943 25 05 05era edo idatzi *irratia@goiena.com*-era.

Joxe Landaren eguraldi
iragarpenak entzungai,
Arrasate Irratian

Astelehenetik egubakoitzera bitartean *Igo autobusera!* irratsaioan Joxe Landa eguraldi adituak egun horretako eta hurrengo eguneko eguraldi iragarpenak egiten dizkigu. Eguraldi iragarpen pertsonalizatuak ere egiten ditugu, beraz, entzuleren batek toki zehatz batetako eguraldia jakin nahi badu, idatz diezagula.

TELE-ALBISTEAK

Kantariako Bergarako
saioak estreinatuko
ditugu aste honetan

Martitzen eta eguenean 19:35ean izango dira estreinuak; hurrengo egunetan, errepikapenak



Bergarako Zabalotegin, gaztetxo talde bat ikuskizunean. | IMANOL SORIANO

AMAIA TXINTXURRETA | ARRASATE

Kantari karaoke ikuskizunean Aretxabaleta eta Eskoriatzako artista gazteak kantuan eta dantzaz ikusi ostean, Kantari herriz mugitu da eta aste honetatik aurrera Bergaran grabatutako saioak erakutsiko dizkizuegu Goiena telebistan.

Martitzenean estreinatuko dugu Bergaran grabatutako lehen saioa 19:35ean eta saio hori errepikatuko dugu hurrengo egunean, hau da, eguaztenean, 13:05ean.

Eguenean, berriz, bigarren saioa estreinatuko dugu 19:40ean eta errepikatuko dugu egubakoitzean 13:05ean.

Bi saio horiek jarraian emitituko ditugu baita ere asteburuan; zapatuan 10:00etan eta 16:00etan eta domekan 13:00etan eta 19:00etan.

Hurrengo asteetan ere Bergaran grabatutako saioak eskaintzen jarraituko dugu. Martitzen eta egunetan eskainiko dizkizuegu Kantariako Bergarako saioak eta Zabalotegin grabatutako azken saioa abenduaren 19an estreinatuko dugu Goiena telebistan.

Emakumeen kontrako
indarkeriaren eguna
berbagai, 'Magazinea'-n

Gaurko saioan tertulia ere izango dugu egunerokotasuneko gaiei buruz hitz egiteko

A.T. | ARRASATE

Aste honetan ere gai ugari landuko ditugu iluntzetan Goiena telebistan izaten dugun *Magazinea* saioan.

Gaurko saioa

Gaur, hilak 25, Emakumeen Kontrako Indarkeriaren Aurkako Nazioarteko Eguna da eta Bergarako eta Oñatiko Berdintasun zinegotziak izango ditugu egunari buruz hitz egiten.

Saioaren bigarren zatian, bertulua izango dugu eta Mariasun Pagoaga eta Julen Abasolo solaskideak izango ditugu egunerokotasuneko gaiei

buruz hitz egiten eta horien gaineko euren iritzia ematen.

Biharko saioa

Bihar, martitzena, saioaren lehen zatian Kurtzetxiki balorean jartzeko proiektuari buruz hitz egitera etorriko dira Arrasateko Ingurumen zinegotzi Josu Pereda eta Bagarako Onintze Guridi.

Bigarren zatian berriz, ekonomia kontuak izango ditugu berbagai Ander Errastirekin, berak enpresendako langarren liburua argitaratu du eta Natrako zuzendaritzako kide ere bada.

ZORION AGURRAK



OÑATI
Olatz Larrañaga Igartua
Abenduaren 1ean, 25 urte. Zorionak eta urte askotarako danon partetik! Gaur zuri tokaiten zatzu pagaitia... Nun geratuko gara?



BERGARA
Oier Fernandez Lopez
Azaroaren 30ean, 3 urte. Zorionak, txapeldun! Edarto pasatu egun berezi hau eta merendola goxua prestatu, bai? Patxo handi bat Aratzen eta gainontzekuon partetik. Mua!



OÑATI
Mario Elizburu
Azaroaren 28an, 6 urte. Zorionak, txapeldun! Horrelako guapo eta alai jarraitu. Muxutxu handi-handiak etxeko guztien eta, batez ere, Enzoren partetik.



ARRASATE
Karen Ruiz Arana
Azaroaren 26an, 15 urte. Zorionak zure hamabosgarren urtebetzeagatik! Oso ondo pasatu eguna eta ospatu merezi den bezala! Etxeko danon partetik. 15 muxu, potxola!



BERGARA
Leire eta Maialen
Azaroaren 25ean, 4 urte. Zorionak etxeko printzesei eta, bakoitzarentzat, lau txokolatzeko musu, etxeko partetik.



ARETXABALETA
Beñat Olivenza San Martín
Azaroaren 25ean, 6 urte. Zorionak, txapeldun. Besarkada eta muxu handi bat aitaxoren eta lfigoren partetik. Maite zaitugu.



OÑATI
Malen Guridi Agirre
Azaroaren 25ean, 3 urte. Zorionak, polittori! Muxu handi bat etxeko danon partetik eta ondo-ondo pasatu zure eguna!



ARRASATE
Naroa Alberdi Segovia
Azaroaren 25ean, 9 urte. Zorionak, polit hori! Ondo pasatu zure urtebetetze egunean eta lastan handi bat denon partetik!




ARETXABALETA
Daniel Seijo Fernandez
Azaroaren 25ean, 13 urte. Zorionak eta ondo-ondo pasatu zure egunean, etxeko guztien partetik. Asko maite zaitugu!



OÑATI
Jon Legazpia Larrea
Azaroaren 25ean, 9 urte. Zorionak, txapeldun! Ondo-ondo pasatu zure eguna eta muxu asko etxeko danon eta, bereziki, Naroaren partetik.



ANTZUOLA
Aiora Bernal Orgaz
Azaroaren 25an, 3 urte. Zorionak, printzesa, hiru urte dituzu gero, neska handi! Txokolate eta marrubizko muxuak Ziortzaren eta Endikaren partetik.



OÑATI
Aimar eta Anartz Sagastizabal Barbero
Anartzek azaroaren 23an, 8 urte eta anaia Aimarrek azaroaren 28an, 6. Zorionak, txapeldunak, etxeko guztien partetik.



OÑATI
Markel Barrena Bikuña
Azaroaren 23an, 8 urte. Zorionak, futbolari! Ondo pasatu zure egunean. Besarkada erraldoia etxeko partetik eta txokolatzeko muxuak Juneren, Leireren eta Eiderren partetik. Muaka!



ARRASATE
Mila Igartua
Azaroaren 22an, urtebetetzea. Zorionak zure seme-alaben partetik eta urte askotarako! Patxo bat!



OÑATI
Olga Zabaleta
Azaroaren 22an, urtebetetzea. Zorionak, Olga! Muxu handi bat etxeko partetik!



OÑATI
Angelina Erostarbe Igartua
Azaroaren 21ean, 12 urte. Zorionak, guapa! Muxu handi bat etxeko partetik. Oso ondo pasatu zure egunean eta ea laster sartzen dituzun pare bat gol.



BERGARA
Iker Gomez Gimbert
Azaroaren 21ean, 6 urte. Zorionak, Iker, etxeko guztien partetik. Bereziki Junek eta Iraiak.



ARAMAIO
Alex Lorenzo Pan
Azaroaren 20an, 5 urte. Zorionak, txapeldun! Oso ondo pasatu zure urtebetetze egunean. Nahiaeren, Markelen eta amamaren partetik. Muxu erraldoi bat!



OÑATI
Beñat Del Villar Palacin
Azaroaren 20an, 5 urte. Zorionak, txipiron. Ondo pasatu. Domekan topera ospatuko dugu danok batera. Muxu handi bat amamaren, tia Naiararen eta tio Joseren partetik.



ARAMAIO
Oihan Zufiria Azkona
Azaroaren 19an, 9 urte. Zorionak, Oihan. Oso ondo pasa dezazula zure egunian familikoan eta, bereziki, Deianeren partetik. Muxu handi bat.



ARRASATE
Oiana Sanchez
Azaroaren 18an, 28 urte. Zorionak, txptxk! Nahiz eta asteburuan ospatu izan, seguruenik oraindik indarrak izango dituzu gaur ere zure eguna biher dan moduan ospatzeko! Patxoa!



OÑATI
Martin Arza Maiztegi
Azaroaren 17an, 10 urte. Zorionak etxeko partetik eta mila patxo!



ARRASATE
Maite Perez
Azaroaren 17an, urtebetetzea. Zorionak, amatxo! Ondo-ondo pasatu eguna! Disfrutatu!



OÑATI
Jon Madina
Azaroaren 25ean, 15 urte. Zorionak familia guztiaren partetik!

Urte askotarako!

Zorion itzazu lagunak eta senitartekoak; hiru bide dituzu Goienaren bidez zoriontzeko:

Internet

Sar zaituzte Goiena.net atarian eta *Zorion agurra bidali* botoia sakatu; bete eskatutako datuak, eta bertan argitaratuko da zorion agurra, baita GOIENA paperean ere.

Posta elektronikoa

Mezua bidali zorionagurra@goiena.com helbidera, eta idatzi: izen-abizenak, herria, urtebetetze-eguna eta nahi duzun testua.

Ordezkaritzak

Etor zaituzte Goienaren ordezkariaren batera.

Egubakoitzeko
11:00ak arte
jasotako zorion agurrak
bakarrik iragarriko ditugu.

Hortik aurrera jasotakoak
hurrengo astean
argitaratuko ditugu.

ESKELAK JARTZEKO: 943 25 05 05

Egubakoitzean nahiz astelehenean argitaratzeko.

Eskelaren prezioa: 130 euro.

Egubakoitzean eta astelehenean, bietan, argitaratuz gero, 175 euro.

Goiena: irakurriena Debagoienean.**ASTE BARRUAN, BAITA ERE:****ARRASATE** Goiena: Otalora Lizentziaduna 31. 943 25 05 05.**BERGARA** Jardun elkarte: Errotalde jauregia (kultura etxean). 943 76 08 19.**OÑATI** Biklon publizitate agentzia: Olakua 9. 943 78 10 65.**ARETXABAETA** Goiena: Basabe poligonoa E05. 943 25 05 05.**ARAMAIO** Kintelena janari-denda: Nardeaga 11. 945 44 50 22.**ELGETA** Ugari janari denda: Andra Mari plaza 2. 943 76 80 98.**ANTZUOLA** Itzar liburu-denda: Kalebarren 1. 943 76 60 62.

OROIGARRIA

Javier Kortabarria Arkauz

Auzo Lagun Koop. Elk.-ko langilea

*Nahiz eta gure artetik joan, beti gogoan izango zaitugu.*Auzo Lagun Koop. E.
Arrasaten, 2013ko azaroaren 25ean.**OROILORE**

Maitasunez bizi, maitasunez agurtu

*Hain une delikatu batek eskatzen duen errespetu, arreta eta ardura handienarekin, nire asmoa da familiari ahalik eta traturik beroena eta hurbilekoena ematea**Heriotza-asegurua baduzu: Ez onartu besterik gabe zure aseguru-konpainiak esaten dizun Hileta-Zerbitzua, jakin ezazu:**NAHI DUZUN Hileta-Zerbitzua
AUKERA DEZAKEZULA BETI.*maribi 617 44 21 55
BERGARA**JAIOTAKOAK****Ilargi Loiola Minguez**

Bergara. 3,340 kilo. Azaroaren 13a. Gurasoak: Enara eta Aitzol. Argazkian, gurasoekin.

**Arane Torres Sanchez**

Arrasate. 3,640 kilo. Azaroaren 20a. Gurasoak: Veronica eta Patxi. Argazkian, umea aitaxoren besoetan.

**Genaro Vilches Perez**

Arrasate. 3 kilo. Azaroaren 16a. Gurasoak: Katia eta Modesto. Argazkian, Genaro amarekin.

**Pedro Urrutia Arribillaga**

Bergara. 2,970 kilo. Azaroaren 21a. Gurasoak: Maite eta losu. Argazkian, ama, Anartz, Pedro eta aita.

**Asier Cabezudo Rios**

Aretxabaeta. 3,440 kilo. Azaroaren 18a. Gurasoak: Ana Belen eta Fernando. Argazkian, Asier sehaskan.

**Julia Horrillo Rodriguez**

Bergara. 3,030 kilo. Azaroaren 17a. Gurasoak: Maria eta Agustin. Argazkian, Julia amarekin.

**Naia Romaris Gomez**

Oñati. 3,400 kilo. Azaroaren 20a. Gurasoak: Silvia eta Roberto. Argazkian, Naia amaren besoetan.

**Ane Meabe Perez**

Durango. 3,200 kilo. Azaroaren 17a. Gurasoak: Yolanda eta Iñigo. Argazkian, Ane gurasoekin.

**Maitane Zurbano Gutierrez**

Arrasate. 3,820 Kilo. Azaroaren 16a. Gurasoak: Estibaliz eta Javier. Argazkian, Maitane amamarekin eta amatxorekin.

Eroski hipermerkatuaren partetik,

zorionak

jaioberriei eta gurasoei

Eroskik, zuen lehen beharretarako,
10 euroko bonua* egingo dizue opari
Goiena Klubeko bazkide zaretenoi.Musakola 11 ARRASATE
Tel.: 943 71 10 30Arrasateko hipermerkatua
EROSKI
zurekin

* Debagoieneko ospitalean jaiotzen direnentzat

**Jaio da!****Eman jaiotzen berri Goiena paperean eta interneten.
Deitu 943 25 05 05 telefonora
edo zatoz GOIENAREN ordezkari batzera.**Egubakoitzeko 11:00ak arte jasotako jaiotzak bakarrik iragarriko ditugu.
Hortik aurrera jasotakoak hurrengo astean argitaratuko ditugu.

AI, ENE!

Sasoian, gimnasioan lan egin beharrik gabe

Askoren ametsa da tripa beharrean txokolate tableta izatea. Horrek izerdi asko eskatzen duenez, argazkikoa izan daiteke erremedioa. www.facebookfails.es



AHOBERO

"Bost urte gutxi dira. Hortik buruan tiro bat jotzera urrats bat dago".

FRANCISCO GRANADOS | PP-KO SENATARIA

Fiskaltzak bost urteko espetxe zigorra eskatu du Yolanda Barcinari tartak jaurti zizkiotenen-tzako; senatari popularraren ustetan, gutxiegi. Baina hori arrazoitzeko ez al da gehiegitxo tartak eta balak ia maila berean jartzeta? **13Tv**

EGURALDIA



Max. **7°**
Min. **2°**

Goizean baliteke euri apur bat egitea, 600-700 metro inguruko elur-kotarekin. euskalmet.net

ASTELEHENKOA

goiena

2013-11-25

HAMARREKOA

Iñigo Seguro Nekazaritza ingeniaria, Edinburgon ikasi zuen Paisajismoa; 'Bricomanía' eta 'Decogarden' saioetan argi uzten duen moduan, lorategi eta parkeek ez dute sekreturik berarentzat | TXOMIN MADINA

"Landare inbaditzaileen aurkako kanpainen kontra nago"

1. Zenbat aldiz azaldu behar izan duzu paisajistaren lana zein den? Kanpoan ikasi eta hemen lanean hastean, askotan. Telebistari esker, egun, jendeak badaki. Parke eta lorategien diseinua da: arkitektoek espazioak hildako materialekin sortzen dituzte; guk landareekin.

2. Belarra besterik ez duen lur-saila dut. Nondik hasi apaintzen? Naturarekin nolako harremana nahi duzun hausnartuz: estetikoak bakarrik? Ortua ere nahi duzu? Bakoitzaren izateko erak naturarekin dugun harremanera garamatza. Irrika sortuta, infiniturantz doan atea irekitzen da; mila aukera.

3. Paisaia bat sortzeko, edozein landare da baliagarria? Bai. Horretan eskuzabala naiz: landare inbaditzaileen aurkako kanpainen kontra nago. Gure berezko paisaia iraindu arren, badute lekua, guk eman diegu-eta; zentzugabekeria da akabatzea.

4. Eta usainak zein garrantzi du honetan guztian? Gurean txikia: hezetasunak, landare mota asko landatzeko aukera eman arren, usaimena kentzen du. Mediterraneoan, aldiz, usaimenak sekulako garrantzia du.

5. Zein da aho zabalik utzi zaituen gizakiak sortutako azken paisaia? Normandiako Le Jardin Plume: ikusi dudun lorategi politena da, negar eta guzti egin nuen. Estetika basatia eta frantziarren berezko ordena uztertzen dituzte.



AGM

MAKILA MAGIKOA BANEUKA...

"Gizakion populazioa murriztu"

"Gizakion populazioa seriooki murriztuko nuke, ez dakit %1 ere utziko nukeen. Uste dut gizakiok izan garela eta garela mundu zoragarri honen aniztasuna murrizten ari garenak, eta murrizketa hasi besterik ez da egin. Ez daukagu inongo eskubiderik bizi izaten jarraitzeko".

6. Landareei hitz egiten dien horietakoa zaitugu?

Beti diot hitz egiteak landareei barik, guri egiten digula on; suposatzen du bizidunak bezala tratatzen ditugula, garrantzia eman eta bere beharrak aseta. Horrek guri eta landareari ere egingo dio on. Guk entzun egin behar ditugu.

7. Utahko Unibertsitatearen arabera, landareak zaintzeak argaltzen laguntzen du. Ados?

Horrek esan gura du azken lau urteetan ez ditudala ondoegi landatu, 10 kilo erantsi ditut-eta!

8. Lore sorta oparitu gura dizunak zerekin ez luke hutsik egingo?

Edozeinekin. Uste dut egin daitekeen oparirik politena dela. Nik gehienetan hori oparitzen dut; jaso, baina, gutxitan. Gustatuko litzaidake gehiagotan jasotzea!

9. Ia hoge urte telebistan Bricomanía-rekin. Gutxiaren esku dagoen meritua...

Bai, mirakulua bezala da, *Informe Semanal* eta horien pare. Baditugu 100.000-200.000 ikusle fidel. Akaso da jendea nagia delako eta eserita besteak lanean ikustea gustatzen zaiolako. Ereduak, ia aldaketarik gabe, balio du oraindik.

10. Eta zure itxura ere, ia berbera. Zein da sekretua?

Hor daude lehengo hamar kiloak; jendeak, gainera, lotsa barik esaten dizu gizendu egin zarela. Mototsagatik badirudi ezetz, baina bai, aldatu egin dut itxura.

BIHARAMUNA



IXIDOR SOLUPE

Energia... gure zalantza

A besti herriko baten hasierak honela dio: *San Simon eta San Judas joan zen uda eta negua heldu da...*; eta benetan, negua heldu zaigu, euri, hotz, izotz eta elurra-ekin. Sasoi honetan beharrezkoa egiten zaigu bai lantokietan eta bereziki etxeetan berogailua piztea.

Gizakiek beroa, argia eta txingarra menperatzen ikasi zutenetik hiru energi mota horien jabetza izan nahia handitzen joan da. Kontrolik gabeko nahi horrek, gehiegizko arriskueta eraman eta Ama Lurak sufritzen ditu ondorioak.

Ikatzak, petrolioak eta gas naturalak betetzen dute munduko behar energetikoaren %80a, eta karbono dioxido (CO2) eta beste gas batzuek planetaren berotegi-efektua eragiten dute. Nazioarteko Energi Agenciaren txosten baten arabera, 2030erako %50an gehitu daiteke energia eskaria, honek dakarren isurketa igoerarekin. Eta joera mantenu ezker, munduko tenperatura batz best 6°Ctan igo daiteke. Ingurumen, ekonomia eta gizarte ikuspegitik eutsiezina da, eta ondorioz gizakiaren adikzio eta ohi-turak aldatzeko iraultza energetiko mundiala beharko dugu.

R.P.S. Nº 140/10 I.L.G.

Gure betaurreko guztiak azken bildumakoak dira

ZURE BIGARREN

VARILUX®

LEIAR PROGRESIBOAK

OPARI*

* kontsulta itzazu zure zentroan kanpainaren ezaugarriak.

BEASAIN • DONOSTIA • EIBAR • ERRENTERIA
IRUN • ORDIZIA • TOLOSA

J. Carlos Guerra, 1 • Tel.: 943 79 29 95
ARRASATE

Ibargarai, 16 • Tel.: 943 76 15 75
BERGARA

MULTIÓPTICAS

lehena zerbitzu optikoetan